EUSKALZALEEN BILTZARRA

(Juan Antonio Mogel Eibar'ko semearen gorazarrez)

Eibar en, 1959 Azaroaren 6, 7 eta 8-an

Eibar-en 1959 azaroaren 6-an eta 7-an egin ziran Euskaltzaindiak antolatu zuen Euskaltzaleen Biltzarreko itzaldiak. Biltzarrerako aldezaurretik jarrita zegoen gaia au zan: Mogel euskalliteraturan eta literatura izkuntzaren problemak.

Ostiral goizean asi giñan eta larunbat eguerdian bukatu. Larunbat arratsaldean aurren esamiñak izan ziran eta igande goizean sariak eman aurrai eta arratsaldean Gipuzkoako Bertsolarien Txapelketa Nagusia. Beste jai batzuek ere izan ziran.

Itzaldiak asi ziranean maipuruan zeuden: Eibarko Alkate Jaun Javier Eguren, Aita Ignazio Larrañaga Pingpliang-go Apezpiku jauna, Aita Luis Villasante, Juan San Martin, eta Alfonso Irigoyen sekretario bezala.

Eibar-ko Alkate Jaunak eman zion asiera itz eder auekin:

ONGI ETORRIA

JAUN OSPATSU TA AGURGARRIAK:

Ikusi dezuten bezela, gaur Eibar-ko erria apainduta agertu da, EUSKAL BILTZARRERA etorri zeraten danori ongi etorria emateko, eta nik, erriaren gogoarekin bat eginda, agurtzen zaituztet biotz biotzez.

Zuen oñak Eibar-en ipiñi dituzuten egunean bertan, gure biotzen jabe egin zerate eta gure eskuan dagoen dana zeuena da; zeuen errian zaudete.

Zabaldu dizkizugu udaletxeko ateak zabal-zabal bere jabe egin zaitezten egun onetan, euskeraren gora-berak aztertzeko, goratuaz era berean euskeraren alde beren jakinduria ipiñi zutenen izenak, gure izpillutzat jarririk, guk eta gure ondorengoak ikasi dezagun ayek erakutsi diguten bide ederra.

Eibar-en izena goi-gora jazo dezute zuen lanetarako aukeratzean; egia da, lan orren ekiñaldi aundi ta sakonena dala gure Mogel ospatsuak euskeraren alde laga digun egintza; ori ala izanik, berezkoa dirudi bere jaioterrian aztertzea egintza

ori, bere erritarrak ezagutu dezagun gizon agurgarri onen aunditasuna ta jakinduria, zenbat lan ta zein ondo egin zuan euskeraren alde.

Agindu bada, jaunak: Emen gaude zuen lanetan lagundu nairik; gure gogo guztia zuekin dago eta poz pozik ongi etorria Eibar-en izenean eman dizuedan bezela, naiko nuke zeuen lan burutsuak amaituta zeuen etxeetara joaten zeratenean eraman daizuela Eibar-tik oroigarririk onena; ortarako ez genduke ezertan uts egiterik nai, eta geiago egiten ez badegu zuen biarraren alde, izango da gure ezjakin ta argaltasunagatik, baño ez beintzat gure borondate ta gogo onena jarri ez degulako zeuen egunak Eibar-en alai ta pozgarrienak izan ditezen.

JAUNAK! ONGI ETORRIAK IZAN ZAITEZTELA GURE ETA ZUEN ERRIRA.

Bukatuta Irigoyen-ek eskerrak eman ziozkan: Guztion izenean eta batez ere Euskaltzaindiaren izenean eskerrak eman bearrean gaude Eibar-ko Alkate Jaun eta Ayuntamentuari, eman dituen erreztasun guztiakatik eta Mogel Eibar-ko bertako seme bati egiten dion gogorazio eta merezi duen laudorio aundiagatik. Beraz, eskerrak ematen dizkizugu biotz biotzez. Eta besterik gabe arloari asiera emango diogu. Lendabizi Juan San Martin jaunak itz egingo du:

JUAN ANTONIO MOGEL ETA URKITZA

Bere bizitza ta lanak

BIZITZARI BURUZ

Juan Antonio Mogel'i buruz estudio on bat egingo bada nai ta naiezkoa dugu bere laneri oratu bearra, ez baita bere bizitzaz idatzitako ezer gelditu, filolojia gaietan bere lankide izan ziranen oar batzuek, eskutitzen bat edo beste eta idaz-

leren batek irriztadan aipatu duen zerbaitxo izan ezik. Beraz, oso gaitza da Mogel'en bizitza argi ta garbi osatzea. Ala ere, or-emen batutako oarretatik eta bere lanetatik, argi apur bat atera diteke.

Mogeli buruz sakonen zaildu dana Justo Garate da noski, bere *La época de Astarloa y Moguel*-en (Bizkai'ko Diputazioko "Junta de Cultura Vasca"-k, 1936'an argitaratua), eta nere lan onetan maiz erabilliko ditut bertatik atera ditudan berri ta erabakiak.

Mogel, oso langillea ta jakituna genduan, bañan langillea bezin ixilla eta, esate baterako, ez zan arduratu ere egin bere idazlanak ezautarazten. Ori zala ta edo, bere lanik geienak eriotza ondoren argitaratu ziran; eleiz libururen bat edo beste kendu ezkero. Eta oraindik ere badira argitaratu gabeak. Mogel ezagutzeko bere idaz-lanetan zear barruratu bear da eta zenbat eta geiago sakondu ainbat eta maiteago dugu, eta bizitza baten estudioa egiteko, bizitza bera larregi maitatzeke egitea obea bada ere, gauzak zalekeriz baizik otzean egin bear diralako, oso gaitza izaten da norberak aukeratutako bizitza baten aburua zuzena egitea, geienetan bizitza maitagarri bat autatzen dugulako. Eta neu ere Mogel'ekin larregi zaletu ote naizen nago; bañan aleginduko naiz apaltasunez adierazten.

Gregorio Mujika'k 1910'garrenean argitaratu zuen *Monografía Histórica de la Villa de Eibar*-en ez du aipatzen Eibar'ko seme ospatsuen artean, geien bat ere, guziak Markiña'kotzat zutelako. Eta Mugartegi'k *Monografía de la Villa de Marquina*-n, 241'garren orrialdean, markiñartzat jarri zuenetik, idazle guziak angotzat erabilli dute. Bañan, Karmelo Etxegarai'k, bere lan baterako Mogeltarrak zeatz aztertzen asi zanean, Markiña'n etzuen aurkitu Juan Antonio-ren agiririk eta orduan asi zan bere familia nundik-nora bizi izan zan azterrenak ateratzen eta, Eibar'ko parrokiara ots egin zuenean, atera zuen illunpetik Mogel eta Urkitza'n sorterria. Don Eujenio Urroz'ek garai artan Eibar'ko parroko zanak, arkitu zuen bere bataioagiria.

Bere aita, Juan Ignacio de Mogel y Pérez de Almazán, medikua zan, Markina'n jaioa, baña bere aita, Juan Antonio'n aitona, Andres Domingo, Logroño'ko Alfaro'n jaioa, Markiña'n sendagille zegoan napar jatorriko bat, eta amona arabarra. Juan Ignacio, Eibar'ko sendagillea, Xemein'go Gabriela Ignacia Urkitza ta Aranzabal'ekin ezkondu zan eta Eibar'en bizi ziran aldi artan etorri zan mundura Juan Antonio. Beraz, Juan Antonio Mogel eta Urkitza, Eibar'en jaio zan, eta antziñan oitura

zanez, uste dut jaio zan egunean bertan bataiatuko zutela, au da: 1745'garreneko Abenduaren 6'an; Urroz'ek arkitutako agiriak dioten bezela Juan Ignacio Ramón izeneko anai bat, 1747'an Eibar'en jaio ta bertan il zan, eta Maria Josefa Lorenza izeneko arreba bat ere Eibar'en bertan jaioa zan 1748'garreneko Agustuaren 10'ean.

Azkenengo gerratean Eibar'ko eleizako artxiboak erre ziran eta bataio-papeletatik gutxi baño ez ziran salbatu. Eta orain egun gutxi dala begiratu genduan ia Mogel'enik ezer agertzen zan eta Don Miguel Lasa, erretore jaunaren laguntzarekin, erdi-erreta billatu genduan bere bataio orri ori, lenago Don Eujenio Urroz'ek billatu zuena. Erdi-errerik egonarren fotokopia bat atera genion. Eguna, illa, urtea ta bere izen ta deitura oraindik ongi irakurtzen dira.

Nasterik izan ez dezagun, esan bearra dut Juan Antonio'k, aitak bezelako izena zuela ta gañera sendagille zan Juan Ignacio bere anaiarengandik bi illoba izan zituela. Illoba auek, Juan Jose Mogel eta Elgezabal, Plazentzia'n jaioa eta Bizenta Azkoiti'n jaioa ziran. Juan Antonio'k eskolatuak izan ta, ikasle on bezela, euskal arazoetan osabaren jarraitzalle bikañak atera ziran. Mogeltar euskal-idazle auek, askok bein baño geiagotan bata besteakin nastu izan ditu. Juan Antonio beren osaba aña izatera eldu ez baziran ere etziran beragandik oso urruti ibilli; osabaren ezpalekoak atera baitziran.

Juan Antonio'n aurtzaroaren berririk ez dugu eta bere gurasoena ere oso gutxi. Justo Garate'ri jarraituz dakigu, 1749'an Mogeldarrak Deba'ra aldatu zirala ta an jaio zala bere anaia, Juan Jose ta Bizenta'ren aita. Eta 1753'an ostera Markiña'ra itzuli ziran bizitzera. Aldakuntza auetan, zalantza gabe, Juan Antonio ere berekin joango zala uste dugu; beintzat, azken urte orretako Iraillean, Markiña'n artu baitzuen konfirmaziñoa.

Eztakigu Mogel'ek noiz artu zuen apaizetarako bidea. Bakar-bakarrik dakiguna da, bere aurtzaro ta gaztaroa utsunez beterik arkitzen ditugula, artaz ezer ez baitakigu.

1770'garren Martiaren 23'tik Markiña'n apaiz agertzen da, 1775'eko Otsaillean Etxebarria'ko San Andres'en apaiz eta 1788'ko Martiaren 4'garrenetik bere eriotzara arte Xemein'go erretorea izan zan. Gaytan de Ayala'n etxean igaro zituan azkenengo urteak.

Inguru artan Guillermo Humboldt'i atsegingarri izan zitzaion Mogel'ek Markiña'ko iturri bati ipiñi zion bertsoz egindako irakurgaia. Irakurgai ori Mugartegi'k onela adierazi zuen:

"Karlos Irugarrena
Bizkai'ko jaun dala
Markiña'ko uriak
egin nau onela.

Ugarte'ko axpeetan
daukat jatorria
ubide sakonetan
ekarri ugaria.

Ur au ederra zala
esanik aituak
alan arindu dira
neke ta kastuak."

Erriko iturri berri bati bertsogiñan asi zanean, bertsoak baño zerbait geiago ere ipiñiko zuen noski. Biotz aundidunak, maiz esku zabalak.

Markiña-Etxebarria'n apaiz zegoan denporakoak ditugu Eusebio Maria Dolores de Azkue'k *Mogel eta Txaraka* izenburuz egin zituan bertsoak, geroago Resurreccion Maria bere seme ta Euskaltzaindi'ko zuzendaria izan zanak 1896'an *Parnasorako bidea* izeneko liburu batean argitaratu zituanak; Gertaera ortan, etsipena arturik iltzen zegoan batek Jaunari eskatzen zion bera beste mundura ez eramateko, eta, naiz zerurako edo naiz inpernurako, nortzuek ziran bera baño aukerakoagoak izendatzen asi zanean, auen artean jartzen zuan gure Mogel, esanaz: *On bat bear badozu— Santua lakoa...—or dago Mogel jauna—bana banakoa,* eta Mogel nolakoa zan jakiteko agiri ederra dugu ori.

Vargas Ponce'ri idazten zizkion eskutitzetatik oso maitekorra zala nabaritzen da; Justo Garate'k estudiatu izan ditu Humboldt eta Vargas Ponce'kin izan zituan artu-emanak eta gizon argiaz gañera on uts bat omen zan, bere bizitza jarraigarria, apala bezin aunditasunezkoa omen zan. Bañan esan dudan bezela, beragan sakontzeko, nai ta nai ez, bere lanetara jo bear da.

Idazle azkarretarikoa izanik, bere azken urteetaruntz asko idatzi zuen, bañan lentxoago esan dudan bezela, bere lanik geienak eriotza ondoren ikusi zuten argia. Orraitio, gutxi baño ezpaziran ere, batzuek bera bizi zan artean argitaratu ziran; auek ditugu:

Konfesio ta Komunioko Sakramentuen gañean erakasteak, gipuzkoeraz egiña, Iruñe'ko Ezkerro'nean argitaratu zan 1800' ean.

Nomenclatura de las voces guipuzcoanas, sus correspondientes vizcaínas y castellanas, 1801'en zenbait euskalarik lan au berea eztala ere esan dute, bere illobarena baizik, bañan Humboldt'ek eman dizkigun agirieri jaramon egiten badiegu, garbiasko ikusi genezake Juan Antonio'rena dala. "*Nomenclatura de las voces Guipuzcoanas con sus correspondientes Vizcaínas y Castellanas, para que se puedan entender ambos dialectos. Ocho páginas en 4°. Esta es una colección solamente muy incompleta de palabras peculiares a los dialectos guipuzcoano y vizcaíno. Las primeras están colocadas por orden alfabético, con las vizcaínas y castellanas puestas al lado. Su autor, el Cura Moguel, de Marquina, uno de los hombres más versados de Vasconia en el estudio de las lenguas, ofrece al mismo tiempo escribir un diccionario completo de los tres dialectos vascos, el cual, no obstante, no se ha publicado*". Agiri danez, argi ta garbi dagoela uste dut lan onen egillea Juan Antonio bera zala.

Versiones vascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos, 1802'an Tolosa'ko Lama'nean argitaratua. Bertan ditu Curzio, Salustio, Tito Livio,



Eibar'ko eleizan erdi-errerik arkitzen dan Mogel'en bataio agiria

Tacito eta Ciceron'en jardun batzuek latiñetik euskerara itzuliak.

Kristauaren dotriña (*Kristiñauaren jakinbidea*-ren laburpen bat omen da), ziurki Bilbo'n 1846'an argitaratu zan, bañan batzuek diotenez 1802'an Gazteiz'en argitaratu omen zan; oraindik erabagitzeke dago.

Estudios gramaticales sobre la lengua euskara, Gazteiz'en 1803'an azaldu zan: au ere, Soraluze'k aipatzen du bere euskal bibliografia lanean, bañan ez omen da gauza ziurra Juan Antonio'na zana.

Konfesio ona' Gazteiz'ko Larunbe'renean argitaratu zan 1803'an, bañan Soraluze'k dionez ordurako baomen zituan gutxienez bost ediziño.

Auek dituzute Juan Antonio'k argitaraturik ikusi zituanak. 1804'garreneko Maiatzaren 11'n berrogetaemeretzi urtekin il zan (1). Duranatz'ek zionez, bere *Curiosités* liburu aipatuaren lenengo tomoaren 273-garren orrialdean, oso txiro il omen zan, bere diruak Prantzia'ko matxinadatik igesi zetozten apaizeri ta beartsueri laguntzen eman zitualako. Onek ere ez du gutxi esan nai gure Juan Antonio'n alde. Esku-zabalak bakarrik iltzen omen dira txiro, ta Mogel ere oietarikoa genduan. Bañan dirurik utzi ez bazuen ere, jakintza ta literaturaren aldetik naikoa aberastasun utzi zigun. Geroztik argitaratu ziran laneri begiratu besterik ez dugu, bere il-buru ondorenaren aberastasuna ikusteko; auek ditugu: *Kristinauaren jakinbidea, Ipuiak, Pascal'en gogamenak, Diálogos vascongados* eta *Peru Abarka* dira euskerazkoak, eta *Cartas y disertaciones sobre la Lengua Vascongada. La Historia y Geografía de España ilustradas por el Idioma Vascuence* eta *Comentarios al Canto de Lelo*, erderaz. Auetariko batzuek amar aldiz argitaratuak dira. Guzietatik onena eta gaurko egunean entzute aundienekoa *Peru Abarka* dugu; lenengo aldiz *Beti bat* egunerokoan atalka argitaratu zan 1880'an eta gero, liburu bezela, Durango'ko Elizalde'n moldiztegian 1881'ean; arrezkero beste iru aldiz ikusi du argia. 1899'ko argitarapena euskeraz eta erderaz egin zuen Azkue zanak. Geroago, Gregorio Arrue'k bizkaieratik gipuzkoerara aldatu zuen, bere erdia inguru, Fausto Arozena'k "Real Sociedad Vascongada de Amigos del País"-ko boletinean argitaratu zuen,

---

(1) Aita Villasante'k, Añibarro'n eskutitzetatik jakin du gexo bat ikustera joan zanean kutsatuta il zala Mogel. Berri au beste agiri bat dugu Juan Antonio'n ontasunaren alde.

Donostia'n 1948'tik 1950'ra. Euskaldunentzat ain izan da atsegingarria *Peru Abarka*, moldiztegietan argitaratu aurretik ere, esku-izkribuz, toki guzietan zabaldurik zebillen erriz-erri ta eskuz-esku.

Bere denporako Euskalerriaren bizitza-erarik geienak bertan jasotzen dira eta literaturarako duen balioaz gañera, orduko gauza jakingarri asko adierazten dizkigu. Orregatik dio Garate'k bere liburu aipatuan: "*Si me preguntaran: ¿Cuál cree usted que es el libro vasco cuya traducción es más interesante desde el lado científico?, yo elegiría sin vacilar el Peru Abarka*".



Markiña'ko eleizan arkitzen diran Mogel'en autografoetariko bat

Bere irakaskintzak nola-naikoak izan ez diralako euskaltzalerik geienak eskertu dute Mogel, beren biotzak irabazi baitzituan, eta guziak banan-banan zerbait eskeñi diote; auen artekoak ditugu Etxegaray, Azkue, Campión, Urkijo, Lojendio,

Arrue, Etxaide ta abar, batez ere Justo Garate'k, Mogel'en bizitza ta lanekin geien arduratu dan Garate'k, eta guzi auek gutxi badira, emen ditugu egun auetan beste ainbeste, berari omenez zerbait eskeñi naiean, urteak zear geroago ta gorago jartzen dijoan euskal idazle ta euskalari Mogel eta Urkitza trebeari. Izan ere, zer geiago eskatu diteke gizon bategandik? ; ona, jakituna, langillea ta bere erriaren maitale kartsu bat izatea baño? Batez ere, gure euskera gaxoa maite dugunontzat Mogel da gure gogoaren eredua. Nik beintzat, bera burura datorkidan bakoitzean, bere itz aiek bein eta berriz esan bearrean arkitzen naiz: "*Urkatuko litukee askok euren buruak, foruen legerik txikiena galdu ez dedin. Barriz antxinagoti jatorkun euskera, galdu dedilla ordu onean*". Ori da, orduko ta gaurko erriaren joera. Euskera galduaz foruak galdu ziran, eta euskera galduaz Euskalerria guztiz galtzera dijoa. Izkuntza erriaren arima izanik, euskerari eutsi bearrean gaude ta ortarako Mogel'en antzerako geiago bear ditugu; ori baita Euskalerriaren nortasuna gordetzeko bide bakarra.

EUSKALARI ARAZOETAN

Juan Antonio'n filolojia laneri begiratu bat emango diegu bere balioaz oartu gaitezan, eta orretarako, aleginduko naiz alik eta laburren adierazten, nere itzaldi au aspergarri izan ez dedin.

Mogel izkuntzalari bikañetarikoa genduan, Pablo Astarloa'ren adiskide aundia izan zan eta *Apologia*-ren egilleakin artu-eman aundiak izan zituan, filolojia gaietan. Humboldt, Hervas y Panduro, Padre Rico, Vargas Ponce ta Añibarro, bere garaiko filologo aipatuekin ere ar-eman asko izan zuen eta *Cartas y disertaciones sobre la Lengua Vascongada* eta *La Historia y Geografía de España ilustradas por el Idioma Vascuence* ditu ortaz ari izan zituan lanak, bai bata eta bai bestea, bere eriotza ondoren argitaratu ziran bañan bere adiskide edo lankideak bazuten beren berri, eta ziur asko Humboldt asko baliatu zan bere *vasco-iberismo*-ko teorieri buruz idatzi zuen liburua egiteko. Eskutitzez beintzat badakigu asko lagundu ziona, eta geien bat ere, ez zan ausartzen bere lanaren berri ematen; beti prudenteki jokatzen baitzuen. Astarloa, bera baño ausartago azaltzen zan eta, Garate'k dionez, bein baño geiagotan esaten omen zion Mogel'ek, zenbait iritzi zuzenduaz eta iñoiz kontu geiagokin ibiltzeko eskatuaz. Astarloa'k, orduko beste askok bezela, sarri defenditzen baitzuen euskera Paradisuko Adan eta Eba'n min-

tzairatik zetorrela, ta beste olako ametsez eta arinkeriz beteriko teoriak, letra bakoitza bananduta, iñolazko txorakeriak asmatzen. Astarloa'kin, Larramendi'n kardoa lora biurtu zan, bañan polenik bako lorea, lora antzua. Gaurko egunean, Astarloa'nik, euskeraz idatzi zuenak bakarrik balio du. Bañan, oso gutxi da Astarloa'k euskeraz idatzia; euskerari buruzko teorietan eman baitzituan bere indarrik geienak. Ez dut esan nai bere lanak kaltegarrizkoak izateraño diranik ere. Filolojiaren zientzia jaio-berria zanez, ezer gutxi eskatu genezake orduko lanetan, gutxi edo asko, guziak izan zituzten beren akatsak eta utsak. Egia esan, gizonetan ez baita ondore-on edo ondapenik, oar-ikaspenak eta esperientziak baizik. Eta Astarloa'gandik jaso ditugun esperientziak oso gogoangarriak dira; bide oieri berriz ez jarraitzeko bestetarako ez badira ere. Teoriaz aski da, bizitza da euskerak burua jasotzeko bear duena, eta obe dugu euskerari buruz erderaz jardun baño, euskeraz mintzatu.

Eztakigu nola, bañan Mogel noizbait oartu zan, gure erri ontan, balio zuena euskera zala ta ez beste; orregatik Mogel'en lanik geienak euskeraz daude. Bestela aztertu dezagun Garate'n aburua eta azkar aditzen emango dizkigu bata-bestearen aldeak. Bere itzak dira: "*Si hiciéramos una especie de vidas paralelas entre Astarloa y Mogel, éste superaría al primero en el sacerdocio, en el uso escrito de la lengua elogiada —o sea la fe con obras—*". Eta urrengo: "*Por eso hallaréis hoy de nuevo una preferencia por Mogel que va en contra de la popularidad mucho mayor de Pablo Astarloa el romántico*". Izan ere, durangoarrak amets larregi zituan, filologoa baño semantitu-ameslari bat geiago izan zan. Mogel'ek bere iritziak obeto neurtuta erabilli zituan; orregatik zion Farinelli'k: "*...este sabio vascófilo tan modesto y tan discreto*". Orregatik ez pentsa Mogel utsik gabea zanik, geroago ikusiko ditugu ibero ta euskalduneri buruz zituan teoriak. Bañan, garai artakoa izateko naikoa zuzen ibilli zan gure Juan Antonio, Fausto Arozena'k dio: "*Tan ponderado era en sus juicios que hasta se frenaba, como entonces no era costumbre, en su deslizamiento por el plano inclinado de las etimologías...*" Azkenean nork eta Unamuno'k ere, euskaldunen artean eta batez ere euskaltzaleen artean ainbeste burruka sortu zuen *La cuestión del vascuence* tesisean, ipintzen du: "*Continuó a Astarloa añadiendo a sus doctrinas algo que parece cabalismo, don Juan Bautista de Erro y Aspiroz, ministro que fué del pretendiente don Carlos María Isidro, llamado Carlos V. Libre de tales excesos se mantuvo el prudente y sensato don Antonio Moguel, cura párroco de Marquina y princi-*

pal guía de Humboldt en sus estudios sobre el vascuence" ; uste dut badala naikoa esatea. Gure arteko orrelako "keri" asko, nunbait etziran izan Unamuno'n errazoia ta gogoaren betegarri, ta gauza auek ta antzerakoak ez al ziran izan bilbotar filosofu ospetsua gugandik uxatu zutenak? Bildur naiz beste askokin ere ori berori ez ote zaigun gertatuko Euskaldunok zein baño zein buru gogorragoak baikera.

Itzaldi labur ontan ezin nezake eman bera ta bere lanen zeaztasun sakon bat eta gauzarik aipagarrieneri begiratu bat emango diegu bakarrik.

Mogel, bere garaiko filologo nagusienen artean zegoan eta, garai artako giroari jarraituz, *vasco-iberismo*-ko teoria aietan sakondu zan ta beste askok baño argiago adierazi zituan bere iritziak *La Historia y Geografía de España ilustradas por el Idioma Vascuence-n*. Eta Mogel'en lan au galdua izango zan noski Azkue'k Humboldt'en papelen artean aurkitu ezpalu, eta geroago Justo Garate'ri eskerrak, jaso, eratu ta "Euskera"-n, 1935'ean argitaratu zan, lenengo zatia, eta bigarrena ezautarazi.

Seguru asko, Humboldt, bere *vasco-iberismo* teoria aiek burutzeko Mogel'en lanakin ere baliatu zan, naiz-ta Larramendi, Astarloa eta Erro'n lanak bakarrik aipatu. Garbi dago, aiek bakarrik aipatu bazituan, argitaratuak bakarrik aipatzearren izan zala. Mogel, 1804'an il zan, eta Humboldt'ek 1821'ean argitaratu zuen bere *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Spaniens vermittelst der Vaskischen Sprache* (España'ko lengo biztanleak, euskeraren laguntzakin aztertuak) liburu entzute aundikoa. Eta Humboldt'en eta Mogel'en artean ain artu-eman onak izan, ain ongi alkar aditu eta Mogel'en lanaz Humblodt'ek ezer ez jakitzea ez dirudi zentzunezkoa. Zalantza gabe, Humboldt'ek ondotxo ezagutu zuen Juan Antonio'n lana. Zergatik ez zuen aipatu? Argitaratu gabea zalako? Ez jakin.

Dana dala, *vasco-iberismo*-ko teoria oiek elduaz zetozten urtetik urtera. Orretzaz lenengo aldiz argi-printzak piztu zituana, amalaugarren mendeko Esteban de Garibay (1525-1599) ainbeste euskal esaera bildu zituan arrasatearra izan zan ; ta bere ondoren Andrés de Poza orduñarra, bere *De la Antigua Lengua, poblaciones y comarcas de las Españas* liburuan, 1587'an ; eta Baltasar de Etxabe'k 1607'an, euskeraren antziñatasunari buruz Mexico'n egin zuen liburuan. Geroztik beste euskaldun batzuek ere jarraitu zituzten bide oiek, XVII'garren mendean bizi izan zan Ohienart ; Larramendi (1690-1766), bere

iztegi aipatuaren itzaurrean; Pedro Pablo de Astarloa (1752-1806), bere *Apologia de la lengua Bascongada*-n; eta Juan Bautista Erro y Aspiroz (1773-1854), Astarloa'n urratzak jarraituaz. Humboldt'en ondoren Hübner ta Schuchart ere lan orretzaz jardun ziran, eta zer esanik ere ez, azkenengo auek geien sakondu zirala.

Beren ondoren etorri ziran filologorik geienak baztertu zituzten teoria oiek, bañan ba dirudi berriz ere berriztatzen asi dirala, eta oraingo Menendez Pidal, Caro Baroja ta Tovar, batez ere, iritzi oietara biurtu dirala. Jakiña, ez osoki, ta gañera ez lengo uste berdiñekin; lengoak uste baitzuten, antziñan Españia guzian euskeraz mintzatzen zirala euskera edo euskeraren izkerak; eta oraingo auek, mintzaira asko zirala orduango Españia'n ta Prantzia'ko ego aldean alkarren artean aideak ziranak ta aietatik bizirik gelditu dana, gure euskera omen da. Caro Baroja'n iritziz, Bizkai'ko euskera izan diteke euskalkirik urrenengoa, guzi aietatik gaur arte bizirik iraun duena. Eta antropolojiazko azterketak ere, batez ere odolaren zeetasunetatik, teoria oiek indartzera dijoazela esan diteke. Beraz, gure aiderik urrenak, Pirineo'ko errien ondoren, Españia'ko iparralde guzia, batez ere erdi ingurura arte, eta Prantziako ego aldea ditugu. Adibidez: Euskalerri'tik urren ditugun tokiak, ala ere sorkalderuntz. Jakiña, gaur egunean, arrazaz esan nai dut eta ez izkuntzaz.

Teoria auek gaurkotasunez aztertu nai dituanak, ikusi beza Caro Baroja'n *Observaciones sobre la hipótesis del vasco-iberismo considerada desde el punto de vista histórico* lana, *Emerita* aldizkarian X'garren tomoan, 236'garren orrialdean, Madrid, 1942, eta Tovar'en *El Euskera y sus parientes* liburuan, 38'garren orrialdean, Madrid, 1959.

Len esan dudan bezela, Mogel'en *La Historia y Geografía de España ilustradas por el Idioma Vascuence*-n lenbiziko atala bakarrik da orain arte argitaratu dana, ta, bera, itzaldi ontan zeatz aztertzea aspergarri izango litzake, bañan gaiaz konturatu gaitezan. Ara lan onen arkibidea: "*Prólogo.—Observaciones.—Carácter y artificio de idioma vascuente o de la España antigua.—Cuál haya sido la religión de los actuales países vàscongados.— Cuántas fueron las lenguas de la España primitiva.—Sobre el origen de la voz Calpe que era el nombre antiquísimo del peñón hoy llamado Gibraltar.—Sobre los nombres de Cádiz, Gadir y otros.—Sobre la unidad y universalidad de la lengua vascuence por las voces o vocablos antiguos y modernos que se hallan en toda esta Península.—Y nombres de la*

España antigua". Lan oiek, gaur ez dute ainbeste balio, baña orrelako laneri eskerrak igo zan filolojia oraingo mallara, ta Mogel'en estudio auek, elburu ez ba dira ere, elbide izan dirala esan bear.

Bigarren atal ori ez dugu ezagutzen, bañan Justo Garate'k adierazi digu bere arkibidea, ta auek dira gutxi gora-bera gaiak: Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba antziñako Kantaurian, Lelo'ren kanta. Izkribu zarrak, Españia'ko urien izenak euskera bide dalarik, ta abar. Bañan, ez omen dute lenengo zatiak aña garrantzi.

Dana dala, oso gutxi ezagutzen dira Mogel'en lan auek eta, ori dala ta, gaurko filologoak ez dute izendatzen Mogel *vasco-iberismo* teoria orretako egilleen artean. Ta ezagutzen dan apur au ere Garate jaunari zor diogu.

Mogel, eragille ta aztergille trebe ta zorrotz bat genduan, euskal idazle bikañaz gañera. Euskalarien artean ain ots aundia izan duen Lelo'n kanta zarra, Humboldt'engandik ezagutzen dugu ta guziak prusiarraren agerpen zoriontsu bat bezela euki dute. Euskeraren jatorria ta istoria estudiatzen duen guzia, naiz euskalduna edo naiz erdalduna izan, Lelo'n kanta zarra ere aztertu bearrean aurkitzen da, orregatik da euskaltzale ta euskalarien artean ain entzute aundiko kanta. Uste danez *Tratado de las cosas de Vizcaya* idatzi zuen Anton Bedia, Arratia'ko seme leiala, Karlos V'garrenaren otsein azkarra ote dan dio Gerra jaunak; orduko tankera daramalako ta arratiarren euskalkian azaltzen dalako, eta gutxi gora-bera 1529'garreneruntz egiña izango dala. Orrela izan da ere, badu naikoa antziñatasun. Ibargüen eta Cachopin izan ziran kanta zar ori billatu zutenak, Simancas ta Bizkai'ko artxibuetan egin zituzten azter-billaketan, 1590 inguruan, zitzak erdi-jandako pergamino batean billatu omen zuten, luzeagoa omen zan eta amasei bertso bakarrik kopiatu omen zituzten. Gañerakoak, geroago, galdu egin bear izan zuten. Ta, geroztik lo zegoan Markiña'ko Mugartegi'n liburutegian, iñork beren berririk etzuela. Eta an arkitu zituan Juan Antonio Mogel'ek liburutegi artako paper zarren artean. Bertso oiek estudiatu dituzten guziak Humboldt'i ezarri diote billaketa ori, iñork ez du Mogel aipatzen; bañan, berak Humboldt'ek garbi-asko ipintzen du bere *Correcciones y Adiciones al Mithridates de Adelung* liburuan, Mogel'ek eman ziona. Alegia, Mogel genduan izen aundiko kanta au billatu zuena. Ikusi Justo Garate'k berak erderatuta, Julio Urkijo'n sarrerakin, *Revista Internacional de Estudios Vascos*-en, 1933'an, Donostia'n argitaratutako len izendatu dudan Humboldt'en *Co-*

rrecciones y Adiciones al Mithridates de Adelung-en 80'garrengo orrialdean, bertan dakar Mogel'engandik jasoa zala, Garate'n oar batekin. Gañera, Mogel'ek berak ere badu lan bat, oraindik argitaratzeke. *Comentarios al Canto de Lelo* izenekoa. Dana dala, or nabaritu genezake Mogel'ek jakintza gaietako azterketetara zuen kemen eta zaletasun berezia.

Mogel eta Lelo'ren kantuari buruzko lan bat badut "Eibar" aldizkariko 16'garren alean, 1958'an argitaratu nuena. *Mogel eibartarra eta Lelo'ren kantu-zarra* izenez, gai au zeatzago adieraziaz.

Oiez gañera bazituan Mogel'ek filolojiari buruzko beste lan batzuek ere, *Nomenclatura, Apología de la lengua vascuence*, ta abar. *Estudios gramaticales sobre la lengua euskara* izeneko lan bat ere, batzuen ustez Mogel'ena da. Ez litzake arritzekoa izango, literaturatik kanpora euskera azterlari bikaña izanik, orrelako lan askotan jardun baitzuan. Karmelo Etxegarai'k ederki esan zuen Euskaltzaindia'n sartzerakoan Mogeltarreri buruz egin zuen itzaldian, iru Mogel'ak —Juan Antonio, eta Juan Ignacio ta Bizenta bere illobengatik—, Euskaltzaindia sortu baño lenagoko euskaltzaiñak zirala.

EUKAL-IDAZLE BEZELA ZUEN BIKAINTASUNA

Mogel'en lan il eziñezkoa, literaturan dago. Euskal idazle klasikoetariko bat dugu. Euskeraren batasunakin ta edertasunakin asko arduratu zan eta euskalkirik geienak ezagutzen zituan, naiz eta ongien ezagutzen zuena eta geien landu zuena bizkaiera izan. Bere idazkeraren balioaz oartzeko, literatura lan oieri begiratu arin bat emango diegu.

Mogel'en euskerak, Markiña'ko euskeran ditu bere oñarriak. Eibar'en jaioarren, bere gurasoak markiñarrak zituan ta gañera bere bizitza geiena Markiña'n igaro zuen; orregatik, gizona ez omen da izaten jaiotzen dan errikoa, gizon egiten danekoa baizik, eta alde ortatik, Mogel, markiñarra genduan.

Uste dut, bere literaturaren iritziak jartzen astea baño askoz obea dala bertan barruratzea ta bere atal batzuek irakurriko ditut, gero zeuek esango duzute Mogel'en idaz-tankera zelakoa zan. Esan dudan bezela, bere euskera bizkaitarra izanarren, gipuzkoarra ere ongi ezagutzen zuen eta bere *Konfesio ta Komunioko Sakramentuen gañean erakasteak* lenengo aldiz

idatzi zuenean gipuzkoeraz egin zuen eta andik asiko gera azaltzen. Ara emen bere prosa aurrez-aurre:

"*Artu nuen orduko asmo ta gogoa, argitaratzeko orain ekusten dezun libru euskerazko au, ezagutu nuen, batek baño geiagok jardungo zuela marmarioz, ta nere leporako zirala itz gogor ta aztunen karga guziak. Beldurtzen nintzan zerbait, atzeratu ere bai aldi batzuetan beste askotan artzen nituen gogo gori ta beroetatik. Nere buru zalea, edo nerekoia izanik jatorriz, esaten nuen nere artean: Zerk sartu nai zaitu, zu baño gizon jakintsuagoak artu nai izan ez duten lan gogorrean? Euskeraz ondo itzak erakastea, gauza gaitza da. Konfesio ta Komunio Sakramentuak zeero ta banaan azaldu ta adieraztea, oraindik gaitzagoa zertan edo artan uts egin gabe. Zer egin bear nuen bada? Ixildu? Gorde burua, ta ez eman Euskaldun nekezale edo langilai Jangoikoaren itz santuaren ogi? Au zer da? Erdaldunak izango dituztela libru gisa guzietakoak ugari, ta geiegiaz bezela, ta Euskaldunak ain urri. Euskaldunak ez dira atzeratzen, atzeratzetik Doktriña santuko Libruak, badakite ere gauza gaitza dala erakastea zeero ta apur apur eginda bezela Fedeko gauzak, ta gure Kristautasuneko egin bideak, ala Jangoikoaren amar agindu edo mandamentuen, nola Sakramentu santuen gañean, ta eragozpen guziak, ta gaitztasun garaitu eziñak egongo dirala Euskaldunentzat? Zer egin bear nuen bada, diot berriz? Larga koldarkeria, ta ikara guztiak, ez entzuterik eman erauntsi, berriketa ta esamesai, ta dendatu, azkortu, ta biotz aunditu, emateko Euskaldun beargillai, argia beren jakin ezetan*".

Onelako euskerarekin jardutzen da Mogel bere liburuan barna; badituala zenbait oker? batez ere joskeran? Bere garairako eztago ain gaizki. Orduan ez baitzuten Azkue'n "Morfologia"-rik eta ezta Altube'n "Erderismos"-ik. Artuko genduke euskal literaturan berea bezelako prosa geiago; bai orixe.

Arritzen gaituana da bere gipuzkoerazko euskalki zoliak. Nunbait asko irakurri zuen kiputzez.

Liburu au bizkaieraz idatzi zuen bigarrengo aldiz, zerbait laburtua ta *Konfesiño ona* izenarekin egin zuen. Jakiña, bizkaieraz obeto egon bear; au baitzuen bere gogoko euskera, bere amagandik iruntsi zuena.

Mogel, gipuzkoeraz idazten beartu bazan, Bizkaia'n gutxi irakurtzen zalako izan zan: kiputz euskalkia antziñagotik zabaldu ta indartu baitzan euskal literaturan. *Konfesiño ona*-ren argitarapen onen itzaurrean onela dio:

"Orra noz agertuten natxatzun aspaldi onetan eskatuten zendubana emotera, ta zan kiputz euskeran argitu dodan Konfesiñuaren gañeko Liburua. Nik ikusi baneu bizkaitarretan euskeriaren zaletasun kiputzetan nekusana, ez nintzan ain esker dongakua izango, zein da itxiko nituan barurik neure bizkaitarrak, Jangoikoaren berbiaren ogi ederra zabaldurik atzeko, ta arrotz legez egiten jatazanetan. Ez dot damu artu neban asmo ta nekia. Neure biotzeko pozik andienagaz ikusi dot, zelan zabaldu dirian milla bat liburu Naparroa, Gipuzkoa ta Bizkaian. Jakin dot abade jaun askok irakurten ditubezela elexetan, ta nekazale ez gitxik euren etxeetan; ez niri eskerrik, ta bai Jangoiko doe guztien emoliari. Bazaut, autor dot, ta ez daukat aztuta bizkaitar barrukuentzat gatx izango dala Kiputz euskeria ondo aditutia. Baña berba askatu adituten ez dirianak, aditu oi dira lotu ta katetuta dagozan bestiakaz batera. Alan bere, atsegin ematearren, ta gauza ain biarrak itsatsi ditezen obeto bizkaitarren biotzetan, ipiñi dot liburu bera bizkaiko euskeran, ta zerbait laburtu ditut luziak zirudiezan irakaste edo dotrinak."

Ez al da atsegingarria Mogel'ek zerabillen euskera au? Euskaldun gogo gardena da bere idazkeran dabillena. Gogoaz gañera langilletasuna da Mogel'ek adierazten diguna. Jose Maria Lojendio'k onela zion bere itzaldian:

"Mogel'en soluan ez zan egoteko betarik. Ura langilearen bikaña! Ura euskerarenganako maitasuna! Kaletar erderazaleei, euskeraren aberastasuna erakutsi nai zien. Eleiz-liburuetan ez ezik, gañerako beste edozein idaz-gayetan ere. Euskaldunen izkuntza, izango ez ote zan bada, beste errietakoak bezin trebe ta egokia, berak aña gauza esateko? Noski, euskaldunak, burua zerbait nekatu nai izan ezkero. Eta Mogel'ek, euskaldunen alperkeri ta nagikeria astindu naiean, ekin zion lanari."

Atal auek gutxi etsirik, *Peru Abarka*-ren lenengo orrietara begiratu bat emango dugu. Mogel'ek, zalantza gabe, bere lanik onena *Peru Abarka* du, ta alkar-izketaz egiña da, Europa'n, eta batez ere Prantzian, emezortzigarren mendean oitura zan bezela. Lojendio'n iritziz, andik zetorkion, noski, Mogel'i ere bere joera ori. Maiz ziran Mogel'en etxean Prantzia'ko matxinadatik igesi zetoztenak eta aien bitartez edo ezagutu zituan alkarrizketaz idazteko era berri oiek eta ortik zetorkion nunbait bere *Peru Abarka*-rako argia.

Onela diardue Peru ta Maisu Juan'ek:

—"*Jangoikoak egun onak emon daiozala.*

—*Bai zuri bere, adiskidia.*

—*Berori baizen jaun apaindu batek oñak imini ardan-etxe onetan? Toki au gizon baldres, zantar, aziera txarrerakuentzat obia da, berori languentzat baño. Ez naiz ni jauna; abarkak oñetan, txapel bat buruan; gerrestua gorputzian; au da nire apanduria guztia; baña etxagun, izen onaren zalia nazan aldeti, ez oi naz sartu ardantegietan nora ezian, premiñaz ta ezin bestez baño, ez jakolako etxagun begiratu bati ondo egiten burua bat egitia gizon ospetsu, burrukari, ondatzalle, alper ta baldanakaz. Ez nau oraindiño iñok ikusi ardauak igarota, gatx eginda, zabuka oñak lokaturik, ez miña motelduta, ez begiak lausotuta, asko legez, euren osasun, ondasun ta arimen kaltian. Bein baño geiagotan izan naz neure erriko Buru edo Piel, ta darda gañian erabili daruadaz ardao saltzallak belutu, edo ondo gautu artian daukeezanian etxe barruan nekezaliak, edo ate edegiaz ardaua salduten badabe debekauta daguan orduan. Ez deust ezek gorroto ta iguin geiago emoten nekezale edan-sarri ta ardao zaleegiak baño. Zer esan nei bada berori emen ikusita? Aserratu ezpalitzakio jakin gura neuke nor dan ta zek ekarri daben ona.*

—*Adiskidia; imiñi egizu txapela buruan, ta esango deutsut nor nazan. Naz bada oraiñago igaro dozun erriko Barberua, ta deitu nabee gaiso bategana. Pagau deuste bisitako errial zidarra; baña ain dollorrak izan dira, zein da ez deusten atera trago bat; alan sartu naz emen kuartillu bat atera, eta zerbait jaatera, bada urrin egiten jat neure etxia barurik biurtuteko.*

—*Nik uste neban bene benetako andikiren bategaz berba egiten nebala; agaiti nenguan txapela buruti kenduta, lotsa nintzala berba egiten. Jakin baneu lenengoti barberu txar bat baño etziniala, ez nintzan jaunka zugaz egongo, ez da bere buru utsian. Eta barberu errukarri bat, ta iñoren gatxaz bizi dana, gaisorik ezpadabil zer jan ez daukana, ain arro ta apaindu? Ainbeste soñoko bitxidunez, eta ori astegun buru zurian bidez zabiltzala?*

—*Adiskidia, egizu berba modu obian; zuk ezdakizu zer dan barberu izatia...*"

Au da *Peru Abarka*-ren prosa gozoa. Joskeretan akats batzuek izanarren, baserritarren mintzaira zolia dugu, gatsez betea. Izan ere, Mogel'ek, baserritarren euskera zuen maite, ta

gaur ere oraindik, baserritarrengandik, liburuetatik aña ikasi genezake. Juan Antonio'k bazekian non ziran euskeraren iturri gardenak. Peru orregatik genduan baserritarra.

Liburu au ain atsegingarria izanik euskaldunentzat, ta batez ere Bizkaiko euskaldunentzat, 1880'ra arte moldezko letretan argirik ikusi ez bazuen ere, eskuz idatzitako kopiak errizerri ta eskuz-esku zabalduak ziran Euskalerri guzian. Auen jatorrizkoa Zarauz'ko Frantziskoarretan gorde zan eta andik atera zan lenbiziko argitarapena.

Ara emen euskaltzain ospetsu batzuen aburua. Arrue'k zion laugarren argitarapenaren itzaurrean: "*Euskal-literaturan iñoiz agertu dan lanik goienetakoa bat dala Peru Abarka, iñork ezin uka, gure ustez*". Nikolas Ormaetxea (*Orixe*) zorrotzak ere onela dio: "*Bizkaia'n ez ezik Euskalerri'an argitara den libururik ederrenetakoa da Peru Abarka. Euskal-biziera gai artu zuen, eta orregaitik zaigu zalegarriago. Peru nekazaria, eskolagabea, euskeraz besterik eztakiena, Maisu Juan sendagilearekin ariarazten du. Peru ederki bezain Maisu Juan gaizki mintzatzen da. Gure Basarteko Irakasleak erakusten dizkio Maisu Juan'i ta guri ola, errota, eundegi, ardandegi ta gainerako lantegietan eta bildegietan diren gauzak eta itzak. Esaera, oikuntza, neurtitz atsotitz eta olakoak edertzen dute liburu au... Izkera apaina, bizia, etorria, ugaria ta egokia du*". Berriz, au dio Luis Mitxelena gure filologo aundiak: "*Oso eta bizirik daude Peru eta Maisu Juan eta inguruko guztiak. Ain bizirik ere! Biziak baiño biziago, zenbait sortzalle trebek beren umeei muiñetaratu dioten bizi iraukor orrekin. Eztugu biziagorik euskalliteraturan. Eta orien ezpaiñetarik darion izketaren gatza, Bizkai'ko izkerak berezko duen gatz larri xamar ori da*". Karmelo Etxegarai zanak, Euskaltzaindian sartzerakoan egin zuen itzaldian ara zer zion: "*Mogel'en baserritarra, Mogel'en Peru, ez da gure egunetan olerkari batzuen buruan sortutako baserritarren antzekoa: baserrian, abereai begira, lurraren izerdia isuriaz nekez bizi dan baserritarra da. Ala ezpalitz, ez litzake egiazkoa izango*". Mogel eta Urkitza'n alde goresmenik aski da. Bere bizitza zintzoa maitagarria badugu, bere euskal-izkribu zoliak ezin ditzakegu gutxiago maitatu.

Bañan, oraindik, begiratu dezaiogun *Diálogos vascongados*-en ataltxo bati —naiz ta guzia irakurgai bikañetarikoa izan—, oraindik sakonago ezagutzeko bere prosazko iturri gardenaren jarioa. Peru'n añakoak badira Aita Pedro Urlia'n agoan jartzen dituan itzak. Mogel, euskeraren edertasunakin eta batasunakin arduraturik mintzatzen da bertan; bere kez-

kak gureak dira, orduko kezkak gaurkoak. Garbizalea genduan beñepein; garbizalea esan nai dut eta ez moda berriko "garbikerizalea": aieri garbi ulertzen zaie, ta beste auek ulerkaitzak dira.

Beraz, zer dio baña Fray Pedro'k? Ara, bere esan bearren pusketa bat:

"*Alan da; baña, nok buruan sartu au euskaldun txarrai? Ekin dot eztarria sikatu ta garraztu artean, ori ziniztu gura izan deutsedala askori. Baña alper da Maria makillatu. Gulangoai dagokee batutzea euskera baztertua. Gu gabiltz nekazariakaz; entzun bear deutseegu zer dinuen, ta gorde ondo, gero agirian iminteko izen eder asko, ta geldika geldika ekarriko deutsaguz euskera billostuari bere jantzi edo soñokoak, ta agertuko da apaindurik, iñoren soñokoak erantzita...*"

Bada naikoa txalogarri garai artan uste ori eukitzea. Batu, euskerak sakabanaturik eta erdi galdurik dituan jantzi apaiñak. Eta aurrera jarraitzen du:

"*...Euskereak ez dau iñoren biarrik edozein gauza esateko. Ez dozu entzuten, zelan gure baserritarrak ta beste nekazari askok diarduen berbetan, labandu ta ezetan katigatu baga? Baña zuaz praile, abade ta beste andiki askogana. Zelango estura ta larritasunak kontu luzetxu bat esan biar bada?*"

Benetan txalogarria Mogel'ek opa zuen euskera. Euskeran ez dago zertan itz berririk asmatu, lenak jasotzeke dirala beintzat. Euskera aberastu nai duenak, dijoala baserririk-baserri, erriz-erri ta euskalkirik-euskalki; or arkituko ditugu euskeraren mamia, bizkortasuna, itz ez-ezagun ta gañerakoak, euskeraren giarra. Mogel'en prosa agiritzat dalarik, oartuko zerate noski, oso jarraigarria dala bere zolitasuna.

Bañan, Mogel ez zan prosazko idazlea bakarrik, ez; beste zerbait ere bazuen Mogel'ek bere kolkoan gorde eziñik kanpora azaltzen zitzaiona: olerkia. Bai, jaun andreak, olerkaria ere bagenduan gure idazle jatorra. Bere biotzean olerkari garra zeramanetarikoa genduan Juan Antonio. Ez dugu bere izen aundiko olerkirik, baña bai alegi atsegingarriak. Onetzaz ez zuen asko idatzi, bañan, bere lan guziak bezela, azaldu zuen apurra, bai txukun ta gogotsu egiña. Ipui-idazle bezela La Fontaine'n bideak artu zituan, bere garaiko giroari jarraituaz. Iriarte ta Samaniego bezela, ain zuzen ere, Samaniego ta Mogel, alkarren adinekoak ziran, eta orduko giroak eraginda, korront ortatik ere joan zan. Dirudianez ez zuten ongi eraman alkar; Samaniego, emezortzigarren mendean Prantzia'tik sortu zan

enziklopedismo artako kutsuduna omen zan nunbait ta alde guzietatik uxatuta ibilli ondoren, ondo gogaituta ta zearo naskatuta il zan Samaniego gixajoa, miñaren-miñez bere lanak erretzeko aginduaz. Garai aretan orain baño itsumen aundiagoz ikusten ziran libre-pentsalarien aideko alderdi aiek eta utsagatik uxatuak izaten ziran; eta Samaniego'n etsai izatera aroak bultzatuak izan baziran ere, etziran oso zuzen egon Mogel ta Astarloa. Laguardia'koaren aurrean beintzat oien zindotasunak porrot egin zuen. Bañan gaurko ontan jarraitu dezagun geure aria galdu gabe. Arestian esan dedanez, gutxi baño ezpada ere, Mogel'ek alegiak ere idatzi zituan, ta gañera bere illoba Bizenta'n irakasle on bat izanik, Bizenta dugu euskal-fabula onenetarikoak idatzi dituana, ta bere osabari zor dizkiogu bere ikaskuntzak. Osabaren pare bat emango dugu adidibez: onela duzute *Atso ezaiña*:

"Atso azal tximur begi gorria,
bizartsu baltza eta sur andia,
argal, makur, erren, larogei urtekoa
eta aoan agin bakoa.

Bestetik, barriz, zan piztaz betea
ta zuri eukana ulea;
betseiñetan zirudian katua,
bizarretan sagua.

Ezin zantar ezaiñago izanik,
eztau entzun nai alan danik.
Diño: "Zer da au? Betor espillua
ikusteko neure burua".

Ikusten dau, bada, zuzen egia.
Espillu guzurtia!
Diño: "Emon yat barre egitek
eta ez neu nazana esateko;
dago espillu au txarto egiñik.

Guzur uts! Ene matralla zuria
non dok? Non azal leun-garbia?
Ik gau baltz egiten deustak eguna;
eguzki argia, illuna:
bela baltza, eperra;
ezainduten dok ederra.

Neskatxi gazteak dozak zartuten,
gorputz lirañak makurtuten;
ausiko aut ausi, ostikopean:
ez aut eukiko, ez, etxean".

Bakotxa bizi dau bere zoroak,
orixe dirausku atsoak.
Ez dogu ezautu gura burua,
ez entzun egia diñonik,
ez siñistu berba onik:
eta ausi nai da espillua".

Bere prosa bezela bizi-bizirik arkitzen dira bertso auek. Eta ara beste bat, tankera desberdiñekoa:

"Txakur-katuak, nork sinistu?
Zeuden bein erretillu batean
Alkarrekin jaten pakean,
Ta ez ziran batere tximistu.
Etxeko jaunak bertatik
Auzokoari, erakusteko zergaitik,
Deiturik, abiatzen zaie esaten:
Nola ez dituzute ikusten
Etsai gogor bi paketurik
Eta mai batean alkarturik?
Txakur ta katua adiskide
Balira bezela senide?
Zer egin ez lezake ekanduak
Eta gauza batera oituak?
Beazuna bera eztitu.
Gizon sutsua otzitu;
Asarre erraza bigundu,
Okerrena ere zuzendu".

Bere alegien amaierako ateraldiak olerki kutsuz dariola nabari dira, ta gañera, geienetan esaeraz orniturik. Eta oien amaierak bakarrik or-emen artuko bagenitu, uts-utsean, era berriko olerki lausoen idurira osatu ditezke. Eta ara emen, astrato itxuraz, illunpe bateko argi dizdari urduriak:

"Asko ta asko izangoak
ezer baga itzi dituz:
eskukoari eutsi zuk,
badau zerbait oraingoak".

"Beti izan da egia:
geiegi billatzea,
utsean geratzea".

Ta, bere geieneri, apaiz bati dagokionez, ta olerkari kristau baten ametsezko dei zerutarren oiartzunak lurrera isuriko diran gisan, gogo-gardena agiri zaie:

"Zetako dira indar-putzak lurrean,
izango badira norberen kaltean?
Zenbat obe biguntxu izatea,
ta biotz errukiorra agertzea:
Ez dozu nai katerik?
Ez bada zuk iñori egin kalterik".

Onelakoak maiz azaltzen dira Mogel'en alegietan, eta oraingo ere badute irakaskizunik naikoa.

Mogel'ek, epika olerkaria izateari eman izan balio ez zan atzean geldituko, ortara saiatu balitz ez zan bere etorria antzu geldituko. Bere *Peru Abarka*-ko *Liñuaren penak* irakurtzen baditugu garbi adierazten digu ortarako kemena. Kanta ori, orain baño zabalduagoa izan da noizbait, bere estribilloa baditeke erri-kanta izatea. Izan ere nork ez ditu entzun olerki onen bertso dotoreak, bere musika ta guzti? Oraindik ezta urte asko Ibarrangelua'ko Akorda auzoan, txarrantxa doñuakin nasturik, dantzari batzueri entzun niela: Eztakit bere musika, baña batek baño geiagok ezagutuko duzute bertso txanbelin auek irakurtzean:

"Kanta dagiguzan
Linuaren penak
Ezpata oneen otsian
Izanik latzenak;
Alkar ondo artuta,
Soñua neurturik,
Gorputzeko nekia
izteko arindurik.

Gara neskatillak
Euskaldun ez illak,
Ez da iñor lurrian
Gure biar ez danik;
Ez atso, ez agura
Alkondara barik."

Bertsoz adierazten ditu eungintzako lan nekegarriak, onela amaitzeko:

"*Euskaldun neskatillak,*
Nekiak arturik,
Eztabe onetako
Gizonen biarrik;
Eurak dira erella
Lino giariak,
Eunla eta jostun
Ta gorulariak".

Onez gañera, Markina'ko iturriko irakurgaitik ikusi dugunez bertsolari kontuan ere ez zan atzean gelditzen. Bertsogintzarako ezpala ere berarekin zeraman. *Peru Abarka*-ren ainbeste esaera, olerki, atsotitz ta alkarrizketa biñaken tartean bertsoak ere agertzen dira. Emen dijoaz laburki:

"*Aita-semiak edanda dagoz,*
Ama-alabak jokuan;
Ostera bere egongo dira
Soñoko zaarrak kakuan.

Egun batean gaba eginda
ninoian neure etxera,
Larrapastada txar bat eginda
Jo neban beeko bidera.

Jaso nenduen danau mankauta
Bizkar azurra ausirik,
Miñaren miñaz katu (1) *guztia*
Beinguan niri igarorik.

---

(1) Mozkorra.

Amaitzeke jarraitu liteke Mogel'en idaz-lan txairoetan zear murgilduaz. Bañan nere itzaldi au luzeegia egingo litzake eta nolabait bukatzera nijoa. Mogel'ek bere garaiko arloa bete zuen, eta guk gurea betetzeko, ara nere iritzi batzuek Mogel'en idazkera motetan oñarriak arturik:

Gaurko zenbait euskal literatoren artean, garbizaletasuna baño, garbizalekeria geiago nabaritzen da. "Garbizale" deitzen diran asko beren ametsetako literaturakin dabiltza, lojitatik urruti; zein eta Astarloa semantiku ameslaria filolojiatik urruti ibilli zan bezela: Ametsak poesiarako gaiak izan ditezke, bañan iñoiz ere ez poesiaren izkuntza.

Idazle oietako bat baño geiagori entzun izan diet, iñoiz euskera indartzerik bada, edertu ere egingo dala. Gaurko etorkizunean euskeraren bizitza bera ere naikoa ames dalarik, ametsakin amesetan gera, orrelako burutaziñoeri aizea emanaz. Berak landu nai duten euskera, geroko euskera omen da: Bañan, ba alda geroko euskerarik? Iñork ba ote daki gerokoa zer izango dan?; ez. Eta, gure bete bearra gaurkoa da, gaurkoan landu bear dugu, biarkoa izan dedin. Bat baño geiago dira emendik eun urterako euskera lantzen diarduenak. Bañan, ba alda emendik eun urterako euskerarik? eta iñork ba ote daki zelakoa izango dan? Uste orri ames zoroa deritzat. Emendik eun urtera euskera biziko bada edo ez bada, geien-geien gaurko lanari begira dago; gaurko egiten diran lanak biarkoaren bideak izango dira. Gure ardurakoa da gaurko arloa bete bearra, eta emendik eun urtekoa, ordukoak esango dute. Biarkoak, gaurkoan izan bear ditu bere oñarriak, gaurkoak atzokoan dituan bezela. Ta landu dezagun erriagandik aldendu gabe; ori baita euskerari iraun eragiteko bide bakarra.

Arestian esan dut: garbizaleak, garbi idazten duten aiek izan bear luketela eta ez itz-berri pillatzalleak; adibidez: garbi ulertzen diranak, eta ez ulerkaitzak. Ulerkaitza beti izango da mordolloa. Gauza guztietan, alde bietako muturrak alkar jotzen dute, ta erdiko bidetik jarraitzea iñoiz baño bearrago dugu euskaldunok.

Idazle batek jenioa ta metodoa bearrezkoak ditu. Itzak iztegitik sallean aterata ajetiboak sustantiboeri nolanai lotu gabe, bakoitzari bere toki berezia eman bear zaie. Itz bakoitzak bere indarra edo tankera du, eta itz batek, bere inguru gabe, sarritan eztu ezer esan nai, inguruak ematen dio zentzuna, ta itzari bere ingurua lortu bear zaio. Euskal idazle askoren artean, batez ere "garbizale" oker deitzen diran oien artean, prosaismoz

beteriko izkuntza dute, egoskaitza, gozotasunik gabea, ta bere txirotasunean arimarik gabea. Itzak bear diran bezela ez erabiltzeak prosaren aria etetzen du; esate baterako: oraziño batean itz gutxi-ezagun bat sartzeak ez du izango ainbeste garrantzi, inguruak antz ematen diolako; bañan, alkarren ondoren dijoazten amar oraziñotan, bakoitzean itz ez-ezagun bat sartzen badugu, prosa guztia ziaro puskatzen dugu, ta irakurle euskalduna guztiz naskatu ta uxatu. Bertan dabillen izkuntza ez baita bere belarrira egiña, ez baitu gordintasuna besterik arkitzen.

Ori berori da esaera zarrekin gertatzen dana, ta aunitz euskal-literatok, euskera txirotu, indargabetu, lordindu, auldu ta ulerkaiztu egiten dute beren idazkera. Mogel'ek erabilli zuen euskeran ezta ori gertatzen, arek egoki jakin zuen itzak alkarri josten, ajetibo bakoitza bere toki egokienean erabiltzen, erriesaerak sartzen, ta abar. Orretan onen-onena Txomin Agirre izan dugu noski; guziok maitatzen dugu bere tankera, baña iñork ez diogu jarraitzen. Agirre ta Mogel ere biak ditugu garbizale, bañan benetako garbizale ta ez garbikerizale. Orregatik, Mogel'en lanak, beragandik eun urtera ere irakurtzen dira, jakiña, ez gaurkotasunez daudelako baña bai jatortasunez. Gañera, urteetan zear: iritziak, biziera, oiturak eta giroa ere aldatu egiten dira eta gaur ezin diteke biarko lanik egin, biarkoaren biderako baizik; biarkoak zertara joko duen ez dakigulako. Gauza bat bakarrik oartu genezake: biar, gaurko idazleen artean klasiku izatera eltzen diranak bakarrik irakurriko dirala, ta orain arte, izkuntzarik geienen literaturan, izketa jatorraren aldetik beren idazkera ongi erabilli duten idazleak bakarrik izan dirala klasiku. Ta baita ere, ondo agirian dago, mintzairaren muñaren jatortasuna ongi erabiltzeko gauza izan diranak, geien-geienetan, gaiak ere onak erabilli dituztela, eta orregatik, oraindik gaur ere pozik irakurtzen dirala. Garbi agiri da, idazlearen zentzunak zer ikusi aundia duela, ta idazle onak, izkuntza ta gaia, alkarri bereziki uztartzeko nortasuna duela.

Jardun onetzaz, askok, au, ura ta bestea esango dute "garbizale" oien alde, bañan ez nago berekin. Alperrik dira beren jardun eta iritziak. Neuk neronek beintzat gauza bat dakit argi ta garbi, oien euskera baño ulerterrezagoa zaidala lapurditarrak aruntzago erabiltzen duten euskera, eta urragoko euskera ez ulertzera non gelditzen zaigu guziok nai dugun batasun ori? Egia esan nai badugu, auzi onek abururik ere eztu merezi.

Zenbait idazlek, onak izanarren, ez dute jakin edo ez dute jakin nai, gaia ta jatortasuna, beste aipatutako klasiku oien erara erabiltzerik, bear bada berekortasunagatik, ori sarri gertatu da atzerriko idazleen artean ere, ta jarraitzaille asko izan dituzte; bañan euskerak duen egoera ta etorkizun illuna ikusirik, oso arrisku aundikoa da bide oietatik jokatzea. Eta ez dezagun egin ensaiu larregirik gure euskera makal onekin. Gaur-gaurkoz, euskerak gauza bat eskatzen du deadarka: Lege gutxiago ta bizitza geiago!

Euskalduna izakeraz da zur eta neurriz mintzatzen dana, esaerak dion bezela: *itzetan lander, egiñetan eder.* Eraberriko literaturan bezela, idatzi izan dute gure antziñako idazleak, erretorika gutxikin, Pio Baroja'k Españia'ko idazleen artean sartu zuen oitura orren erara. Baroja'k, erderaz idatziarren, euskaldun sikolojia zeraman berakin, eta gure euskaldun idazleak ezin ditezke gutxiago izan. Orregatik, alde ortatik badugu zenbait itxaropen euskal-literaturaren alde. Mogel'engan naikoa ikasbide dugu, bere gaiak, antziñakoak izanik ere, oraindik irakurgarri ditugu. Zergatik? Berak ongi aditu zitualako euskeraren oiartzunak, ta orregatik jo zuen jatortasunaren garbizaletasunera, ta oraindik gaur ere, euskeraren onerako, izango al dugu bere lana gure eredugarri.

Juan San Martin.

Bukatuta Aita Villasante-k du itza. Mitxelena jauna eldu da eta maipuruan jarri.

JUAN ANTONIO MOGEL

BERRI JAKINGARRI BATZUEK

Eibartarrak:

Asmo bikaiña eta goragarria benetan zuena. Esan nai det: Zuen erriko seme ospetsu baten izena goratzeaz eta bere omenez ta oroipenez jaialdi auek antolatzeaz agertu dezuten asmoa.

Ez nator ni onera Juan Antonio Mogelen bizitzako goraberak eta ipi-apa guztiak azaltzera, ezta bere euskal lanen ze-

rrenda osoa egitera ere. Bakar-bakarrik argitasun bat edo beste eman nai nuke. Gutxi ezagun edo batere ezezagun diran berri jakingarri batzuek ikutu besterik ez. Batez ere, garai artako bi euskaltzale eta euskal idazle ospetsuren artean izan zan adiskidetasunaren lokarria azalduko degu. Bi euskal idazle oiek dira *Juan Antonio Mogel* eta *Pedro Antonio Añibarro*. Bion adiskidetasunaz zerbait esango degu. Bata Eibarren jayoa, bestea Arratiako Villaro-n, bata apaiza, bestea praille prantziskotarra, biak euskaltzale gartsu eta euskal idazle argiak.

Nondik dakigun adiskidetasun orren berri?

Mogelek berak salatuta, lenbizi. Ara, Mogelek bere bizitzako denporan agertu zuen azkenengo librua, auxe da: *Konfesino Ona*, 1803-an Vitorijan agertua, Bizkaiko euskeraz. Eta bere libru onetan bi aldiz aipatzen du Aita Añibarro bere lagun bezela, eta Añibarroren euskerazko bi libruren propaganda egiten du gaiñera. Lenengo aipamena libruaren asieran arkitzen da, bigarrena libruaren bukaeran.

Orra lenbizikoa:

"*Gura dabenak sinistu Bizkaiko euskeriak ez deutsala ezer zor kiputzenai, irakurri begi liburu onek baño leenago urtengo daben neure adiskide andi, ta gauza onetan neure biarlagun legez egiten dan Aita Fray Pedro Antonio Añibarro Zarauzko Kolejio A. San Franziskoko Ordean Misionarijak bizkaitarrentzat atera daben liburu txikar, baña urre guztiak baño geijago balio dabena. Ediroko dau* Eskuliburu *onetan Bizkaiko euskeran ederto adierazo leitezala esan biar dirian gauzaak berba, nekezaleen aoetan dabilzanakaz. Bizkai barru barruko semia da bera, ta bere euskera garbi ta ederrak ezagutu eragingo dau nun nai ikasi leitiala ondo berba egiten buruba zerbait nekatu gura bada. Alperren soluak beti egongo dira bedar txaarrez betiak. Bizkaitar guztiak erosi biar leukee liburutxu esan dogun au.*

Ikusiko da ez ditugula berdin erabagiten berbaak aitatu dodan neure adiskide onek ta nik; ta emendik aterako da, zetan daguan Bilkaiko euskeriaren desbardintasuna. Ak dino maitea, neurea, zoroa, gozoa, burua, Kristinaua... *nik barriz Markina inguruan legez,* maitia, neuria, gozua, zorua, buruba, Kristinauba. *Zein batera, zein bestera esan, ez dau ezer galduten euskeriak*".

(*Juan Antonio Mogel, Konfesino Ona,* Vitorijan 1803. Berba-Aurrekua).

"*Neure adiskide andi eta gauza onetan neure biarlagun*": orrela deitzen dio Mogelek Aita Añibarrori. Euskal lanetan bere laguntzaille eta lankide bezela aitortzen du, beraz. Emen aipatzen dan Añibarroren lana, Mogelena baiño urtebete aurrerago agertu zan. *Esku-liburua* du izena. Bi-biak, Añibarroren *Esku-liburua* eta Mogelen *Konfesino Ona*, bizkaierazko literaturaren leen-frutuak bezela artu ditzakegu. Lenago, dotriña txikar batzuek besterik ezpaitzegoan. Egia esan, Kapanaga eta Olaetxea eta Mikoleta ere lenagokoak dira, baiña Mikoletaren lana askozaz geroagora arte etzan argitaratu. Eta Bizkaiko euskera lantzeko eta literatura-maillara igotzeko ardura, kezka eta gogo bizi-bizia gure bi idazle oietan, Añibarro eta Mogelen, alegia, uste det agertzen dala lenengo aldiz eta agiri-agirian, gaiñera. Biak urratu zuten ba bidea. Oien atzetik, eta andik urte gutxira, azaldu ziran beste batzuek ere: frai Bartolome karmeldarra, Astarloa prantziskotarra, eta abar.

Gauza guztietan eztatoz bat Añibarro eta Mogel, eta ori ere salatu digu Mogelek berak, aitatu degun testu orretan. Añibarroren iritziz, idatzi bear da *betea, maitea, osoa, burua, ogia.* Mogelek, berriz, markinarren modura jartzen du *betia, maitia, osua, buruba, ogija.* Baiña azaleko gauza oiek gora-bera, biak ziran adiskide aundi eta euskalzaletasunaren garra zoli eta bizi zizekan bion biotzetan.

Bigarren aipamena liburuaren bukaeran dagoela esan degu. Orra zer dion:

"*Euskaldun guzti guztiak, zar gazte, agure ta umiak, daukee Aita Palaziosen enzutia. Gure zori txaarrez, zaartu da gaixua; jausi jakoz gorputzeko indarrak, ta bakarrik dauka zoli zolija Jaungoikuak emon eutsan min garbi ta berba eder asko atera dituzana... Dakart bada agirira adierazoteko askok dakijena, zelan atera eban argitara, eta erderaz, liburu txikar, baña balijo andikua, nik ontsubengo artu dodan Dotrina geijaren gañian, irakasten dabela astiro zelan iraun biar dan ta zelan iraungo dan bizitza on eta barri baten. Bein baño geijagotan adiskidetasunian esateko legez egon natxako: Aita Palazios! Au zer da? Izan berori euskaldun garbija: Naparrua, Araba, Giputzkoa ta Bizkai guztiko bazter guztietan ibilli nekatuten buruba, Erdal-errijetan baño geijago, irakasten Zeruko bidia; besteti ain ederto jakin euskeria, ta agertu erdaldun arrotzentzat alango liburutxuba, ta itxi euskaldun etxekuak utsik? Nortzuk daukee liburuben premiña geijago? Zer eranzungo*

eustan? Ez eukala astirik arnasia artuteko; izango zala nor edo nor biurtu gurako ebana euskerara, berak erdera ekijenentzat atera eban liburutxuba. Alan jazo da. Aita Fray Pedro Antonio Añibarrok birau dau Bizkaiko euskerara, izen au emonda: Lora Sorta Espirituala...

Jangoikuak gorde dagijala, Euskalerriak dirauben artian, Zarauzko Kolejijua. Bai arren bai".

(*Konfesino Ona,* Atzena; 292-296).

Emen aipatzen dan Aita Palazios ori, Oñatiko semea zan, Zarauzko Prantziskotar Mixiolarietan famatuena. Aita Añibarro ere Zarauzko Mixiolari-Kolejio ortan bertan bizi zan. Eta Aita Añibarrok, bere Esku-liburuaren ondoren, beste euskerazko liburu bat atera zuen, *Lora-Sorta Espirituala,* Aita Palaziosek erderaz egin zuenetik itzulita. Bere lagunaren bigarren libruaren berri ematen digu, bada, emen Mogelek.

Nola eskertu eta ordaindu zuen Añibarrok bere lagunak berakin euki zuen borondate on au?

Bada euskal gramatika bat, Aita Añibarrok egiña eta oraindik argitaratu gabe dirauena. Lan onen orijinala Loyolako Jesuitetan gorderik dago, eta nik badet beraren kopia bat aterea Arantzazun. Gramatika onen aurrenengo orrialdeetan, bada, ara zer arkitzen degun. Erderaz dago:

"*Tengo concluído un Diccionario de poco volumen de Voces bascongadas diferenciales, suficientes para Púlpito y Confesonario, particularizando a cada Nación su voz característica con su letra inical B. G. N. Por ejemplo: Palabra: B. berbea; G. itza; N. mintza. Vergüenza: B. G. lotsea N. alkea etc. Quiera Dios que se proporcione algún medio para que se dé a la prensa. También tengo traducido al dialecto Bizcaino el famoso libro de Geroko Gero de Axular, Cicerón bascongado, y de quien hace particular elogio el P. Larramendi. Con este Arte, Diccionario y Axular tenía uno cuanto necesita para hacerse un excelente bascongado. De paso advierto que así Axular como el P. Cardaveraz ponen el verbo al último de la oración, a no venir con relativo, y será bien se haga así, pues sale más natural. No tuve este método presente en dos libritos que di a luz: Eskulibrua y Lorategui Espirituala. Esta misma falta me dijo que cometió el inmortal Don Juan Antonio de Moguel, Catequista bascongado, cuya muerte ha sido muy sensible para todo el País Bascongado, quien tuvo en vida el con-*

suelo de ver impresa parte de su Catecismo bascongado, y lo restante con las aprobaciones necesarias; y en muerte el de morir como buen Soldado de Jesús, ejerciendo el ministerio de Cura Párroco, contagiado de resultas de asistir a unos apestados. Con tan feliz muerte premió Dios su virtud, pues fué uno de los Sacerdotes más celosos, laboriosos, doctos, caritativos y ajustados de Bizcaya: cuya memoria hago aquí, por la que por dos veces él hizo de mí en su último impreso de Konfesino Ona".

(Fr. Pedro Antonio de Añibarro, Gramática Bascongada. Advertencias Previas (inédito).

Entzun dezutenez, albiste baliotsuak ematen zaizkigu emen Mogel aundiaren eriotzaz, eta albiste oiek bere adiskide miñaren bitartez eldu dira. Gaiñerakoan, Añibarrok emen aipatzen dituen bere iru lanak, Gramatika, Iztegi eta Axular bizkaieraz jarria, etziran argitaratu, eta oraindik orrela diraute, argia ikusi gabe; bakarrik Axularren itzulpen ori argitaratu zan, eta ez osorik, *Revista Internacional*-ean, Urkijo jaunari eskerrak. Iztegia eta Gramatika baditut nerekin gerturik, baiña betiko leloa, diru-laguntza falta lanok argitara emateko.

Gaiñera, ezta zail probatzea Añibarrok bere bi lan oiek, Gramatika eta Iztegia, Mogelen asmo bat betetzearren egin zituela. Nondik dakidan au? Ara: *Nomenclatura de las voces guipuzcoanas* etc. deritzaion bere lanean, begira zer dion Mogelek:

"Tal vez el autor de esta Nomenclatura formará después otra más copiosa de las voces diferenciales de los tres Dialectos Guipuzcoano, Navarro y Vizcaíno, para que se comprendan los libros de cualesquiera de ellos. El tiempo perfeccionará las empresas comenzadas. Si con el trabajo del incomparable Larramendi no se hubiera dormido, y sí continuado en semejante tarea, hoy estaba nuestro idioma con otras ventajas. Los Navarros y Vizcaínos carecen de Arte o Gramática de sus respectivos dialectos. Hubiera tenido igual suerte la Guipúzcoa, si aquel héroe hábil y animoso no hubiera salido a la defensa de un idioma arrinconado, pero precioso".

(Juan Antonio Moguel, Nomenclatura de las Voces Guipuzcoanas, sus correspondientes vizcaínas y castellanas)

Iztegi bat iru euskalkietako -Bizkaia, Gipuzkoa eta Naparroako itz diferenteakin bear zala dio emen Mogelek; eta baita Gramatika bat ere bizkaitar eta naparrentzat beintzat, Larramendirena gipuzkoarrentzat bakarrik dala-ta. Mogelek etzituen asmo oiek bete al izan, uste gaberik eta gorago ikusi dan eran il izan zalako. Baiña bere laguna, Aita Añibarro, oraindik 26 urte geiago bizi izan zan eta ain zuzen ere, berau saiatu zan Mogelek adirazitako utsune au betetzen; beronek burutu zituen bi lan oiek, gero zoritxarrez argitaratu gabe gelditu baziran ere.

Oar gaitezen gaiñera Añibarrok aipaldi ontan dionaz: "...*Don Juan Antonio de Moguel, Catequista Bascongado... quien tuvo en vida el consuelo de ver impresa parte de su Catecismo Bascongado, y lo restante con las aprobaciones necesarias*". Mogelen lanetatik zein ote da Añibarrok itz oetan adirazi nai diguna? Ezpairik gabe, Mogelen lenbiziko lana, 1800 urtean Iruñean argitaratu zuena. Lan orren titulua auxe da: *Konfesio ta Komunioko Sakramentuen gañean Erakasteak*. Gipuzkoako euskeraz egiñik dago. Lan au argitaratzeko baimena lortzea asko kostatu zitzaion; batez ere Naparroako Consejo Real-ean trabak jarri zizkioten; baiña Mogelek zer egin zuen? Madrillera jo. Karlos Laugarrena zan garai artan Espaiñiako errege, eta erregearen ministro, bilbotar bat, Don Mariano Luis de Urquijo, eta onen bitartez lortu zuen Erregeak ordena bat eman zezaien Naparroako Konsejukoai, aginduaz euskerazko libruei eragozpenik ez jartzeko, euskerazkoak dirala ta beste gabe (Ikus *Prospecto de una Obra bascongada intitulada Konfesio ta Komunioko Sakramentuen gañean Erakasteak*).

Baiña Añibarrok esan digunez, Mogelen Katezismuaren zati bat bakarrik azaldu zan. Gaiñerakoa, berriz, egiña zeukan eta bear ziran baimenakin, baiña etzan argitaratu. Eta zer gertatu da esku-idatzi oiekin? Nun daude orain *Erakaste* oien beste zatiak, argitaratu etziranak? Zati bat beintzat Bilbon. Azken udara onetan nere eskuen artean euki det. Bizkaiko Diputazioko Liburutegian dago gorderik. Erderaz ta euskeraz dakar titulua: *El Catequista Bascongado - Kristau Erakasle Euskalduna*. XX erakaste ditu guzitara. Jaungoikoaren Legeko Amar Aginduen gaiñean diardu, baiña lenbiziko bostak bakarrik azaltzen ditu; 388 orrialde ditu. Lan onen beste zatirik beste nunbaitean ote dagoan nik eztakit.

Badegu oraindik Añibarro eta Mogelen arteko adiskidetasunaren beste agiri eder bat ere. *Peru Abarka*-ren aurrenengo edizioetan bada elkar izketa gozo bat, naiko gatza eta piper-

miña dakarrena. Abade eta praille baten artean da alkar izketa ori. Biak dira euskaltzaleak eta lagun aundiak. Euskeragatik ekiten diote: zer nagi eta zabar diran abade eta praille asko euskeraz ikasten, zer egin bear dan oiek euskerakin pixka bat zaletu ditezen, ta abar. Prailleak kontatzen du gaiñera nola erri batean arkitu duen Don Calixto izeneko abade bat. Abade au euskerazko sermoi bat idazten omen zebillen San Pedroren egunerako. Estu ta larri zegoan gizajoa, buruko illeai tiraka. Irakurri zion prailleari bere sermoiaren zati bat: dana ikaragarrizko mordoillokeriz zegoan josita, ez euskera ta ez erdera etzan auntz-izkuntza xelebre batean. Eta orduan prailleak lagundu bear izan zion bere sermoi zorioneko ori egiten. Nortzuk dira ba alkar izketa onetan diarduten abade eta praillea? Abadeari Don Juan deritzaio, prailleari berriz, fray Pedro. Mogelen izena zan Juan Antonio; Añibarrorena, Pedro Antonio; bion Antonio ori kendu ezkero, gure bi idazleen izenak dira, ain zuzen ere. Nik ziurtzat daukat ba alkar izketa onetan agiri diran abade eta praillea, bi adiskide aundi oiek dirala: Mogel eta Añibarro, alegia.

Peru Abarka, Mogelen lanik ederrena, luzaroan egon zan argitaratu gabe; egillea il eta larogei urte geroago agertu baitzan. Baiña Añibarrok, bere adiskideak utzi ziolako noski, irakurrita zeukan libru au, eta Zarauzko prantziskotarren artxibuan badaude Añibarrok utzitako paper zaar batzuek *Peru Abarka*-tik ateratako itzekin, eta Mogeli Añibarrok egiten dizkion oar bezelako batzuek ere bai. Len ere esan degu bi adiskide oiek gauza danetan etzirala iritzi bateko. Adibidez, *Peru Abarka*-ren itzaurrean (itzaurre au eztator azken edizioan) Mogelek esaten du *f* letra kendu egin bear dala euskal alfabetotik, Markiñako umeai zail egiten zaiela itz ori ebakitzea; *efe* esan bearren, *epe* esaten dutela, eta ori dala señale agiria letra au euskalduna eztala jakiteko, eta abar. Añibarrok erantzuten dio fonetika-lege ori Guipuzkoakoa dala bakar-bakarrik, eta Markiñari, Gipuzkoatik gertuan egoteak itsatsi diola. Gaiñerakoan, bai Bizkaian eta bai Naparroan eta Frantziako Euskalerrian ere aisa esaten eta erabiltzen dala *efe*.

Juan Antonio Mogel iltzean 1804-an, bere illoba apaiza, Juan Jose Mogel, gelditu zan *Peru Abarka*-rekin. Onek ere bere bizi guztian etzuen izan nunbait bere osabaren librua argitaratzeko aukerarik, eta iltzean (1849-an) Fr. Juan Domingo de Unzueta prantziskotarrari utzi zion, baiña baldintza onekin: iñoiz Zarauzko Prantziskotarren Kolejioa berpizten bazan, arako izan bear zuela libru orrek. Juan Jose Mogelen denporan prailleak

beren komentuetatik egotzita zeuden, eta orregatik jarri zuen baldintza ori. Izan ere 1867-an berriz idiki zan Zarauzko komentua, 30 urte-inguru itxirik egon ondoren. Eta ara joan zan *Peru Abarka*-ren orijinala eta andik atera zuten azkenean argitaratzailleak. Baiña inprentara eman orduko ere ezagun-samarra zan libru au euskaltzaleen artean, eta eskuz egindako kopia asko zabaldu ziran bazterretan. Arantzazuko komentuan badago bat eta ara zer-nolako garbitasunak dakarzkian azkenaldean (Markiñako karmeldarren komentuan ere beste kopia bat dago; ango Aita Migel Mariak erakutsi zidan, eta oar berdintsuak eta bertso berbera dakarzki):

"*El original de esta obra lo heredó Don Juan José de Moguel, Vicario Eclesiástico y Beneficiado de la villa de Marquina, quien a su fallecimiento lo dejó al P. Fr. Juan Domingo de Unzueta, a condición de que cuando se rehabilitase el Colegio de Misioneros de Zarauz, fuese para dicho Colegio.*

Viendo el mérito de esta obra, que bien merecía ver la luz pública imprimiéndose, pero que hoy no puede legalmente verificarse esto por faltar quien pueda dar licencia para ello, el copiante de este ejemplar pone la siguiente

Décima

Por un Moguel vi la luz,
y otro Moguel (su heredero)
me confina prisionero
al Colegio de Zarauz.

Si hubiera sido andaluz
el que en perpetua clausura
fijó mi suerte futura,
la sufriera resignado;
para darla un Bascongado
creo sentencia muy dura".

(Se lee al final de una copia manuscrita de *Peru Abarka*, que se conserva en el convento de Aránzazu).

Aita Uriarte prantziskotarrak ere, Bonaparte Prinzipeari zuzendu zizkion eskutitzetan bein baiño geiagotan aipatzen du *Peru Abarka*, eta libru ori argitaratzeko egiten dituen atzeraaurrera batzuek kontatzen dizkio:

"*He leído detenidamente* Peru Abarca: *cada vez me parece más digno de imprimirse: he hablado a Delmas por su impresión pero aún no me ha dado contestación. Tenga la bondad de decirme cuántos ejemplares querrá para S. A. a fin de hacer el ajuste. (17 Sptbre. 1858).*

Hoy mismo escribo de nuevo a Delmas por la impresión de Peru Abarca *y remitiré a Su A. su contestación (4 Nvbre. 1858).*

He escrito cuatro veces a Delmas por la impresión de Peru Abarca, *le he remitido el mismo ejemplar que vió S. A. para que con más datos pueda formar sus cálculos, pero no me ha contestado. Mañana salgo para Bilbao a tratar sobre este asunto y comunicaré a S. A. el resultado (21 Dcbre. 1858).*

Según prometí a S. A. pasé a Bilbao y hablé con el Sr. Delmas por la impresión de Peru Abarca; *enterado de todo me dijo que me dará la contestación en breve por escrito. Todavía no me ha contestado, pero espero que luego lo hará, e inmediatamente la dirigiré a S. A. (4 Enero 1858)*".

(Cartas del P. Uriarte al Príncipe Bonaparte. Fragmentos de las cartas 46, 48, 49 y 50; Boletín de Amigos del País X (1954), 231ss).

Baiña orduan etzan ezer egin. Azkenean 1880-an eta 1881-ean agertu zan danon zorionerako euskal literaturaren obrarik ederrenetakoa degun *Peru Abarka*.

Mogeldarren familiak iru euskal idazle eman dizkio euskal literaturari, eta iru oietatik bat emakumea, gaiñera. Juan Antonio eibartarra da lenbizikoa eta iruretan aundiena. Beste biak bere illobak ziran, eta anai-arrebak beren artean. Gure literaturaren baratzean eztegu beste familiarik izan, onek aiña idazle euskerari eman dionik, eta onako au ere esan bearrekoa degu, alegia: Mogeldarren familia ori jatorriz etzala euskalduna, Erdalerritik Euskalerrira etorritakoa baizik. Logroño-aldeko Alfaro-n du bere jatorria Mogel deiturak. Juan Antonioren aitona, berriz, Calatayud-ondokoa zan, eta bere ofizioa medikuntza izanik, Markinara etorri zan mediku bezela. Juan Antonioren aita Markinan jayoa degu eta au ere mediku izan zan, eta bere ofizioak eskatzen zion arabera, bai Arabako Salvatierran eta bai Eibarren ere bizi izan zan. Eta ain zuzen ere emen Eibarren mediku zegoala, jayo zitzaion bere seme Juan Antonio. Juan Antonio apaiz egin izan zan, baiña bere anaia Juan Ignazio mediku

irten zan, bere aita eta aitona bezelaxe. Juan Ignazio onen seme-alabak izan ziran Juan Jose eta Vicenta, euskal idazleak. Alperrik billatuko degu gure literatura zaarrean beste emakume idazlerik, Vicenta Mogel au kendu ezkero. Anai-arreba biak, oraindik gaztetxo zirala, umezurtz gelditu ziran, eta beren osaba apaizarengana joan bear izan zuten. Eta onek azi ta eskolatu zituen, eta letrakin batean euskal zaletasuna sartu zien, eta ala, denporakin, biak euskal idazle izatera iritxi ziran.

Osaba apaiza mutillari latiña irakasten asi zitzaionean, neska etzan atzera gelditu. Buruan jarri zitzaion berak ere ikasi bear zuela, eta bere anaiak ainbat argi ta gaitasun adirazten zuen ikasteko. Osabak orduan zer egin zuen? Ba biai irakatsi, neskari ta mutillari. Ontan ere aundi agiri zaigu gure Juan Antonio. Garai artan etzuten uste emakumeei eskola aundirik eman bear zitzaienik, geienetan ere kaltegarritzat jotzen zuten ori, baiña Juan Antoniok ustekizun oiek alde batera utzirik, humanista bat atera zigun neskatilla au. Bere euskerazko libruaren itzaurrean berberak aitortzen digu euskaldunak eztutela siñistuko libru ori emakume batek egiña dala, zergatik ze ortarako latiña, erdera ta euskera jakin bearko lirakean, baiña siñistu edo ez siñistu, alaxen da. Ara itzaurre orren zatitxo bat:

"*Irakurle euskaldunari*:

Badakit, enzunaz beste gabe, neskatx gazte baten izena dagoala itxatsirik liburutxo onen aurrean, jardungo dutela siñuka ez gutxik, diotela beren artean, iñoren lumaz janzi nai duela belatxikiak; au da, besten bearrak artu nai ditudala neretzat: ez dagokiola neskatxa bati bururik ausitzea. ¿Nola nik siniserazoko diet askori euskeratu ditudala erdaldun jakitunak argitaratu dituzten ipuiak? ¿Nolako arrotasuna berriz latiñezko izkuntzarekin liburu onen asmoa agertzea? Orretarako bear litzake jakitea euskera, gaztelania eta latiñezko iru izkuntzak. Zein gauza sinisgaitza neskatxa bategan!

Naiz sinistu, naiz ez, esan bear det gaztetxoa nintzala irakurri ta azaldu oi nituela Fedroren latiñezko ipuiak; artu oi nituela atsegin guziz andia enzunaz txakur, aizeri, ollar, abere lauoñeko ta egaztien izketa alkarren artekoak. Zortzi urte nituenean ikusirik nere neba edo anaia ikasten asi zala gure osabarekin latinezko izkerea, jarri zitzatan buruan ikasi bear nuala nik ere. Ala, buruari neke gogorrik eman gabe, loari bere orduak emanda, ta zigor zaurigarria-

ren beldurrik ez nuela, jolasez bezela, irten nuen nere asmoarekin, Birjilioren izneurtu ta apainduetan gozatzen nintzala".

(*Vicenta Antonia Moguel, Ipui Onak,* 1804; tomado de la edición de Euskal Esnalea, 1912).

Aor ba, euskal literaturan agiri diran beste bi Mogeldarrak ere, asko zor diote gure Juan Antoniori. Bere izerdi ta nekeen frutuak dira.

Juan Antonio Mogelek Euskalerritik kanpoko gizon jakintsuekin ere artu-emanak izan zituen. Vargas Ponce jaunarekin izandako artu-eman oiek Real Academia de la Historia-k Garibay-ren Oroigarriekin batean 1854-an argitara emandako lanetan agiri dira. Eta nork eztaki Alemaniako Guillermo de Humboldt jakintsuakin izan zuen adiskidetasuna? Mogelek berak ematen digu adiskidetasun onen berri pixka bat. 1802-an agertu zuen Mogelek lan bat: *Versiones Bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos.* Lan onetan ara zer arkitzen degun:

"*Un noble y sabio prusiano, llamado Varón de Humbolt (sic), se dedicó en París a la lectura del Arte y Diccionario Bascongados. Logró leer allí la versión Bascongada del Nuevo Testamento y algunas obras de Oyenarto. Ha venido desde aquella capital sin más objeto que el tratar en estos Países con los más versados en este idioma. Le he tratado, y quedé admirado de las luces que adquirió, de las reflexiones que hacía, de la agudeza de sus preguntas; y como estaba instruído en las lenguas Hebrea, Griega, Alemana y otras del Norte, se hacía luego cargo del artificio de la conjugación y de los primores de las inflexiones. Venía comisionado de alguna Sociedad de Sabios, que intentan descubrir las lenguas matrices, primitivas u originales. Va a publicar en breve alguna obra sobre este idioma despreciado por muchos Sabios Españoles, que debían confundirse con semejante ejemplo. El Sabio Prusiano quiere demostrar que el idioma Bascongado es elocuente, puro y fecundo. Por su súplica e influjo he hecho las versiones de varias arengas y oraciones selectas de Q. Curcio, Tito Livio, Tácito, Salustio, y también las de los dos exordios de Cicerón contra Catilina: todas piezas de la mayor elegancia. ...Es la primera vez que hablan en Bascuence Cicerón, Salustio, Tácito, Tito Livio y Curcio. Si se*

continúa en semejantes versiones, y se aplican a esta lengua las reglas oratorias, escribiendo arengas originales, no se publicará que es lengua grosera".

(*Juan Antonio de Moguel, Versiones Bascongadas de Varias Arengas y oraciones selectas de los mejores Autores latinos*, Tolosa, 1802; Prólogo.)

Baiña Humboldt eta Mogelen arteko artu-emanezaz ez noa ezer esatera, zergatik ze San Martin azkarrak idatzi izan zuen gai onezaz Eibarko errebistan. Lelo-ren kantu zarra ere, dakizutenez, Mogelek billatua da eta bera izan zan kantu au Humboldt-i eman ziona, eta gero onek zabaldu zuen mundu guztian kantu orren entzutea. Baiña esan dedanez, ez noa emen berritzera, San Martiñek ain egoki zuen erriko errebistan kontatu zituanak.

Eta bukatzera noa asi nintzan lekutik. Txaloak eta zorionak Eibarko erriari, bere seme ospetsu onen izena ta oroipena goratu nai izan duelako. San Martiñek "Eibar" aldizkarian idatzi zuanez: "Mundu guztiko erriak goratu dituez bere erriko gizon famadunak edo ongilliak, eurak emoten detzelako erriari nortasunik geien." Alaxe da. Eta bere seme ospetsuak goratzen dituen erriak, bere burua ere goratzen du.

Amaitu dot.

Fr. Luis Villasante, O. F. M.

5-XI-1959

Bukatu duenean amar minutoko deskantsua izan da eta gero Irigoyen-ek Altube jaunaren partez irakurri du arek bialdu duen lan bat. Ona emen:

EIBARTARRAK ETA EUSKERA

I.—IZTEGI KONTUAK

Eibar' Euskalerriko uririk maitagarriena izán degu, orain-tsurarte beintzat; eta au' bi motibugaitik:

Lenbizi' Euskalerriko uririk aundienetariko degulako; bigarren' Eibar-ko bizilagun guzi-guziak, euskaldun jator izan diralako. Eta orrela iráun du, aintxiñaterik urriñenez gero.

¿Nola mirari ori?

Ona emen balio aundiko jardungai bat.

Eibartarren euskera' gramatikaz, garbi eta jator izán da beti; gaur ere bai; baiña iztegiz' mordoillo fama emáten diote askok. Fama ori ere' ezta egiazkoa. Ikusi dézagun.

Igesko urtean' gaur emen bezela' Bilbon egín genuan onelako euskal-batzarra. Batzar artan' Aita Villasante euskaltzaiñak' zerau gértatzen dala esan zigun:

Izkera bat, mintzaira bat, errian zabal ta indartsu bizi danean' ango itzak, garbikeriz aldatu nai izatea' alperriko lana dala; izkuntza makaletan' gaixoetan' olako berrikeriak, erreztxoago lórtu al ditezkeala, irudiz beintzat.

Villasante-ren iritzi orrekin' badute zer-ikusi, urrengo gertaera oiek. Ona-emen bat, Italia-n gertatua. Musolinitarren denboran zan. Nor baiño nor abertzaleago agértu nai, eta sutsuenek' italiar izkuntzatik' kanpotar usaiñeko itz guziak, sustraituenak ere, borratu ta ordeaztu egin bear omen zituzten. Zazpireun-edo omen ziran, aldatu bearreko itzok; baiña bat baiño ezin borratu izan zuten: *chauffer* frantzez itza.

A. Villasante-k esaniko azken itzai buruz' Euskalerrian ere aurkitu génitzake ejenplurik.

Ona emen bat.

Bilbo-n zan. An' gaur ere naikoa ezagun dan fabrika bikain bat' orain berrogeiren-bat urte sortu zuten. Aren sortzailleak' euskakltzale jatorrak ziran; beraz, fabrika berri ortako makiña, erremintta, langintza ta beste zer guziak' euskera garbiz iséndatu nai izan zituzten. Lenbizi' ederki asi ziran; baiña, geroago-ta-gaitzago zutelarik' azkenean porrot egin zuten asmo txalogarri ortan, eta, jakiña, erderara jó bear bein-da-betiko. Au guzi au' zerak berak áutortu zidan, alegia, fabrika-arazo ortan buru izan zan neure adiskide on-on batek (adiskide au' gaur ere garbi-zale purrukatu agértzen zaigu).

Aor Bilbon gertaturiko ejenplu txiki bat.

Orren kontrako ejenplu aundienetariko bat' Eibar erri maiteak emán digu. Emen' fabrika ta lantegi asko dira, baiña guziak euskaldun járraitu dute eundaka urtetan. Ortarako' beste bide bat járraitu dute, alegia, aukera zuten bide bakarra, onako auxe: kanpotik-eta zetozkien gauza berriak' kanpoko, izenarekin berarekin artu, au' batzuetan; beste batzuetan' ongi zamar zerizkien euskal izen zaarrak edo zar-berrituak ézarri. Au egiztatzeko' ikusi, Juan San Martin, Eibarko semeak, orain-tsu idatzi duan lan bikaiña; idatz-lan orren titulua' auxe: "Ei-

bar-en erabiltzen diran burdin langintzako itz teknikoak" (Euskaltzaindiaren errebistan, Bilbao, 1958-III).

Eibartarrek' olaxe iráun eragin diote euskerari. Esaera zaarrak dirauskigu: "Al danean al dana itxasoko arraiñik onena".

Al danean al dan bezela ekín diote, beraz, Eibartarrek, burdin-langintzan, saldu-erosietan,... baita langilleen defentzako mitin eta itzaldi guzietan ere. Parkatu, baiña ezin áztu ditut olako bi predikalari: *Don Poli*, eskuma aldetik, eta *Amuategi* ezkerretik; baiña biok Eibartar jatorki, biok euskaldun-euskaldun.

Ez lotsatu, beraz, Eibartar maiteok, ezta beste euskaldun guziok ere, onela edo bestela itz egiten dezuela dirautsuenean. Baditugu, zer ortan, euskaldunon bidea jarraitzen duten erri aurreraturik asko. Or ditugu, batez ere ingelesak: industri, komertzio, politika, eta beste kultura guzietako itz teknikoak' guk baiño ugariago dituzte kanpoko izkuntzetatik artuak, prantzesetik eta abar; jarraipide au' praktikoago úste izan dute bestea baiño, alegia, beuren-beuren duten jatorrizko eta balio aundiko izkuntzatik (germaniko zaarretik) kultura iztegia formatzea baiño.

II.—GRAMATIKA KONTUAK

Ona emen orain txit jakingarrizko beste gauza bat.

Eibartarren euskerak' badu, emen aitatu bear dedan euskera zarreko esate modu bat.

Urrengo ejenplu onek erákutsiko digu aintxiñatiko esate-modu ori; ikusi:

"Zueik be' etorriko *zára*, eta geure etxian bazkálduko *dozu* danok".

Eibartarren *zara* ta *dozu* oiek' bi lagun edo geiago zertzen dituzte, au da, beste euskaldunon *zerate* eta *dezute* itzek bezela.

Orrelako esate modu zaarrak' erabiltzen dituzte Eibarrez kanpo ere, geienik' Eibarren beraren erri inguruetan: Elgoibar, Soraluze (Placencia) eta abar.

Bizkaierazko liburu zaartxoetan ere bai. Liburu oietatik, gaur bereziki aitatu bear deguna' jakiña, *Mogel*, Eibartar goragarrienaren "Peru Abarka" degu.

Aitatu bearreko beste bat' zerau degu: Aita Bartolome-k 1878 garren urtean argitaratu zuan liburua; onen izena' "Jaungoicuaren amar aguindubeetaco icasiquizunac". Liburu aundi eta irakasgarri au' goitik asi ta beeraiño' Eibartarren verbo-sistema orretxeezaz idatzita dago.

Sistema zaar orren jatorria? Ona emen: *Zara, dozu* ta abar' lenbizi, plural ziran Euskalerri guzian; gero Jaun aundikiai' beti pluralez itz egin bear, "itano" izketa (erderazko "tutear") ezpáizan bear bezin errespetuzko. Oitura errespetuzko ori' denboraz, zabaldu zán Euskalerri guzian, eta azkenik, *zara* edo *zera, dozu* edo *dezu* ta abar itzek' galdu zúten, guztiz, jatorrizko pluraltar indarra; eta orrelaxe makaldurik, guziz singularturik irítxi zaizkigu euskaldun geien-geienoi. Euskaldun geien-geienoi, baiña Eibartarrai ez; oiek dúte, beraz, aintxiñateko euskeraki jator ori guziz galdu etzaigunen meritua.

Azkuek, autu orreri' luzeki ekin dio; ikusi, aren Iztegi nagusian, zu eta ı itzekiko artikuluak; baita bere "Morfologia"-ren 544 orrialdea ta abar ere.

Azkuek berak uste duanez' Bonaparte Printzipea izán genuan, zu itzaren (eta beraz, *zara, dozu*... ta abarren) pluraltasuna lenbizi susmatu zuana. Gure arteko beste gramatikalariak' konturatu ere' eztira askorik egin' gramatikako zer orrezaz.

Astarloa-k ordea' ez-konturatuz gaiñera' kontrara ekin zion; au da, zu ori jator-jatorriz singular izán zala uste izan zuan. Geiago oraindik: zu itz orren bi letra oiek' zuzen-ere, itz egiten diogun lagun bakarrari zor diogun errespetua adiarazten dutela. Urrin zébillen, beraz, Astarloa famatua, zu itzaren jatorrizko esan-naia ezagutzetik, eta ori, bere erri Durango-tik' Eibar, ta Eibartarren euskera, ur urrean zitualarik.

Ez dézaiegun, ala-ere, Astarloari ta onen jakituriari puska bat ere ukatu. Astarloak, maitasun barren-barreneko eta argiena zúan euskera ta Euskalerriarentzat. Bere garaiko mintzai-jakintzak' ikertu ta ikasi zituan, gogoz eta sakonki, euskeraren edertasunak goraltxatzeko eta euskotar guziai maitasun ori txertatzeko.

Bai ba, Astarloaren garaiko mintzai-jakintsuek eta askoz geroagokoek ere, fede aundiz arákatzen zituzten letra bakoitzaren siñifikatze oien kontuak; ikusi, Astarloaz eun urte geroagoko J. E. Blondel-ek idatzitako liburua: izenez' "Phonologie Esthétique de la Langue Française".

Arrezkero' mintzai-jakintzak' aurrerapide aundi ta sustraizkoak égin ditu, jaio berri degun *linguistika* izeneko jakintza-pean. Letra bakoitzaren siñifikatze usteak' ezereztu ditu; baita, itz bakoitzaren etimologi lanai ere' laburtu dizkie egoak, batez-ere, filosofikerizko edo-ta idurizko egi asmatzailleenak.

Baiña linguistika berri orrek' argitaratu digu, euskaldunoi, egi atsegingarri bat; onako auxe:

Europa-zaarrean, alegia erri-istoriek alkantzatzen eztituzten aintxiñetan' bazirala, Europan, zenbat Erri' ainbat izkuntza bereizi; baiña Erri oik eta oien izkuntza bereizi oik, beste Erri batzuen egitez edo indarrez' menderatuak eta aienatuak izán zirala. Baiña (eta au da miragarria) itzulipurditze orokar eta izugarri orrek' Erri bat eta izkuntza bat bizirik eta zutirik utzi bear izan zituala: Euskalerria' eta euskera.

Gertaera sinisgaitz orrek jártzen ditu, munduko jakintsuak, gure Erri eta gure euskerari begira, eta euskaldunoi deika, alegia, gure izkuntza maitagarri oneri eutsiteko otoizka.

Dei orreri erantzunez, eta nere itzalditxo au bukatzeko' ona emen bi itz:

Euskaldun maiteok, eta bereziki Eibartar kutunok: Irakurri dézue, noski, "Gran Via" errebistan (n.° 140), L. Mitxelena euskaltzaiñak, oraintsu, euskerari buruz, agertu duan idazki irakasgarria. An ikúsiko dezue, jakintsu guziak euskaldunoi zuzentzen dizkiguten erregu eta suspertze itzak. Ez dézagula, dirauskigute, baztertzen, lenbizi, eta gero iltzen utzi euskera, geure gurasoek eutsi eta belaunetik-belaunera erentziz utzi diguten balio aundiko ondoriotasun ori.

Ogeigarren sigloko euskaldunok' eztégula, dirauskue, geure aurrai erentzi eder ori ukatzeko eskubiderik; ori egitea' ondamendi izugarrizko bat litzatekeala, ez euskaldunontzako bakarrik, baita sortzaldeko Europa guziaren kulturarentzako ere.

ALTUBE-k.

Gernika, 1959.

Altube jaunaren lana irakurtzen bukatuta arratsalderarte utzi dira jardunak. Ayuntamentuko gela batean A. Garavilla-ren pintura erakusketa bat iriki da Euskalzaleen Biltzarrera etorri diranak ara joanik.

Arratsaldean P. Lafitte jaunak egin du itzaldi dotore ta eder bat adieraziaz Bidasoaz andiko Euskalerrian eman dituzten pausuak euskera nolabait eskoletan sartzeko frantsesarekin batera. Dio ezkertarrekin ere nolabait bat egin dutela eskolako zeregin ortan. Baita ere apurka apurka sartzen ari dirala oraindik sartu eztiran zenbait eskolatan. Zoritxarrez eztitugu bere itzak artuak.

Lafitte jaunak bukatu duenean Jon Etxaide-ri eman zaio itza:

EUSKALTZAINDIA MINTZA BEKIGU

"ITXASOA LAIÑO DAGO"-REN ZUZENBIDEA

(ALDAKUNTZA BATZUEN ARRAZOIAK)

"Itxasoa laiño dago"... ren itzulpena bukatu ondoren, Mitxelena, Txillardegi, Villasante, Irigoyen eta beste adiskide batzuen izpideak eragiñik, konbentzitu naiz euskeraren mintzalegeari dagokionez, antziñako euskal-idazleak askozaz ere arrazoi jabeago zirela gaurkoak baiño. Euskeraren morfolojia eta gramatika, guk baiño askoz obeto ezagutu ta erabilli zuten, ezpaita aietan arkitzen gaurkoetan ain sarri (lerrotik lerrora batzuetan) arkitu oi diren utsegite larriak. Zorigaitzez, ordea, aien erdal-joskerak eta itz arrotzak ikaraturik, belaunez-belaun eskuratu zitzaigun euskal-literatura arbuiatu genduen eta belar txarrarekin batean gari landarerik jatorrenak erauzi genituen. Ez genduen jakin gure aurrekoen alderdi ona ta txarra bereizten. Txarra zapuztu genduen eta txarrarekin batean euskallandarerik mardulena. Orrela, akats batetik atera giñan eta bestean jausi, ertze bateko amiltegiari igesi bestean erori... Gure itxukeriak eraginda ez genduen aintzakotzat artu nai aiengandik zetorren ezertxore edo ezer gutxi beintzat eta ez ditugu estudiatu eta ausnartu izan nai zuhurtasun aundi batez idatzi zituzten liburuak. Literatura zaharrarekin eten eta autsi bearra zegoen, joskerak, orazio alkartzeak eta iztegiak erdal-kutsu iguingarria zeriotelako... Baiñan, euskerak ez ote du beste nortasunik gramatika alorrean? Eta soro au euskalnortasunari dagokionez erein eta landu bazuten, zergatik arbuiatu eta sutaratu ote-larrekin batean? Ez ote zentzugabea gure jokabidea?

Zorigaitzez, ordea, alaxe da. Badira gaurkoetan idazleak, antziñako idazlerik narratsenak aiñako nazka ematen digutenak eta askotan galdegiten diogu gure buruari euskera ori nundik sortu ote duten, ez erriak eta ez antziñako idazleek ezpai-

tute sekula orrelako euskerarik erabilli izan, Ez-jakiñak eta irudimenaren beroak oretu digute sasi-euskera au. Gaitz auek ni neu asko kutsatu eta loitu nautela aztaukat zertan ukaturik eta zu pekataria baiño len, ni pekataria esanaz natorrela aitortzen enaiz lotsatzen. Alabaiña, euskal-alorrean batzu-batzuek ni baiño saiestuago ibilliak direla esango nuke. Ez nuke iñor salatu nai, mingarriago baita niretzat arria jaurtitzea arrikada jasotzea baiño. Alabaiña, benetako adiskide bezala eta ez-jakiñetan ez jakiñena neroni naizela aitortuz, gaurko euskal-okerbidearen eredugarri batzuek eman nai ditut, ain zuzen ere adiskide auek benetan estimatzen eta maitatzen ditutalako eta beren utsegiteaz oarturik zuzenbideratzea nai dutalako. Barandiaran (Ilias'ena), Itunbe (Bide izkutua), Anabitarte (Poli), Jautarkol (Ipuiak), Iñurritza (Unamuno ta Abendats), "Yakin" aldizkarian idazten dutenetan askotxo (Zuek oraindik gazteak zerate eta ekin euskera ikasteari), Arriandiaga eta beronen eskolakoak, ots, Sabin baiño Sabindarragoak... Eta euskal-irakasle aundi izan ditugun Zaitegi, Olabide, Ametzaga ta beste olako batzuei euskera, xamurragoa, gozoagoa, naturalagoa, zauliagoa, eskurakoiagoa, errikoiagoa erabil dezatela egingo nieke aolku eta ez ain teknikoa, burutsua, adimentsua. Izen mordo au bezala beste bat aukera nezakean, talde joriegia baikera gaurko pekatuan murgilduak, zorigaitzez.

Gure idazle zaharrek, gramatikari dagokionez (eta bitxi da! gramatika legeak ongi ezagutzeke, anartean ezpaitzen gramatika estudiorik egin) guk baiño askoz obekiago eta segurantzi geiagorekin idazten zuten, erriaren iturbegi gardenetik xurgatzen baitzuten uneoro euskal-jarioa eta Bidasoaz besteko oraikaldiko gure anaiak, beren arbasoen akatsik larrienak bazterturik, guk baiño sakonago ta obekiago ezagutzen dute gure mintzaira eta guk ez bezalako graziz eta ederrez jazten dute euskal-literatura. Ona, alderdi ontako euskal-idazleentzat gidari ta eredu bikaiñak!

Euskeraren aldeko maitetasun aundi batek eragin digu penintsulako euskaldunei joan daneko irurogeitamar urte oietan eta maitasun sendo ta zindo onek eragiñik euskal-idazleak eurite ondoan perretxikoak bezala sortu zitzaizkigun gure kale-baserrietan. Baiñan, perretxikoetan gertatu oi denez, onak baiño txarrak ugariago sortu zitzaizkigun, on batzuekin nahasiak, kaltegarriak, pozoindunak ugari...

Euskal-maitasunak, ordea, euskera sakon ikasteko eta estudiatzeko obligaziñoa dakar berarekin eta euskal-idazleok zabarkeriaren besoetan etzanik lozorro egon gerala ezin uka. Gure

aurrekoek etzituzten izan guk ditugun erreztasunak (ots, euskal-gramatika eta literatura obra ederrak) euskera ikasteko eta alare, gramatikako utsegiteai dagokionez, gaurko idazle geienak baiño obeto idazten zuten. Konpara ote dezakegu, adibidez, Manzisidor bere aurreko Mendiburu'rekin? "Abendats" edo Arantzazu'ko praillerik asko (ez gero Villasante Aita) beren aurreko Añibarro'rekin? Jautarkol apaiza, Axular apaizarekin? Lengoetan eta oraingoetan jakitez eta kulturaz ezin berdiñagoak aukeratu ditut berariz, ez lengoetan jakitunak eta oraingoetan ez-jakiñak, orduan alderakizuna ezpailitzake bidezkoa. Orra ba, lenengoetan eztugu arkitzen idazkerako akatsik (aipatutako joskera eta galdegarrien oker erabiltzea izan ezik) eta gaurkoetan erruz. Zergatik gaurko jesuita, prantziskotar eta apaizak ez dute euskera beren aurrekoak bezala sakon estudiatzen? Ez ote daude, apika, aiek baiño beartuago, aien erakuspideak eta gaurkoenak bildu dituztelako (edo biltzeko aukera izan dutelako beintzat) eta XX'gn. mendeak XVII'garrenak baiño geiago beartzen duelako estudio-lanetan? Gurean, ordea, aldrebes gertatu da. Badirudi atzeraka goazena, ikasi bearrean ahazten... Eta guzti au zergatik? Gure izkuntza sustraitik estudiatzeko egonarririk artu nai izan eztugulako, gure idazle zaharrek aintzakotzat ere artu nai izan eztitugulako eta are gutxiago aien iturrietan xurgatu...

Egia, idazle zaharrek ere bazituztela akatsak eta ez txikiak, aietan nabarmenenak joskeraren okerra; *non, nola, zeren* eta olako galdegarriaz bidegabeki baliatzea; erdal-itz asko bearrik eta premiarik gabe erabiltzea; eta baita ere izkuntzaren moteltasuna eta monotonia, guarko idazle goren, giartsu eta zauli zenbaiten aldean. Akats auek larriak direnik ezin uka, baiñan baita barkagarri ere, ezpaitzuten beren aurretik iñor arkitu utsegite oiek ikusi-erazteko. Guk ordea, erakuspideak nun-naitik izan ditugu eta ikasi ez baldin badugu nai izan eztugulako izan da. Beraz, gure errua, gure ogena, gure pekatua aiena baiño askoz larriagoa izan da.

Zergatik XX'gn. mendeko euskal-idazleok ez ote genitzakean gure aurrekoen akatsok zuzendu (eta ez ditugu beti ondo zuzendu) gramatikako uts izugarrietan erori gabe? Okerra zuzendu dugun bezala, zergatik eztiogu zuzenari zuzen eutsi? Merezi ote du zulo bat betetzea bestea egiteko? Euskal-idazle askotxo ditugu gaurregun, eta ez nolanaiko idazle ez-jakiñak, liburugille jakitunak baizik, euskal-verboa estudiatu gabe darabiltenak, belarriz aditu dituzten aditz-jokoak edo an-emenka irakurri dituztenak gutxi gora bera aplikatuz, zuzenak dira-

nentz aztertu gabe. Eta ontarako eztago eskubiderik, maitetasunak ezpaitezake justifika olako ausarkeriarik. Adibidez, azken-bolara onetan argitaratutakoen artean, "Abendats" en liburuak aboa bete agiñekin utzi gaitu tankera onetan, ezpaikenduen uste olerkari trebe ta jaio onengandik orrelakorik irakurtzerik.

Ene ustez, Euskaltzaindiak, oraiñaldian gramatikari buruz egiten diren akatsik nabarmenenak eta larrienak bil eta publika bear lituzke, beroien ordezko zuzen esanak gure idazleai jakin-eraziz, baiñan, batez ere, euskal-liburuen kritikak egiazko kritikak izan bear dituzte eta ez orain arte bezala intzensualbistari lotsagarriak. Beste kuku batek jo liguke soiñua trapu zikinak kanpora ateratzen jakin izan bagendu, palagu ta loxintxetan denbora galdu gabe. Ez giñake egonen egon geran lozorroan, amets gozoetan, ezti miazketan, geronen buruaz arrotuta ta lañezaz puztuta bizi izan ezpagiña, bakoitzak bere buruari idazle gorengo eta paregabe iritziz. Nik neuk dakit gure irizlariek ain merke-zurrian zabaldutako narkotiku onek zer gaitza egin didan. Zergatik alakoek etzizkidaten nire utsegiteak salatu? Nirekin egiazko adiskide bezala jokatu izan balute beren garaian, aspaldi zuzenduko nituzkean gaur zuzendu ditudan akatsak. Beraz, intzensu lo-eragille au jaurtiaz, urteak galduazi besterik ez digute egin. Ori al-da adiskide on agertzea? Baliteke adiskide zuri, ez, ordea, adiskide leial.

Aurreneko adiskide leiala irizlarietan Mitxelena jauna izan dut eta beroni eskerrak esnatzen asia naiz. Mitxelena-Elizalte jaunak eman zidan aurreneko zartakoa (eta ondo emana gero!) "Joanak-Joan" eleberria argitaratu nuenean eta beste penarik eztut kritika-lan artan utsegite baten aipamena besterik ez egiña. Naiago nuke dozenatxo bat atera izan balizkit illaran. Oraingoarekin irizpide zorrotza eskatu diot eta nire eskaria aintzakotzat ar dezala egiten diot otoi. Euskera benetan maite baldin badugu, maiteago izan ditzagun irizlari zorrotzak, biguin eta barkaberak baiño. Irizlari zorrotzarengandik zedozer ikasiko dugu zentzuz eta asmo onez ari baldin bada ta ez zipoka jardunean. Irizlari barkaberarengandik eztugu, ordea deus ikasiko, borondate onenaz ari delarik ere. Naiago dut amaika aldiz Mitxelena erregarria, Andima gozagarria baiño. Egiak erre egiten duela? Bai, apurtxo batean, baiñan ez gerora. Gure aurrekoek esaten zuten "egia da latz eta garratz", baiñan ez ote obea egia garratza gezur gozoa baiño? Ez dezaiogun, beraz, bekozko beltzik jarri Mitxelena jaunari trapu zikiñak atereaz datorkigulako, Mitxelena asko bear bailituzke gure euskal-soroak

sastraka ta larraz garbitzeko. Betoz gure irizlariak egiaren bandera zabalik...

Itz bi orain, "Itxasoa laiño dago"...ren lenengo ediziño oni buruz. Liburu au jantziz aldatu xamarra atera litzake "Itxaropena"k bigarren probaldiak igorri izan balizkit, nik itxaroten nuen bezala ,aurreko liburu guziak bi proba-zuzentzekin atera izan baitizkit. Nik, zuzendu bear asko bigarren probaldirako utzi nituen, lenengoa beltz-beltza gelditu baitzen aldakizunaren aldakizunez eta lenengo zatiaren tirada bota zuela esan zidanean (Jaungoikoa'k bakarrik daki nitzaz jabetu zen amorrazio ta etsimentuaren berri), bigarren probaldirako utzi nituen zuzenketa klaseak ez ikuitzea erabaki nuen, bestela, aurreneko zatia tankera batean idatzita eta bigarrena bestean aterako baitzen. Beraz, bigarren probaldian zuzendu asmo nituenak orrialdez-orrialde bildu ditut eta Euskaltzaindia'ren babesean uzten, ni ilda gero bigarren ediziñorik egiten bazaio itzulpen oni, nire azken gogoa beteaz egin dadin. Zuzenketa au *Euskera*-k edo beste aldizkariren batek argitaratzea komeni litzake, bigarren ediziñoa atera lezaken edonork gogoan euki dezan, publikatu gabeko lanak maiz aski galdu egiten baitira edo zoko batean ahaztuta gelditzen. Ene zuzenketan ikus ditekeanez, eztira ene aburu aldakizunak bakarrik aldatzekoak, inprentako utsak ere asko izan baitira eta batzuek larriak, ezpaita posible probaldi bakarrarekin gauzak ondo egitea. Arrazoi guzti oekatik, ene irakurleai eskatzen diet ez dezatela nire itzulpena juzga beronen zuzenbidea ezagutu gabe. Esan bezala, bigarren ediziñoa egiterakoan bizi ezpanaiz, Euskaltzaindiaren ardurapean egitea gogo nuke, berak oi duen zentzuz eta zuhurtasunez eginen duela ziur bainaiz. Nire iritzian egin bear diren aldakizunak oso-osorik ipiñita daude eta zalantzakoak gure Akademia'ren gain uzten ditut soluziñorik egokiena emango dien ustean. "Itz" gaietan, oraiñaldian beñepein, jendea minberatu erreza da eta gero ere, nire ustez, itz bakoitzak bere aldekoak eta kontrakoak izanen ditu. Orregatik, itz batzuei buruz erabakiak artzean (abesti-eresi-kanta, gotzai-apezpiku, abizen-deitura t. ab.), lehen-lehenik aburu auxe gogoan eukitzea komeni litzakeala nik uste: itza, Euskaltzaindiaren gustoko izan ala ez, ongi ala gaizki eratua izan, eskubidezkoa ala ez (itz zahar batek eskubide geiago izan dezakealako), ediziñoa egiterakoan itz oiek errian ezagunak diren begiratzea. Adibidez, arestian aipatutako iru itz berriak (abesti, gotzai, abizen) ez nituzke nire gogoz zabalduko eta are gutxiago asmatuko, ordezko jator-jatorrak bai-baikenituen. Gaiñera, iruretan lenengoa burugabe

eratua dago. Alabaiña, iru izen berriok Guipuzkoa'ko oraingo euskaldunari askoz ezagunagoak eta adiskideagoak zaizkio beren ordezko zaharrak baiño. Komeni ote da itz oiei bizia ukatzea, gaurko publikaziño errikoiak, dotriñak eta bertsolariak onartuta gero? Bego Euskaltzaindiaren esku auzi au, baiñan' erabakia artu aurretik ongi ausnartu dezala eskatzen diot eta ez dezala biotzez joka, buruz baizik.

Etzait beste esan-bearrik gogoratzen. Ekin dezaiogun, bada, gure idazlanean sortu zaizkigun zalantza ta korapilloak aztertzeari.

DUN-DUEN-DUAN, NUN-NUEN-NUAN, eta abar.—Orainarteko nire literatura-lanetan, Orixe ta Olabide'ri jarraiturik lenbiziko formak erabilli izan ditut, ots, *dun-nun*. Nik sekula eztitut irakurri izan bi idazle gorengo oieri eragin zizkien arrazoiak, gure idazle zaharrek beti ta beti erabilli izan dituzten tarteko *a* edo *e* ori baztertzeko. Nik uste, ene baitan arramazka jardun ziren arrazoien idekotsuak izanen zituztela aiek ere literatura zaharrarekin erabat urratzeko, baiñan, garbi aitortu bearra daukat irakasletzat eduki ditutan bi gizon oiek urrats ori eman ezpalute, ni neroni enintzala ausartuko sekula erabaki ori artzen. Ona emen, ene baitan zarrapoka jardun ziren arrazoiak forma laburraren alde.

1.°—Erriak gaur-gaurkoz amartik bederatzitan *dun, nun*... erabiltzen du. *Nuan* eta *nuen*, berriz (orobat, *duan-duen*) kaletarren batzuek erabil lezakete, baiñan, ene ustez sermolarien eta irakurkizunen eragiñez. Baserritarrai, ostera, eztiet sekula entzun.

2'gn.—Gure idazle zaharrek, sortaldekoak baziren, *duen-nuen* erabiltzen zuten. Sartaldekoek izatez, ostera, *duan-nuan*. Zein aukeratuzko zalantza onetan ez ote zen obe erriak zapuztutako era auek literaturan ere baztertu eta erriarekin batean *dun-nun* erabilli?

3'gn.—Murrizte au egiteko kezka aundirik ez nerabillen, nire ustez (eta Orixe-Olabide'ren ustea ere berbera zela iduri zait), *e* edo *a* ori epentetiku besterik ezpaitzen eta ortaz, ez genduen aditz-jokoa murrizten. Izan ere, indikativoko oraiñaldiari *n* edo *la* erlatibuak erantxirik, gure idazle zaharrek onela erabilli izan dute:

Nik ekarri dutan-dutala
Zuk ekarri duzun-duzula
Arrek ekarri duen-duela

Guk ekarri dugun-dugula
Zuek ekarri duzuten-duzutela
Aiek ekarri duten-dutela.

Or ditugu, bada, gutxieneko *duzun* eta *dugun* dela alkargarri bage (*a* edo *e*). Joanaldiko dativuetan ere atzaigu alkargarria agertzen, *zenigun, zigun, nion, zenion, zenidan, zidan*... Ezta oraiñaldiko erlatibuetan ere, *didazun, didan, diozun, dion*... Beraz, arrazoi ontara jo bear: *e* edo *a* ori eztugu aditz-gunaren osakin, eraskin baizik. Izan ere, aditz-sustraia *u* baldin bada (*d-u-t, da-kar-t*'en bezala) eta erlatibua *n*, zer izan diteke *e-a* eraskin baizik? Izpideok sendoak direnik ezin uka eta Orixe ta Olabide'ren bultzakada txipia aski izan nuen beroietara ziaro makurtzeko. Alabaiña, beste alderdiak ere baditu arrazoiak eta ez makalagoak eta auen zamak beste alderdira eraman naute nire bizitzako ogeitameretzigarren urtean.

Mitxelena-Elizalte jaunak gaur-egun argiro erakutsi digunez, erlatibua ezta *n-la, en-la* baizik. Nola demostratzen den ori? Oso errez. Oraiñaldiko sartaldeko euskaldunek, *erori dan etxea, etorri dala* esaten dute eta eguzkialdekoek berriz, *erori den etxea, etorri dela*. Aditz-jokoa *da* balin bada (*erori da, etorri da*), nundik sortu da eguzkialdekoen *de* ori? Ain zuzen ere, erlatibua *en-ela* delako eta antziñako aditz-jokoak erlatibua **daen* eta **daela* zirelako. Antziñako forma auetatik sartaldeko euskaldunek *a* gorde zuten eta *e* baztertu; eguzkialdekoek, ostera, alderantziz, *e* gorde zuten eta *a* baztertu. Joanaldiko *en-ela* ere (*nuen, nuela*) Mitxelena-Elizalte'ren ustez, erlatibuaren senide-senidea da, ots, berbera beste esankizun bat arturik. Senidetasun au joanaldiko intransitivoan ikus diteke nabarmenago, sartaldekoek *zan-zala-zirazirala* egiten baitute eta eguzkialdekoek, *zen-zela-ziren-zirela*. Beraz, emen ere, **zaen, *zaela, *ziraen, *ziraela*, ziren aurreneko formak eta alderdi bateko euskaldunek *a* onartu dute eta bestekoek *e*.

Auxen da ene arrazoi teorikua *duen-nuen* onartzeko ta *dun-nun* baztertzeko (*duan-nuan*, berriz, ene postura sortaldekoa delako baztertzen dut). Alabaiña, arrazoi mardul onen jabe ezpagiña ere, gaurko nire pentsakerari jarraiturik *duen-nuen* erabilliko nituzke, iduri baitzait laureun urteko literaturaren zama aundiagoa dela kontrako teoria guziak baiño, naiz ta erriak, Orixe'k eta Olabide'k bestera erabilli gure egunetan.

PH.—Zergatik onartu nuen latin-izkuntzak lenengo eta prantzesak gero greko jatorrizko itzak erabiltzeko atotsi zuten

letra bikote au? Orra, ba. Zenbait itz baditugu euskeraz eta are geiago erdal-jatorrikoak izanarren euskeraz asko erabiltzen direnak, eskualde batzuetan *p* pronunziatzen dituztenak eta bestetan *f*. Esaterako: *apari-afari, alper-alfer, parre-farre, ipar-ifar, ipiñi-ifiñi, Naparroa-Nafarroa... feri-peri, konfiantza-konpiantza, sufritu-supritu, famili-pamili, infernu-inpernu, franko-pranko, pio-fio, fiña-piña, festa-pesta, Pernando-Fernando, Fermin-Premin* (Usurbil'ko Agiña'n bada baserri bar *Fermindegi* dena paperetan, baiñan erriak *Premindegi* esan oi diona), *Felipe-Pillipe*... Itz auek guztiak nola erabilli bear ditugu, *p*'kin ala *f*'kin? Ona emen korapilloa, ezpaita zillegi ene ustez nolanai erabiltzea. Ene zalantza ezin autsirik, itz berberak batzuetan *p*'kin eta bestetan *f*'kin erabiltzen nituen. Anarkia onekin, ordea, ezin jarrai eta orduan gogoratu zitzaidan egoki litzakeala latin-prantzesak darabilten *ph* bikotea (greko jatorri koak, alegia) guk itz oieri aplikatzea, ez ordea soil-soilki *f* pronunziatzeko, aukeran irakurtzeko baizik, nai izatez *f* eta nai izatez *p*, ondorengo *h* mutu biurturik. Orrela asi nintzen erabiltzen *ph* lenengoz liburu onen borradoretan, baiñan erabateko erabakia artu gabe, saio-gisa soil-soilik. Gaiñera ez nuen zaio auetan kriterio berbera erabilli beti. Batzuetan, euskeraz *f'kin* pronunziatu ditezkean itz guziak idazten nituen *ph*'kin, naiz euskerazko jatorrak, naiz erderatiko euskerazkuak, naiz erdera soillezkoak, ots, euskerak asimilatu gabeak, baiñan ezinbestean erabilli bearrak. Bestetzutan, ordea, euskerazkoak bakarrik (beren euskal-erdal jatorriari begiratu gabe). Sekula ez nuen segurantzizko erabaki bat artu auzi ontan; mutillik gabeko itxuaren antzo nenbillen ene makillatxoarekin orma-bazterra ezin idoro... Ontan eta beste zenbait euskal-auzitan.

Zalantza ontan igorri nituen liburu onen lenengo probak inprentara eta an zeuden bitartean, lausoak eta ganduak oro aienatu zitzaizkidan eta bi erabaki oetxek artu nituen: *ph*'ri buruz, erabat baztertzea, naiz ongi pentsatutako ideia, naiz gaizki pentsatutakoa izan, idazle bakoitzak ezpaitugu eskubiderik gure izkuntza jostallutzat edo esperimentugallutzat erabiltzeko. Bakoitzak ongi derizkiona edo nai duena egitekotan, gure izkuntzarekiko anarkia ikaragarri batera iritxiko baikera eta euskeraren batasuna geronek (ainbeste aldarrikatzen dugunok!) botako baitugu arrika. Auzi oni buruz ene jokabide zuhurra auxe litzake: problema au Euskaltzaindiaren mai gaiñean ipiñi eta nik eskubide gabe zabaldutako soluziño ori proposatu. Arrazoi auek direla-ta, nerau billakatu naiz *ph*'ren etsairik aundiena, oartu bainaiz ni bakarrik izanen naizela letra bikote

onen erabiltzaille edo okerragoa litzakeana talde bat atzetik etorriko litzaidake eta ortaz nerau nintzake euskal-ortografiaren batasun kontrako eragille. Erabakiok artzeko eskubide bakarra ene ustez Euskaltzaindiak dauka, bestela, euskal-zismak perretxikoak bezala sortuko baitzaizkigu. Alabaiña, otoi egiten diot Euskaltzaindiari euskal-idazle guztioi norma batzuek eman dizaizkigula *p*'kin erabilli bear ditugun itzak eta *f*'kin erabilli bearrekoak mugarrituz, ezpaita egoki kriterio sendo bat gabe itz auek nolanai idaztea (1). Lenbiziko probak zuzendu bitartean artu nuen bigarren erabakia auxe izan zen: *dun, nun, naun, nindun, (dula, nula, naula, nindula), e* batekin tartean erabiltzea, ots, *duen, nuen, nauen, ninduen (duela, nuela, nauela, ninduela)*... Erabaki au Euskaltzaindiaren begikoa dela iduri zait. Alabaiña, Euskaltzaindiaren aburua beste bi soluziñoetako bat onartzea balitz aren esanetara makurtzeko gertu nago. Zorigaitzez, bigarren probarik igorri etzidatelako aditzjoko auek ezin izan ditut nire naiera aldatu.

DIÑO-ZIÑON-DIO-ZION (**iñon*, **ion*-etik aterea). Aditz-jokuok Bizkai-pronunziaziñoaren araura idatzi baditut, eztut egiñ, iño-

---

(1) **P** ta **f**'ren alkar-guduak sortutako auzi oni buruz, orain eun urteko euskaltzale zintzo eta ezagun baten testigutza aditzera eman nai dut emen. Ernani'ko seme Gregorio Arrue jaunaz mintzo naiz (1811-1890) ainbeste liburu Gipuzkoa'ko euskerara itzuli zizkiguna, beren artean, ain zuzen ere, Mogel'en «Peru Abarka». Ondikotz, «Amasei Seme Euskalerri'ko» izenarekin bataiatu nuen ene liburuan, Mogel'i dagokion saillean, ahantzi egin zitzaidan Arrue'k egindako itzulpenaren aipamena egiten. Izan ere, korrika ta presaka idatzi nuen liburu ori, Euskaltzaindiaren sariketa deiari erantzunaz, gauzak bear bezala estudiatzeko betarik artu eziñik, epea laburra baitzen batek bakarrik orrelako lan aztuna burutzeko eta orregatik onen tankerako utsuneak biografi guzietan arki ditezke. Bigarren ediziño batean zulo auek guziak betetzeko eta okerrak zuzentzeko bizia eta osasuna emango al-dit Goiko Jaunak!

Arrue'ren testigutza onek garrantzi aundia dauka ene ustez, batetik orain eun urtekoa delako eta bestetik kultura aundi batez jantzitako gizon au eskolamaisu zegoelako Zarautz'en, adin guzietako euskaldunekin artu-emana zuelarik. Onela diño Arrue'k: «Euskal-izkuntzak eztitu bear latin-alfabetuko **f** ta **h** letrak eta oker daude onelako itzak **f**'kin idazten dituztenak: **alferra, afaria, ifiñi** eta beste olako itz batzuek beti **p**'kin idatzi bear lirakeanak, euskaldun jatorrak pronunziatzen duten bezalaxe. Auek, gaztelera zertxobait ikasi duten lurraldetan egonak ezpadira, edo eskolan ibilliak ezpadira, ezin dezakete pronunziatu **f**. Orrela, **Fernando**'ren ordez **Pernando** esan oi dute eta **Francisco**'ren ordez **Prantzisko; fiesta** eta **función** esateko **piesta** eta **punzion**. Berekin zenbait saio egiña naiz eta **f** ezin pronunziatuz, **p**'ra jo bearra daukate. Letra au arrotz eta alperrikako denaren siñale jatorra. Mutikoak alfabetua ikasten asten direnean, **f**'ra irixtean **epe** esan oi dute eta lanak dira gero, erdaldunak bezala **f** esan-azteko». (Moguel-Arrue, «Peru Abarca», Prólogo al lector guipuzcoano, «Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País», Cuaderno 2, pág. 179, año 1948).

laz ere, tankera ori atsegingarriago zaidalako. Anitzez ederrago eta eztiago derizkiot (joanaldian batez ere) gurealdeko *diotzion*'i, baiñan, oek, morfolojiaz *izan* (edo zeatzago mintzatuz **edun*) laguntzaillearen kidekoak direlako (ekarri *diot*, ekarri *zion*), erabilli izan ditut aspaldi ontan Bizkai-pronunziaziño orrekin. Auzi ontan ere Euskaltzaindiari eskatzen diot biderik egokiena erakuts dizaigula.

GOTZAI. Euskerak bazuen (Bidasoaz bestealdetik beintzat) latiñetik zuzen-zuzen artutako euskal-itz jatorra, izen berririk asmatzen ibilli gabe, gaztelerazko "obispo" aditzera emateko. Alabaiña, gaurregun gure aldeko euskaldunek ezagunagoa dute *gotzai, apezpiku* baiño eta ongi-xamar eratua dagoenez errespetagarri deritzait, errian indartzen ari den artean eta ez aultzen. Euskaltzaindiak erabaki beza, ordea, zein den erabilgarriago.

BAINA, BAIÑA, BAÑA. Nire erdizaletasunak eraginda *baiña* berezi dut nun-naiko euskaldunentzat irurotan egokiena iritzirik. Ala ere, gai ontan, beste orotan bezalaxe Euskaltzaindiaren esanera nagokizuke.

OSPE-AINTZA. Gaztelerazko edo latiñezko "gloria" aditzera emateko, etzegoen zertan asmatu *aintza* itz berria, or baitugu Bidasoaz bestaldetik *ospe* itz zoragarria esangura berberarekin. Oso erdi-purdi osatua dagoelakoan nago, baiñan, fonetikaz ots-ederreko delako erabilkizun orretarako edo itz orren premia gorria zelako, aitortu bear dugu gure egunetan zabalkunde aundia artu duela. Gipuzkoa'ko aur guztiak dotriñan *Aintza Aitari, Semeari eta Espiritu Santuari* esaten ikasi dute eta Goierri guzian ain entzuna den "Radio Segura"-k ere orrela esaten ditu bere Errosarioak. Otoitzetan beintzat aintzakotzat artu beste erremediorik eztela uste dut. Errezuz lekora, *ospe*'ri toki egin bear zaiola iduritzen zait. Ene liburuan, bizpairu tokitan *aintza* erabilli nuen. Euskaltzaindiak ikus beza aldatzea komeni ote den.

ZAN-ZEN-ZIRAN-ZIREN. Gipuzkoa'ko Errenteri-Lezo'tatik Zuberoa'ko Barkoxe-Eskiula'raiño *zen-ziren* erabilli oi dira; Gipuzkoa-Bizkaietan, berriz, *zan-ziran*. Bi formak jatorrak dira eta lentxe esan dugunez beren ama **zaen-*ziraen* izan bide zen. Literaturan erabiltzeko zeiñek dauka eskubide geiago? Nik, Etxepare, Axular, Leizarraga eta Bidasoaz besteko idazle goituen omenez (auek izan baititugu euskal-eleder alorreko langillerik zaharrenak eta jaioenak), eta euskal-batasunaren alde egokiago delakoan *zen-ziren* aukeratu ditut. *Nintzan-nintzen*' ekin zalantza aundiagoak ibilli ditut eta egia esan eztakit zein

aldetara jo. Euskaltzaindiak atera gaitzala zalantza-osin ontatik.

BEZALA-BEZELA. Sortalde-beroak eragiñik lenbizikoa aukeratu dut. Alabaiña, Euskaltzaindiak agindu bizaigu.

BATZUK-BATZUEK. Gurealdiko laburmin-giroak eragiñik lenengoa erabilli dut orain artean. Alabaiña, gure zaharrai jarraiturik, bigarrena darabilket gaurgero.

BATZUTAN-BATZUETAN. Mugatu gabea delarik obeto legoke lenengoa, baiñan, gure aurrekoai jarraiturik, bigarrena erabiltzea obeto ote den nago. Euskaltzaindiak erabaki.

BESTETZUK-BESTETZUEK. "Batzuk-batzuek"-en senide, denez, onen jokabidea jarraitu bear litzakeala derizkiot.

ABESTI-ERESI-KANTA. Ona, itz berri au, *abesti*, alegia, burugabe tajutua, baiñan, errikoitu bidean. Gaur, gure bertsolariak ere erabiltzen digute. Tajugabea izanarren (abo-eres-ti), uka ahal genezaioke bizitzeko arnasa? Askoz obe litzake zentzu onekin *eresi* zabaltzea, *abesti* eta *abestu* asmatzen ibilli gabe, baiñan gure erriak auek ezagunagoak ditu ura baiño. Ontaz, zer dagikegu?

ABIZEN-DEITURA. Emen ere, gurea zaharberritu bearrean, berria asmatu ziguten. Auxen da asmatu bearraren sukarra! Ez ote luke obe alakoak euskerak duena eta eztuena aurrena ondo ikasi? Etzukean ortan lan aundirik, zorigaitzez, Euskalerria eta batez ere euskal-literatura-soroa urri askoak baitira. Itz oen asmatzalleak aitortzen digu etzela irakurzale, ausnarzale baizik. Ainbestean paso, zindotasun onek txalo beroa merezi baitu. Alabaiña, itzetik ortzera, egunean-egunean, Gernika'tik Mutriku'raiño beintzat erriak *albiste* esan oi dio "noticia"-ri. Itz onen aitzea beñepein izango zuen abandotar seme argiak. Zertan asmatu orduan bere ordez *izpar* izenez bataiatu zuen abortu nazkagarria? Zorionez, *abizen* onen aldea poliki tajutua dago eta gure alderdiko euskaldunek ezagun-xamarra dute. Zein aukeratuko?

ERAIL-ERAN. Itzak ez-ezik aditzak eta aditz-jokoak ere asmatzen dira gurean eta burukomin aundirik gabe asmatu gaiñera. Erriak oraiñaldian, *il*'ekin adierazten du "morir" eta "matar" Alabaiña, antziñakoek, "matar" esateko *eran* zeukaten eta "matador" edo "asesino" *eraille* (*entzun*'etik *entzule* bezala). Gurealdian bateonbatek itz onek utzitako utsunea nabaritu zuen eta *eran* ezagutzeke, *erail* asmatu zuen, Azkue'k bere Morfologia'n ematen dizkigun legeen kontra, *era* prefijorik ezpaita, *-ra-* bitartekoa baizik, ots *e-ra-karri, e-ra-man, e-ra-billi* ta ab. Baiñan, kalera bota ziguten eta or dugu *eran*'en

aulkiaz jabeturik. Zer egin? *Eraille* zillegi dugu erabiltzen bi aditzek itz berbera sortzen baitute. *Eran*, ordea, arkaikuegi dela derizkiot gurealdirako eta *edan-eran*'ekin "beber" nahasten erreza da. Onartuko al-dugu *erail*? Euskaltzaindiari dagokio epaia.

JARDUN. Bizkai-euskera egiten den lekuetan transitivoa da, eta, laguntzaillearekin ez-ezik, bakarki ere erabiltzen dute, *diardut, diarduzu, diardu*... Gipuzkeraz eztugu bakarki erabiltzen eta laguntzaillearekin intransitivo eran darabilgu, *jardun naiz, zera, da*... eta ez *dot, dozu, dau*, Bizkai aldean bezala. Au dela-ta, laguntzaillearekin pasivoki darabilt eta aditza berbera erabiltzean aktivoki. Euskaltzaindiaren kontsejutxo bat bear genduke ontan ere.

-EAN. (Biotz*ean*, urdiñ*ean*, larunbat*ean*, zakel*ean*, lurr*ean*...) Gure mintzoa ur-arre eta loitutik xurgaturik naiz nire txipitandik eta enaiz oartu ogeitaemeretzi urteak bete artean, euskaldun jatorrak konsonante ostean beti *-ean* pronunziatzen duela eta sekula ez *-an*. Gure idazle zaharrek ere ez dute sekula uts egiten lege onetan. Ene liburuetan *-ean* eta *-an* nahasmahas dabiltza. Probak zuzentzean geienak zuzendu nituen, baiñan lenbiziko zatian batez ere askotxo labandu zaizkit.

KAI, IBAI, MAI, ZELAI... eta olakoetan *-an* edo *-ean* sufijoa erabilli bear dugu? Gipuzkoa'n bitara erabiltzen ote den nago. Enaiz oartu gure idazle zaharrek xehetasun au nola darabilten. Bidanian egindako galde batzuetan onela eman zizkidaten: *-ean, jaie(a)n, naie(a)n. -An*: *ibaian, kaian, maian, usaian, lasaian, zelaian*. Euskaltzaindiak argi egin bizaigu auzi onetan.

NIRE-NERE-NIRI-NERI. Emen ere Euskaltzaindiaren aolkutxoa bear dugu denak baitira legezko ta zillegi eta idazle zaharretan danetara arkitzen baita. *Nire* ta *niri*'k jatorri zuzeneagoa dute, antza, eta orretxegaik erabilgarriago ditezke.

NAVEGATU, AVENTURA, VALORE... eta orrelako erdal-itz batzuek ezinbestean erabilli bearrean arkitu naiz. Itzok, oraindik beintzat, etxekotu ez dituelako euskerak V'kin ezarri ditut. Erdal itzok, euskeraz erabiltzean, *b*'kin ala *v*'kin idatzi bear ditugun esan bear liguke Euskaltzaindiak. Nik, zalantzan, *v*'kin idatzi ditut erabat erderazkoak diranok.

SAKEL-ZAKEL-SAKELA-ZAKELA. Zein da lauetatik jatorrena ta egokiena? Azkue'k *s*'kin dakar bere iztegian, baiñan, Bidanian beñepein *z*'kin pronunziatzen dute argi ta garbi. Isetseko *a*-itz-gunarena ote da ala eraskiña da? Azkue'k bitara dakar, Gi-

puzkoa'n *sakel* eta Lapurdi'n *sakela*. Euskaltzaindiak esan bizaigu zein den egokiena.

AJOLA ZAIT - AJOLA DIT. Au ere Gipuzkoa'n bitara esaten dela uste dut. *Eztio ajolarik* bortitzago da *etzaio ajolarik* baiño, eta baliteke erri-mintzoan jatorrago. Euskaltzaindiak atera gaitzala zalantza ontatik lenbailen.

JOKATU DU - JOKATU DA. Nire ustez bitara zillegi da. Ez ote litzake egokiena gaztelerazko "jugar"-i dagokiona aktivoan erabiltzea, *Pelotan jokatu du* eta "portarse, conducirse" pasivoan, ots, *gizon ori zuzen jokatu da*? Euskaltzaindia mintza bekigu.

MORO(TAR)-MAIRU. *Mairu* itza gaurko euskaldunek ezagutzen etzutelakoan *moro-morotar* erabilli izan ditut. Alabaiña, gerora esan didatenez, itz au ezaguna omen du euskal-populuak. Bekus Euskaltzaindiak aldatzea komeni ote den.

ZURRI-ZURRIAN. Erriak, nik dakitalarik, sufijo polit au, soil-soilki *merke*-ri erantxita darabil, ots, *Merke-zurri bizi da* edo *Ori beti merke-zurrian ibiltzen da*. Sufijo onen zentzua *billa* bezala da, au da, *merke-billa*, *merke-naiean*, *merke-bearrez*... Sufijo au, ordea, edozein itzetara zabalgarri dela derizkiot eta alaxe egin dut batere bildurrik gabe. Sufijo oni buruz, luzaroan oker batean egon naiz, alegia, uste bainuen au *zur* zela *zurri*' ren ordez. Onetxegatik, ene liburu eta idazlan askotan *zurrean* ikusiko duzute, *zurrian* idatzi bearrean. Irakurleak barkatuko al-didate utsegite au.

NEZAKE-DEZAKET. Danok dakigu, gorpuzketa bereiziko bi aditz-jokuok erriaren aboan esangura berbera daukatela gaurregun, ots, oraiñaldiko potentziala, eta ezin dezakegula bereizi askok nai dutenez, lenengoa gerogarri egiñaz (podría) teorian den legez, eta bigarrena oraingarri (puedo). Euskaltzaindiak auzi onetan bear liguke jakin-erazi bi formak ote diren zillegi ala ez, eta biak erabilgarri izatekotan (gaurko egoeran ala bear duela nik uste), *dezaket*'i laguntasun beroagoa ematea komeni ote den ala ez. Bidanian, adibidez, bi formak oso-osorik ezagunak dituzte, baiñan, batzuetan *nezake* saillekoak erabilliagoak dira eta bestetan *dezaket*' ekoak. Ona emen bi saillak Bidanian erabiltzen diren bezala:

Erabillienak		*Ez ain erabilliak*
Nezake	EKARRI	Dezaket
Dezakezu		Zentzake (Zenezake)
Lezake		Dezake
Gentzake (Genezake)		Dezakegu
Dezakezu (t)eke		Zentzakete (Zenezakete-teke)
Lezakete		Dezakete

Argi ta garbi ikusten da, beraz, bigarren pertsonetan *dezaket* saillekoak dutela nagusitasuna eta lenengoetan eta irugarrenetan *nezake* saillekoak. Badirudi, ontaz, *nezake* saillekoak ugariago direla gaurregun eta gero ta indartzenago ari direla errian. (1). Ikusi dezakegunez, bi alderdiak badituzte beren arrazoiak bizi-eskubideari eusteko. Au dela-ta, nik-neuk, bi formok eskubide berdiñakin erabilliko nituzte. Ez derizkiot, ordea, zillegi *nezake* saillekoai gaur erriak damaion zentzuna aldatzea, gramatikalari zenbaitek egin oi dutenez.

NINTEKE-NAITEKE. Pasivoan ere bi sail ditu oraiñaldiko potentzialak. Oraiñaldi jatorra, gramatikari dagokionez *naiteke* da, baiñan, Gipuzkoan eztut uste erriak iñun darabillenik. Geieneko ere, irugarren pertsonan, toki batzuetan, *daiteke*'ren ordez *diteke* erabilli bide-da, Naparroa'n beintzat *ditake* senidea erabiltzen baita. Oraiñaldi potentzialak erriarentzat Gipuzkoan *ninteke, zintezke, liteke*... dira. Ala ere, ez nago ni *naiteke* saillekoai bizi-eskubidea ukatzeko. Aktivoan bezala, pasivoan ere bizikide izan ditezela bi jokaerak. Ona nire iritzia. Orain, Euskaltzaindiak eman bizaigu berea.

-EAN edo -AN ille izenetan. Ille-izenak *a* eraskiña itz-gunari erantxi diote. Orrela, *ilbeltza*, "enero" da eta ez "el enero", *otsailla* "febrero" eta ez "el febrero"... Ontaz, "en enero", "en febrero", *ilbeltza'n, otsailla'n*... esan bear litzake. Aspaldi ontan, ordea, euskaldun jatorrai erne nagokien auzi ontan eta denai edo ia denai beintzat, *ilbeltzean, otsaillean* e. ab. entzuten diet. Ontan ere, Euskaltzaindiak bere iritzia emango al-digu!

A gunekoa eta A eraskiña *a* gunakoaz ere zerbait esan gura dut. Oraiñaldiko giputz-idazleok bi *a* auek eztitugu ongi bereizi izan itz batzuetan eta badirudi okerrean griñaturik gabiltza-

---

(1) Oraiñaldiko euskaldun-erriak bigarren pertsonan **zu**'ren bearra arkitzen du, **zen** prefijoari ezpaitio zentzunik billatzen. Orregatik nagusitu da **dezakezu zenezake**-ren parean eta arrazoi berberagatik nagusitu zaizkigu **zizkidazun** eta **zizkiguzun, zenizkidan** eta **zenizkigun**-en ordez.

la. Sarritan uste izan dugu *a* letrarekin amaitzen diren itz batzuek, etzirela orrela bukatzen, aurreko konsonantearekin baizik eta *a* ori eraskiña, muga-letra zela, *ardoa*'n, *ogia*'n... bezala. Ene itzulpenean onelako utsik geienak zuzendu ditut, baiñan, lenengo zatian batez-ere, lerratu zaizkit gisa ontako akats batzuek. Adigarri antzo, itz oietan ezagunenak ipiñiko ditut emen, oraiñaldiko euskal-idazleok aurrerakoan zuzendu gaitezen: *makilla, eliza, erregiña, arbola, neskatxa, izorra, egia, gauza*... Itz batzuetan gaitz au erri-muiñeraiño sartua dela aitortu bear da. Aipatutako itzetan, adibidez, baserritarrai aditu diet esaten *neskatx, gauz, egi*. Alabaiña, len etzen orrela, gure idazle zaharrek gunakotzat zeukaten *a* itz oietan, eta berriz ere lenera itzuli bear dugula derizkiot. Itz batzuek, *egia* bezala, bitara erabiltzen ditugu: *egiazkoa* eta *egi batzuek*. Ezin uka *egia batzuek* gogorra dugunik, baiñan, kasu batzuetan *a* naturala egiten bazaigu eta bestean ez, *a* organikuarekin onartu bear dugula derizkiot *egia*'k ezpaititzake bi forma bereizi iduki. *Izorkeri* itza "fornicación" maiz erabilli izan dut ene idaz-lanetan beste norbaiti jarraiturik, ez ura eta ez ni ezpaigiñan oartu *izor* itzik eztela, *izorra* baizik, eta gure erri jatorrak *izorratu* eta *izorrakeri* esaten duela.

-EK, sujeto-eragillea. Bidasoaz besteko gure anaiek (naiz iztun, naiz idazle), sujetoa plurala delarik, beti darabilte *-ek* eragillea, *-ak* pasivotik bereizteko. Esaterako: *Euskaldunek egin dute* eta *Euskaldunak etorri dira*. Bidasoaz emengo euskaldunek eztugu egiten (gure aurrekoek ere ezpaitzuten egin) bereizkuntza egoki auxe. Nik eztut erabateko posturarik artu auzi onetan, baiñan, badirudi, poliki-poliki iparraldeko gure anaien jokabidera natorrela. Komeni ote da penintsulako euskaldunok Auñamendiz aruzko gure anaien bereizkuntza au onartzea? Euskaltzaindia lenbailen mintza bekigu ontaz eta bere esanetara gauzkazuke.

LAGUNDU-DEITU-BEGIRATU. Gipuzkoa guztian beñepein, irurak dativo eran erabiltzen ditugu eta gogorra egiten zaigu pronominal eran erabiltzea. Ots, *deitu dizut* eta ez *deitu zaitut, begiratu diot* eta ez *begiratu dut, lagundu didazu* eta ez *lagundu nauzu*. Alabaiña, gramatika-kontrakoa dugunez au eta Lapurdi-Zubero-Naparroetan *deitu zaitut* eta abar erabiltzen delarik, zer jokabide artu bear dugu giputz-idazleok? Nik, orain arte, eskuarki, Gipuzkoako oitura errespetatu izan dut, baiñan, Auñamenditar anaiei jarraitzea obe litzakeala derizkiot. Ontan ere, betor lenbailen Euskaltzaindiaren aolku zuhurra.

BAZKALDU, APALDU, JARRAITU, JARDUN, IRTEN (URTEN) eta beste olako aditz batzuek, berez intransitivoak izanik, transitivo bezala erabiltzeko jokera dakarte Bizkai-aizearen eragiñaz. *Bazkaldu* ta *apaldu* erabat transitivo biurtu zaizkigu Gipuzkoa guzian; *jarraitu* gurean esaterako galdua dugu eta *jardun* eta *irten*, Ernio mendi-lerroraiño transitivo biurtu zaizkigu. Eraso gaizto oni erabat eutsi egin bear al-diogu, edo aitzitik, izurrite-oldarrari eutsi eziñean ateak neurriro zabaldu?

DUT-DET-DOT. Euskal-aditzean, zorigaitzez, aldakuntza asko eta batzuetan aundiak ditugu euskalkitik euskalkira eta gaurgaurkoz ez dezakegu itxaro aditzaren batasun osorik. Baiñan, batasun orri asiera emateko (eta aurreneko urratsak ematen asteko garaia dela uste dut, noizpait batasunera iritxiko bagera!) ez ote litzake egokia Euskaltzaindiak aditz-jokorik oiñarrizkoenetan ta aldakizun urrikoetan konjugaziño-tipo baten aolku egitea? Orra ba; *dut* eta *naiz* dira oiñarrizkoenak. Ontan ere ez al-dugu euskaldun guziok bat artuko? Euskaltzaindiak erantzukizun aundi bat dauka deslai gabiltzan euskalidazleoi orientaziño bat emateko. Adigarri antzo aipatutako iru forma oietan nik aspaldidanik lenengoa dut aukeraturik, baiñan, Euskaltzaindiaren baiezkorik eta ezezkorik gabe eta urteak joan, urteak etorri, lagunarte au alderdi batera edo bestera mintzatu-zai gaude, ezpaitugu izan gura anarkia sortzaille, batasun eragille baizik. *Dut*'en aldeko arrazoiak, ene ustez, erabatekoak dira. Besteak ez bezalako joka-lege berdintasuna baitu eta besteak baiño sustrai sakonagoak eta giartsuagoak literaturan. Euskaltzaindiak luzaro gabe egingo aldigu oiu *dut* tankeraren alde!

BAIDUT-BAITUT-BAIZAN-BAITZEN. Bi tankera auetan ere, Gipuzkoakoak arbuiaturik, Auñamenditarrak onartu ditut, Axular eta bere ingurukoai omen egin-zale. Ala ere, Euskaltzaindiak besterik agindu ezkero, Gipuzkoako tankerak onartuko nituzke. Mintza, ordea, mintza, Euskaltzaindi!

EROR-ERORI, ETOR-ETORRI, AR-ARTU, EKAR-EKARRI, t. ab. Mitxelena eta Txillardegi jaunak adierazi digute Bidasoaz onuzko euskaldunei, ez ditezkeala erabil lenengo tankera mugatu gabeak indikativoan, guk noiznai egiten genduen bezala. Ene itzulpen ontan, makiña bat olako garaiz zuzendu ditut, baiñan, baita beste asko itzuri ere bigarren probaldiaren faltaz. Iparraldeko euskaldunek, lenengo formak uts egiteke darabilzkite, subjuntivoan, potentzialean eta inperativoan. Gipuzkoa-Bizkaietan, berriz, inperativoan erabilli oi da batez ere, ez ordea autsi eziñeko lege bezala. Ad. *Ken akit, artzazu, ekartzak* (*ekatzak*), *buka zazu, bedeinka gaitzala, ar dezala, ikus dezagun*...

eta beste olakoxeko aditz ezagun batzuetatik ez gera ateratzen. Baiona magaleko Euskalerrian, ordea, lege au izugarri zorrotz aplikatzen dute, ots, indikativoan beti aditz osoa eta gaiñerakoetan (*-i* edo *-tu* bukaerako aditzetan), azken letra auek kendurik. *Aurrak ikas-azue*, diño ango kantu ezagun batek. "Gazte", Baiona'ko aldizkari xarmantak, onelakoak jartzen dizkigu illero-illero: *Lagunt "Gazte"* (*ezazute*), *Ideiak ager* (*itzazute*), *Eda "Gazte"* (*zazu edo zazute*). Iru eredugarri auek, inperativoak direlarik gero, ots, gurean ezagunenak, gogorrak egiten zaizkie Lapurdi'ko euskerara oitu gabeai. Beraz, ez beza luzetsi gure Euskaltzaindiak aditz-tankera auek zer neurritan erabilli bear ditugun aditzera ematen. Erakuspide onen bear aundia dugu eror eta kolpa ez gaitezen (1).

IGARRI, EKIN, JARRAITU. Iru aditz oek eta orain gogoratzen enaizen besteren batzuek ere baliteke, dativo eran erabiltzen ditugu: *Igarri diot* (*asmakizunari*), *ekin diot* (*lanari*), *jarraituko zaio* (*txapelketari*) t. ab. Lege au naita-naiez betebearrekoa ote da, ala idazlea esku-jabe da komeni zaiolarik lege au urratzeko?

H letra. Egoaldeko euskal-idazleek erabilli bear ote dugu letra au gurean pronunziatzen eztalarik? Iparraldeko gure anaiek

---

(1) Aita Omaetxebarria gai onen erro-erroraiño murgildu zaigu eta ezin obekiago aditzera ematen digu zergatik indikativoak gordetzen duen **ikus(i)**, **garbi(tu)**, aditz-tankeretan mugagarria eta zergatik galtzen duen gaiñerakoetan. Mintza bekigu bera: ...«bein baiño geiagotan esan da, inperativoan, subjuntivoan eta potentzialean bearrekoa dela **-tu** edo **-i** sufijo mugagarriaren erauztea, Erronkari'ko, Zuberoa'ko eta Lapurdi'ko euskalkietan; Gipuzkoako euskalkian, ordea, ez erabat, baiñan, antziña, euskalki guzietan. Nire ustez, aditzaren sufijo mugagarrion erauzteak, aditzak daraman laguntzaillearekin dauka zer ikusi eta ez aditz-moduakin. ***Edin** eta ***ezan** aditz-gunak **-tu** (edo **-du**) eta **-i** sufijoen erauztea eskatzen zuten euskalki guzietan eta modu guzietan. Adibidez, alaxen diño Leizarraga'k bere T. B. an: **ethor zedin**, gure **etorri zen** esateko, ots, indikativo zentzuarekin. Onatx, auzi onen korapilloa. ***Ezan** eta ***edin** aditz-gunak, aipatutako aditz-moduak osatzeko onartuak izan ziren eta orrela, sufijoaz murriztutako aditzak eta potentzial, inperativo eta subjuntivoko aditz-laguntzailleak senidetu egin ziren. Bizkaieraz ere onelakoxeko adigarriak ditugu: **gure arimak gal etzitezen** (Añibarro, Eskuliburua, 203-10). Eta «Refranes»-etan ere ***ezan** aditz-gunaren erabilkizun aundia egiten da, oraiñaldian eguzkialdeko euskalkiena izanarren soilki: **Acti bero ezak labea ta zarra** (Refr. 179). **Azarkuntzeak bildurra uxa bez** (Rfr. 155). **Uler ezak lenago** (Refr. 179). Oar gaitezen, **azarkuntzea** eta **labea** bezalako Bizkai-kutsudun itzen aldean **bez** eta **ezak** aditz-jokoak agertzen direla; beren exertokian **begi** ta **egik** jarri zaizkigu oraiñaldian. Baiña, orratx: **egin** aditz-gunari, ***ezan**'en zentzu berberarekin erabillirik, sufijoa murriztu gabe eraxten zaio aditza: **artu begi** (eta ez **ar begi, ar zak** esango litzakeanez) esan zuen Mikoleta'k: **guardadu badagizu** diño gure textoak eta ez **guarda badagizu, kanta badezazu** edo **bazeneza** esango litzakeanez» («Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País», Cuaderno 3, 1948, 313-14 orrialdeak).

erabil ezpalezate, itxu-itxuan ezetz esango nuke. Baiñan, emen dago korapilloa! Aiek, neurri larriagoan edo txipiagoan naitanaiezkoa dute eta onetxegatik, euskal-ortografiaren batasunera iritxi nai badugu, gure baratzean apaingarri gisa (ez bearreko dugulako) onartu beste alderdirik eztugu. Onela ez egitekotan, euskal-ortografiaren batasun osorik eztugu sekula izango eta au penagarri litzake. Pronuntziatzen ezten *h* bat noizik bein tartekatzea eztut uste pekatu aundia denik eta traba edo begimin aundirik egiten duenik. Gure auzo izkuntzetan amaika larriagoak baditugu. Gazteleraz, adibidez, toki askotan (geienetan ez ote?) *v* letrarik ezta pronunziatzen, *b* baizik, eta ala ere, idatz-legean *v* errespetatu egiten da, toki batzuetan pronunziatzen delako eta jatorriz ala zelako, noski. Gazteleraren erresuma zabaletan iñori eztio miñik egiten *v* onek eta nik dakitala iñork eztu serioki esan baztergarri denik, berak pronunziatzen eztutelako. Zer irizpidez baliatu bear dugu, ordea, euskal-*h*'a erabiltzeko? Letra bikietan (ots, *aari, aal, aaztu, maats, beera, mee, xee*, t. ab.) beti erabilli bear gendukeala derizkiot, beren jatorriaren omenez, antziña *h*'dunak baitziren itz oiek, eta tarte egoki bat jartzen baitu *h*'k bi bikien artean. Gaiñerako kasoetan Euskaltzaindiak zuhurki jokatu bearko luke: *h-au, be-h-ar, ik-h-usi*, ots, itz asierako *h*, bi vokal desberdin artekoa eta konsonante ostekoa erabilli bear ote diren ala ez erabakitzeko. Nola-nai ere, Euskaltzaindiaren iritzia gai onetan lenbailen jakin nai genduke.

DIZKIO-DITIO. Lenengo tankerak, ots, plurala egiteko *z*'az baliatzen denak, aldakuntza oiek ditu gutxieneko: *dizkio, dizka, dioz, dizko, diozka, daizko, dazko, dazkio, dazkau* eta Bizkaiko *deutsaz*. Bigarren tankerak berriz, ots, plurala *it*'ekin egiten duenak eztu aldakizunik, toki batzuetan laburtuz *ttio* esaten badute ere. Alderdi ontatik *ditio* obea dugu, eta badu beste bentaja bat ere, alegia nun-naiko *ditut*'ek bezala egitea plurala. Nik uste, Orixe'k *ditio* zabaltzeari ekin zionean alderdi on auetxek ikusi zizkiola eta oso gogo-beroturik jardun zaigu tankera onen alde. Zoritxarrez, ordea, eztitu ikusi *ditio*'ren alderdi txarrak, edo eztitu beñepein aintzakotzat artu. Izan ere, *ditio*, napar-euskalkiko zati batean bakarrik erabiltzen da (1) eta okerragoa dena, eztauka literatura tradiziñorik, nik dakitala beintzat. Aita Mendiburu, esaterako, oiartzuarra dugu, *ditio*'ren barruti bete-betekoa, alegia, eta bere liburuetan *z* plu-

(1) Ikusi: Pedro de Yrizar, «Desarrollo y formación del verbo auxiliar vasco» («Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País», Cuaderno 4, 1948, 484'gn. orrialdea, Mapa 5).

ralgillea darabillela uste dut, Otoitz-gaietan beintzat. Onela: *dizkitzu, dizkidatzu, dizkigu, diozkatzu, zizkitzun* eta abar. Tankera onetan, literaturan tradiziño aztarnik eztaukaten aditz-joko asko ta asko sartu nai izan dizkigu gure Orixe'k, Naparroako zoko batean edo bestean erabiltzen direla eta beste arrazoirik gabe. Jokabide onek anarkia batera garamazki. Orixe baten maillako gizonak, asko edo gutxi, beti baitaramate jendea atzetik. Ni neroni ere, Orixe'ri jarraiturik (ezpaitut uste beste iñork erabilli duenik aditz-jokatze au) joateko zorian egon nintzen (*ditio* auzi onetan) bolara batean, arestian aipatu ditudan *ditio*'ren alderdi onak eraginda. Zorionez, ordea, atzera egin nuen eta enaiz damu. Ala ta guziz ere, Euskaltzaindiak agindu bizaigu auzi onetan eta bere esanetara makurtuko naiz. *Z* pluralgillea daramaten tankera guzietan zabalduena eta egokiena, Bidasoaz onuztik, (literatura alorrean ari naiz) *dizkio* da eta zalantzik egiteke onen alde jo bear dugula derizkiot (1).

ERITZI. "Llamarse" edo "parecer" zentzuarekin aktivua da eta *jarraitu, igarri* eta *ekin* bezala, dativo eran erabiltzen direnetakoa. *Zer deritzazu* (edo *derizkiozu*) *oni*?, ots, "que te parece esto?". *Mendi oni Andatza deritza*, au da, "este monte se llama Andatza". Nik, ordea, ez nion igarri aditz onen aktivotasunari eta oraintsu arte pasivo eran erabilli izan dut. Mitxelena-Elizalte jaunak oarterazi ninduen nire okerraz eta nire itzulpen ontan onelako utsegite denak edo geienak zuzendu ditut.

NAI-GURA. Gaztelerazko "deseo" adierazteko Bizkaitarrek *gura-gure* darabilte eta gaiñerakoek *nai-nahi*. Alabaiña, aspaldi zaharrik gabe, orain baiño barruti zabalagoa zeukala egingo nuke, Gipuzkoako *logure, parregure, azkure* eta olako batzuek adierazten digutenez. Gure Mendiburu'k ere, Naparroa mugakoa izanik badarabil. "Ekusten duzu zein laister eta zein goiz ari zen gure Jesus guri erakusten nola garaitzen diran begien

---

(1) **-It** pluralgille au, ordea, iketan erabil diteke txit egoki, kasu ontan, alegia: **Joxe'k ikusi ditik (d-it-i-k) mendiak,** Napar-Lapurtar-Zuberotarrek egin oi dutenez, ots, zukako **ditu (d-it-u)**-ren ordez. Betelu eta Azpeiti aldean **zetik** esan oi dute, oker ezpanago, baiñan, Lapurdi aldeko tankerak eskubide geiago duela deritzait literaturari eta gramatikari dagokionez. Bizkaitarrek **jituzak** esango lukete adizkera au. Onela bereiziko genduke dativoko kasutik, ots: **Joxe'k ekarri dizkik (d-i-zki-k) sagarrak iri,** zukako **dizkizu,** alegia. Bizkaitarrek **deubaz** esango lukete. Gipuzkerarik jatorrena egiten den alderdian eztitugu bereizten bi tankera oiek, bietan **dizkik** esaten baitugu eta mesede aundia genduke gaiñerako Euskalerri guzian bezala bereiziko bagenitu. Ene idaz-lanetan gaurdaño eztut bereizkuntza au egin, baiñan egin bearrekoa litzakeala derizkiot. Ontan ere Euskaltzaindiak egin bizaigu argi.

arinkeriak eta gogoaren *gura* gaistoak" (2). Arrazoi auetxegatik erabilli dut nik ere ene itzulpenean, *nai*'ek eta onen aurreko beste *n* batek alkar jo bear zuten garaian. Orrela: *Etzuen gura, etzuen nai* ezarri bearrean.

EZEN (ZE), konjunziñoa eta ZEIÑEK, ZEREN (ZERREN), NON, NOLA, galdegarriak erabilkizun ontaz lekora. Gure idazle zaharrek, erdal-joskera ta esakerak ispillutzat arturik, ikaragarrizko euskal-abortuak sortu zituzten aipatutako itzaz baliaturik. Auñamendi'ko *ezen* eta Bizkai'ko *ze* konjunziñoa, nundikan atera zituzten ere eztakigu, orrelako joskerak zentzurik ezpaitu euskeraz eta nire iritzian Aranakeri guziak baiño okerragoak ditugu arrotz kutsuko esakerok. Gure Azkue aundiak bere Iztegi paregabean Bizkaiko *ZE* itxuragabe oni "palabreja" esaten dio eta eztut uste onek eta bere senideak omen aundiagoa merezi dutenik. Nire ustez, auek guziak ziaro arbuiagarri dira, naiz-ta Axular paregabeak itzetik ortzera erabilli aldi artako oiturari jarraiturik, arrotz-pentsakeraren emankizun ditugulako eta esakera auek onartzea euskerari odol-aldaketa egitea delako, euskera animaz erdalduntzea. Idazkera iguingarri onen aipamenik ere ez nuke egingo, baldin, aspaldian egotzi genduen izurrite au berpizten buru-belarri saiatuko ezpalira gurealdiko euskaltzale batzuek eta bildur naiz batzu-batzuek Euskaltzaindian bertan finkaturik ez ote ditugun... Idazle erneberriok, oraiñaldiko euskal-aintzindariek erabat zapuztuz eta gaurkoei onean eta txarrean kontrakoa eramateko amorrazioak eraginda, zaharretara anka ta buruz irauli zaizkigu, aietatik datorkigun landare mardula ez-ezik, belar txar guziak ere onartu bearrean. Euskal-pentsakera jatorra eta euskal-itz jatorrak baiño, maiteago dituzte alakoek erderatikoak eta aietan dute atsegin, beren adimena erdal-adimena baita eta euskeraren arrobi jatorrera jo bearrean gure izkuntzaren apaingarri billa, erdal-arrobiko txerrenda opa diote. Eta ala ere aitortu bear dugu euskera gazteleraren bidez eta kimikaren bidez loitzen eta narrasten ari zaizkigunak borondaterik onenaz ari zaizkigula, ots, euskal maitasun sutsu batek eraginda. Erruki ditzagun bi taldeok, baiñan baita arbuia ere, beren okerra eta ogena argi ta garbi salatuz. Garaia da oiu egiteko: ez ezkerrekoekin (Aita Berriatua), ez eskubikoekin (Aita Arriandiaga), ez erabat idazle zaharrekin, ez erabat idazle berriekin. Bai, ordea, zahar-berriekin, bakoitzak duten ona xurgatuz eta txarra zapuztuz... Axular aundiaren "Gero"-tik

(2) «Otoitz-gayak», irugarren liburuko 66'gn. orrialdea, 1759'ko ediziña. Ikus ditekeanez, aurten dugu liburu eder onen bigarren eun-urteurrena.

aterako ditugu adigarri batzuek, zorigaiztoko izurrite ontaz ziaro kutsatua baitugu Sara'ko erretorearen liburu miresgarria: "Eta irakin hartarik ilkitzen da ke bat, lanbo bat. *zeiñek,* —Poetak dioen bezala— itsutzen baitu adimendua". Onela zuzendu: "Eta irakin hartarik, —Poetak dioen bezala— adimendua itsutzen duen ke bat, lanbo bat ilkitzen da". "Nik uste dut, *ezen,* munduko ararteko guziek eztezaketela zure etsaia *hala* balaka eta ez sosega, *nola* zerorrek". Onela zuzendu: "Nik uste dut, munduko ararteko guziek eztezaketela zure etsaia balaka, zerorrek bezela". "Zergatik uste duzu, *ezen,* aberatsak egiten duela irri probe eta errumes deitzen dutenean? *zeren* klar baita eztela hala, eztela errumes". Onela zuzendu: "Zergatik uste duzu, bada, aberatsak egiten duela irri probe eta errumes deitzen dutenean? Argi (ikusten) baita eztela hala, eztela errumes", "*zeren* iduritzen zait *ezen* oraino bizi zarela". "Iduritzen baitzait oraino bizi zarela". "*Zeren, nola* ur otza baita eltzearen irakinaren gelditzeko erremedioa"... "Ur otza eltzearen irakinaren gelditzeko erremedio den bezala"... "Ziro enperadore handi hura, ain itsutu eta ergeldu zuen Apama bere amoranteak, *non* hartzaz nahi zuen guztia egiten baitzuen". "Apama amoranteak Ziro enperadore handi hartzaz nahi zuen guztia egiten zuen, hain itsutu eta ergeldu baitzuen!" Bizkai'ko *ze* bat orain: "Zagoz or puska batean, *ze* eztakit nor dan". Onela zuzendu: "Zagoz or puska batean, nor dan eztakiteta", edo gipuzkeraz: "Zaude or puska batean, ezpaitakit nor dan". Gipuzkoa'ko *non*: "Ain arrigarri arkitzen det ar bat inguma biurtzea, *non* il bat piztea". "Il bat piztea bezin arrigarri arkitzen det (dut) ar bat inguma biurtzea". Orrelako esakerakin ez genduke bukatuko eta aski dugu ainbestean. Gogoan artu, ordea, nik egindako itzulpenok, gazteleratik egiñikoak bezalaxe direla, jatorrizko esaldiak erdal-adimenez josirik baitaude eta onetxegatik ez dezaketela iduki ideia berberak euskal-adimenez arroturik eukiko luken bizitasun eta diztirarik. Esakera auen aldekoak esaten digute, euskera, espresiño tankera berriaz aberastu egingo gendukeala beroiek onarturik eta gaur motel ager ditzakean espresiño asko zeatzago ta bortitzago emango lituzkeala. Alakoek, nunbait, gaztelerazko pentsakera darabilte ausnarka, nik beñepein, orain artean, eztut sekula esakera arrotz oien premiarik sentitu izan, nire ideiak zeatz, bortiz eta borobil itzultzeko. Ezta "Xanti Andia"ren itzulpen ontan ere, erdal-adimenaren morroi ari nintzelarik, gero. Eztut uste itzulpen onek espresiño indarrean eta ideia zeaztasunean ezertxore galdu duenik, *ezen* eta bere senide xaxpikiak bazter-

turik, eta bestalde, euskal-gogoaren jatortasunean asko irabazi.

NIK DIRUDIT-NERI DIRUDIT. Bi konjugaziño-tankerok zillegi zirela uste nuen oraintsu artean. Mitxelena-Elizalte jaunak, ordea, aditzera eman dit lenengoa bakarrik dela jatorra eta zuzena. Bigarrena, nunbait *neri iruditzen zait*-en antzera sortu zen, baiñan, sasikoa dugunez (gure idazle zaharrek ez omen darabilte) baztergarri da. Beraz, nire itzulpen ontan ager ditezkean guztiak Euskaltzaindiak alda bitza.

IRUDI ZAIT - IRUDITZEN ZAIT. Euskaltzaindiak adieraz bizaigu bigarren tankera adierazteko lenengoa zillegi ote den.

ZENBAT LEKUTAN, GURE MENDIETAN. Mitxelena-Elizalte jaunak aditzera eman didanez, gure idazle zaharrek beti bereizten omen zituzten indeterminatua eta plurala, lenengua *ta'* rekin egiñaz eta bigarrena *eta'*rekin. Nik, lege ontaz oartzeke, plurala nolanai erabiltzen nuen, naiz *gure mendietan*, naiz *gure menditan*. Indeterminatua, nire ustez, beti edo ia beti *ta* erabilli izan dut. Tankera ontako itzulpen guziak zuzendu bitza Euskaltzaindiak.

DAMU DUT-DAMU NAIZ. Aditz onen pasivutasunari atxikirik, *damu naiz, damu nintzan...* erabiltzen dut aspaldi ontan. Idazle zaharrek, ordea, *damu dut* erabiltzen zutela uste dut. Euskaltzaindiak agindu bizaigu nola erabilli.

ONEN GAIÑEAN (ITZ EGIN). Esakera au bidezkoa ote da euskeraz, ala ez? Idazle zaharrek itzetik ortzera zerabilten, baiñan, gazteleratik aldatutako pentsakera zelakoan, gure aldiko idazle goituek erabat gaitzetsi zuten. Oraingo zaharzaleek ateak zabal-zabal egin dizkiote berriro eta ona esakera onen zillegitasuna auzitan. Nik ere, erdal-pentsakera somatuz tankera ortan eta gure aldiko giroaren eragiñez, ziaro baztertu nuen, eta bere ordez, *ontaz itz egin* edo *oni buruz itz egin*, erabilli izan dut. Gerora oartu naiz, ordea, bai erriak eta bai gure bertsolariak maiz xamar darabiltela *onen gaiñean*. Beraz, jatorriz erdal-adimenduna izanarren, nik ontzat artuko nuke, beste biekin batean, erriak onartua baitu aspaldian. Demostrativoaren ordez, sustantivo bat ezarririk, iru era oietan erabilli liteke ene ustez: *gizonaz itz egin, gizonari buruz itz egin, gizonaren gaiñean itz egin*. Sekula ez, ordea, oraingo idazle askok idazten dutenez, *gizonatzaz itz egin*. Era au gurealdiko izurritea dugu, gure zaharrek ezpaitzuten sekula orrela idazten. Nik eztakit, euskal-entzule batentzat ain gogorra izanik (niri beñepein belarriak lertu egiten dizkit) nola izan duen alako arrera gaurko idazletan.

OTZAK NAGO, BEROAK NAGO, EGARRIAK NAGO, GOSEAK NAGO... Gure erria, Gipuzkoan beñepein orrela mintzo zaigu soil-soil-

ki. Eztut uste iñun esaten denik, Zabala-Arana'k nai zukeanez, *otz naiz, bero naiz, egarri naiz, gose naiz*... eta ezta ere soiñekoz euskaldun eta gorputzez erdaldun direnak esan oi dutenez: *otza daukat, beroa daukat, egarria daukat, gosea daukat*... Alabaiña, era auek, erdal-adimendunak izanarren, erabat gaitzetsi bear ote ditugu? Zorrotzegiak izatea ere ez ote da kaltegarri? *aurrak beroa dauka* edo *aurra bero da* esaten badugu euskalgogoa zauritzen edo iltzen ote dugu? Ez ote litzake komeni zaulitasun geixeago, gogo-zabaltasun geiago olakoetan? Nire ustez ertsiegiak gera gauza askotan, eta espresiño bide bat baiño geiago onartzen baditugu, berez ain jatorra eztena, dotoreago edo egokiago izan liteke eleder-une batean. Onen antzekoa gertatzen zaigu *euria ari du, elurra ari du*, eta olakoekin. Badakigu erriak beti orrela esaten duela, baiñan pekatu ote litzake *euria ari da* esatea? *Ari izan*, pasivoa dugu berez, *lanean ari naiz* esaten baitugu eta ezin uka *ari du* gogorragoa denik *ari da baiño*. Erriaren esakerok, beste luzeago batzuen laburpenak dira, noski ots, *goseak* (*artuta*) *nago, zeruak* edo *egualdiak euria ari du* edo zerbait olakotsu. Baiñan, esaldiaren osotasuna galdu dugun ezkero, naitanaiez eta uneoro eutsi bear al-diegu tankera zaharrai? Nik eztut baietzik eta ezetzik esaten, galdera egiten dut soil-soilki, auzi onek ausnartzea eta estudiatzea merezi baitu. Euskaltzaindiak erabaki bat artu arte gai ontan, orain arte bezala, erri-bideari jarraituko natzaio. Alabaiña, bidearen estuegiak sarritan, idazleok ito egiten gaitu eta zabaldu-miñez jarduten gera.

BARATZ ala BARATZA, erabilli bear ote dugu gaztelerazko "huerta"? ANAI ala ANAIA, gaztelerazko "hermano"?

EGI ala EGIA, gaztelerazko "verdad"? Bitara baitut itz auen aitzea.

ETOR BANADI, ETOR BANENDI, EGIN BADEZAT, EGIN BANEZA. Forma arkaiku auek, gaur onela esaten ditugu: *Etortzen banaiz, etorriko banintz, egiten badut, egingo banu*. Euskeraren muiña eta gatza lenengoetan dagoela dudarik ezta, baiñan, gaurko euskaldunai arrotz edo beñepein bitxi egiten zaizkiela esango nuke. Beraz, komeni ote da forma zahar auek berpiztea? Nire iritzi txiroan emeki-emeki sartuaz joan bear genduke, oraiñaldiko irakurlea oitzen joan dadin. Berdin gertatzen zaigu *eror nadinean* edo *egin dezadanean* aditz tankerakin. Orain, *erortzen naizenean eta egiten dutanean*, esan oi dugu, baiñan tankera zaharrok berpizten saia bear gendukeala derizkiot. Euskaltzaindiak dauka itza emen ere.

NEKIN-NEKIEN, NENGON-NENGOEN, ZIARDUN-ZIARDUEN, DAKIN-DAKIEN, DAGON-DAGOEN... Auek ere laburretik luzera aldatu ditut

nire zuzenbidean *edun laguntzaillaearekin egin dutan bezalaxe. Ontaz, *nuen* eta *nituen* bezala, *nekien, dakien, zegoen* eta abar onartu ditut. Euskaltzaindia mintza bekigu ontaz ere.

NINDUZUN-NIÑUZUN, ZINDUTAN-ZIÑUZTAN, NINDUTEN-NIÑUTEN. Gure idazle zaharretako literatura-formak lenengoak dira eta erriak darabilzkienak bigarrenak. Nire itzulpenean bietakoak erabiltzen nituen, baiñan, ahal dugularik tankera guzietan idazkera batera jo bear dugu eta batasunerako biderik egokiena eleder-zaharra dugun ezkero, gure idazle zaharren formak onartzea erabaki dut, ots, *ninduzun, ninduen, zinduten*... Euskaltzaindia mintza bekigu ontan ere.

AMAITZEKO: Euskaltzaindiak *ika*'ren erabilkizuna mugatu bear liguke indikativoaz kanpo. Ots, potentzialean, pertsona guzietan ote den erabilgarri (*nezakek, ezakek, dezakek*..., *nintekek, intekek, ditekek*...) Nik baietz uste. Inperativoan nire ustez bigarren pertsonetan bakarrik: *egin zak ik.* Subjuntivoan, berriz, bigarren pertsonan ere erabilgarri ote den eztakit... Erlatibu tankeran, berriz, indikativoan ere arbuiagarri derizkiot, bigarren pertsonan izan ezik, ots, *ik ikusi dekan etxea.*

Zokoak obeto arakatuz makiñatxo bat korapillo geiago sortuko litzaizkidake; baiñan, ainbestean aski dugu. Euskaltzaindiak, berak oi duen zuhurtasun eta jaiotasunez bide illun oietan argi egingo al-digu, sastraka, lar, osin eta belar gaizto guztiak garbituz, euskal-landarea jori, eder eta mardul azi dadin gure eleder-baratzean.

Donostian, Urrillak 28, 1959. *Jon Etxaide*

A. Irigoyen: Bost minutoko deskantsua emango degu. Or jarri dituzte Mogel-en liburu argitaratu batzuek eta norbaitek ikusi nai baldin baditu ikusteko daude. Deskantsua bukatuta itzaldi onezaz norbaitek ezer esan nai baldin badu aldia eskatu eta esan dezake.

Deskantsua bukatuta Mitxelena jaunak eskatu du itza.

L. Mitxelena: Emen Etxaide mintzatzen ari zan bitartean nik zenbait nota artu ditut eta zerbait esan nai nuke. Nola Etxaide jaunak Euskaltzaindiaren iritzia edo erabakia eskatu duen zenbait gauzatan, nik eztezaket, Euskaltzaindia ez naizen ezkero, eztezaket Euskaltzaindiaren erantzunik eman, baiña zerbait esan nai nuke, berak ukitu dituen gaietan zein diran, nere ustez, Euskaltzaindiak erabaki ditzakeanak eta zein diran ezin erabaki ditzakeanak gutxi gora beera. Baiña ori, esan dudan bezela nere iritzia besterik ezta. Nere ustez lenbiziko oiñarria au da: Gu —Euskaltzaindia eta danok— euskeraren batasunaren alde gabiltza. Ori da

gure gogoa. Eta beti begiratu bear genduke ia gure asmoak, gure erabakiak eta gure bideak batasunera ote daramaten ala ez. Nere ustez, azken urteotan Gipuzkoan, eta orain enaiz Bizkaiaz ari, Gipuzkoan zenbaitek, gipuzkera osotua izango zala etorkizuneko euskera esan zuten ezkero, uste dut ori aditu dugula era onetan: Euskaldun guztiok jo bearko dute guk gipuzkoarrok nai dugun bidetik. Jakiña, Azkue-k gipuzkera osotua esaten zuenean etzuen ori esan nai, baiña ori da guk artu dugun era. Beraz, nere ustez, len esan dudan bezela, batasunaz, beintzat euskalkiak elkarrengandik ez geiago bereiztea izan bear luke Euskaltzaindiaren asmoa eta gure asmoa ere bai. Jakiña, Euskaltzaindiari Aita Santuari bezela iñork utsik ezin egitea eman eztion ezkero, beste edozeiñek bezela uts egin dezake gai ontan, uts egin zezakean eta uts egin dezake orain ere. Beraz, ar ditzadan Etxaide jaunak ukitu dituen gaietatik zenbait, eta ikus dezagun ia erabaki ditezkeanak diran ala ez. Bat: **Apari** eta **afari.** Gogoan euskaldunak badauzkagu, euskaldunak eta ez gure erriko izkera, orduan au agertzen da len ikusi dugun bezela, eta Añibarrok Mogeli esan zion bezela. Bizkairik geienean, Lapurdin, Baxenabarren, Zuberoan, Nafarroa guztian **f** esaten da. Esate baterako **afari,** parkatu, **afari** ezta itza oraingo aukerakoa gauza batengatik, Zuberoan eta Erronkarin **afari** itz ori eztutelako esaten iñola ere. Baiña gaiñerako guztiak **afari.** XVI-garren mendean **afari** itza agertzen dan leku guztietan **f**-kin agertzen da. XVII-garren mendean, nik dakidanez, **afari** itza agertzen dan leku guztietan **f**-kin agertzen da. XVIII-garren mendean, gipuzkoar guztiak, Ubillos-ek, Larramendi-k eta gaiñerakoak **afari** eskribitzen zuten beti. Beraz, or nai ta naiez gipuzkoarrok amor eman bear diotegu gaiñerakoai, eta aiek bezela **afari** idatzi bear dugu, nere ustez, eta gai ontan **afari**-ren alde erabakia artu diteke. Ori da nere iritzia.

Beste bat. Egia da Etxaidek esan duen bezela **dezake** eta **lezake** Gipuzkoan ziaro nastuak daudela, baiña egia ere da, beste euskalkietan, zenbait euskalkitan beintzat, eztaudela nastuak. Bigarren, idazle guztiak, baita gipuzkoar guztiak ere —lengoak beintzat— berezi izan dituztela. **Egin dezake** da «lo puede hacer» eta **egin lezake** «lo podría hacer». Uste dut, liburuetan, gipuzkoarrok besteekin batera jo bear dugula or ere, liburuetan. Jakiña, emen beti bi mailla artu bear ditugu. Bata da, bearrezko zenbait gauza adierazteko euskeraz esaten edo idazten diran gauzak, eta bestea beste mailla batean egin nai diren gauzak. Beste mailla ortan uste dut on litzakeala gipuzkoar idazleak besteren oituren berri jakin eta era ortara moldatzea. Eta nere ustez ori da Euskaltzaindiak erabaki bear lukeana.

Goazen beste batera. **Ken bedi, ken adi, ken akit, kendu akit**

eta gaiñerakoak. Oitura au bi eratara nastu da. Gaur ez Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoakoak bakarrik, baizik nafar ia guztiak aiek bezela esaten dute. Eta **ikus dezake, ikus beza** eta **ikus dezagun.** Gauza garbi xamarra dirudi lenago euskaldun guztiok erabat egiten genduela. Gaur, egia esan, Gipuzkoan inperativoan bakarrik kentzen diogu **-tu** ori geienetan, eta ez beti. Eta Bizkaian, dirudienez, geroago ta gutxiago. Beraz, badirudi, zenbait esaera aspaldiko, zenbait antziñako esaera kendu ezkero, baztertu ezkero, gaiñerakoan beti **-du** edo **-tu** ori sartzen dala Bizkaian. Jakiña, nere ustez, Euskaltzaindiak ez dezake txarretsi sortaldeko euskaldunen oitura. Nola gaitzetsiko du geienak seguraski, euskaldunik geienak, oitura ori baitute. Bestetik, gipuzkoar bat bere izkeran edo bizkaitar bat bere izkeran ari danean **kendu zaitez** jartzen baldin badu eztut uste ori ere Euskaltzaindiak gaitzetsi dezakeanik. Beraz, nere ustez, Gipuzkoan edo Bizkaian **ken zaitez** edo **kendu zaitez** zillegi lirake. Baiña bada oitura bat gaurko idezle askotan oso sartua dagoena, eta ori da nere ustez ontzat ezin eman ditekeana, **-tu** ori kentzea beste aldekoak kentzen eztuten garaian. Esan nai dut, ez **gerta diteke,** baiña **gerta da;** ez **sar diteke,** baizik **sar da.** Orrelako gauzak irakurtzen ditut eta eztut uste oiek iñongo oituraren erara egiñak deudenik.

Beste bat, ikako euskera. Egia da ikako euskeran ere naste izugarriak badaudela. Esate baterako, Mogelek berak eztu ikako izkera erabiltzen gaur ikako izkera jator eta garbi egiten dutenek erabiltzen duten bezela. Nafarroako eta Bidasoaz arunzko oitura itz gutxitan esan diteke. Esaldi nagusian bakarrik erabiltzen dute ikako izkera. Aiek eztute erabiltzen gaiñera galderetan. Esaldi nagusiko oitura ori Orixe-k beti gorde izan du, lenago esate baterako Iturriaga-k —orain gogoratzen naizenetakoa eta begiratu dudanetakoa— orixe gordetzen du. Alegia **bazekiat nor dan** eta **ezekiat zer duen.**

Beste bat, **duen, dun** ta gaiñerakoak. Or ere giputzak pentsatu dugu beti, dirudienez, gu bakarrak gerala euskaldunak. Gipuzkoan oraindik ere nere ustez leku franko badaude orren antzeko zerbait egiten dutenak, **nuun, noon** edo olako zerbait esaten dutenak, **nuen** esaten dutenak ere bai, esate baterako Irunen bertan **nuen** esaten dute. Bizkaian gauza jakiña da **neban** edo antzeko zerbait esaten dutela, eta orrek bere zer ori badu. Beste aldekoak denak, eta Nafarroan ere nik ezagutu ditudanak, geienak beintzat, ala esaten dute. Beraz, uste dut or ere giputzak amor eman bear diotegula gaiñerakoai.

Beste bat, ori oso gure gauza da, **gauz bat, neskatx bat** eta gaiñerakoak. Egia da aspadidanik euskal idazleetan agertzen dala olako zerbait, baiña ez beti guk uste dugun erara. Esate baterako,

orain agertu berria edo oraindik agertu gabea den liburu batean, Aita Omaetxebarria-ren liburuan, bukaeran zenbait pusketa berezi daude euskal idazleetatik artuak. Nik oso gaiñetik begiratu dut, baiña oso oker ezpaldin banabil auxe aurkitu dut Agirre Asteasukoaren pusketan, garbi garbi esaten duela orrelako zerbait: **gauz ortan** edo **gauz ortatik** [gero begiratuta ikusi degu diola: «gauz arritzekoa!» (**Euskera.** Fr. Ignacio Omaechevarría, O. F. M. Zarauz, 1959. Págs. 227/28)], baiña ortik eztugu atera bear ondore bezela Agirre-k **gauz bat** esaten zuela. Piska bat aurrerago bagoaz ikusiko dugu berak esaten duela: **eren katea gaiztoetatik libratzeko, askatzeko** edo eztakit zer. [ikusi degu diola: «heren katea gaiztoen mendetik irten nai» (Pág. 228, 1. 2). Apur bat aurrerago badakar: «baña gauza jakiña da» (Pág. 230, 1. 6-7)]. Ez bakarrik etzuen esaten **gauza gauz,** etzuen esaten **kate** ere, **katea bat** esaten zuen. Jakiña Eibar-en ari naiz, eta mundu guztiak daki emen bereizten **a** ori artikulua dan ala ez. Noski, eibartar guztiak bezela nik esango nuke bizkaitar guztiak ere bereizten dutela. Zuberotar guztiak bereizten dute, eta abar. Beraz nik uste dut or ere gipuzkoarrok itzak moztutze orri piska bat utzi bear geniokeala eta besteen joerai amor eman.

Beste zenbait gauza, nere ustez, Etxaide-k esan dituenetan, eztira erabakitzeko, ezin ditzake iñork erabaki. Esate baterako, Euskaltzaindiak artu eztuen ezkero euskalki bat eta erabaki euskalki ori beste guztien gain izango dala guztion euskera, eta nere ustez ezin dezake oraingoz beintzat orrelakorik egin, euskalki guztiak Euskaltzaindiaren aurrean ondo egiñak izan ezkero ondo daude. Beraz, bizkaitar batek **diño** dio eta guk **dio** diogu, eta nere ustez Euskaltzaindiak ezin dezake erabaki zein dan obea. Bizkaitar batek, edo Bizkai antzera jo nai duen batek **diño** jarri nai baldin badu Jainkoak bedeinka dezala. eta beste batek **dio** jarri nai baldin badu, berdin. Gero aurrerago, bear bada, ikusiko dugu idazle guztiak **diño**-ren alde dauden edo **dio**-ren.

Jon Etxaide: Mitxelena jauna, nik galdera ori egin dut onetara, ia komeni ote den **diño** Bizkaikoa erabiltzea bestea **dio** laguntzaillearekin nasten delako. **Ekarri dio** esaterako. Bereizteko biak esaten nuen.

L. Mitxelena: Baiña nik eztut uste. Paperean sor ditezkean nasketa oriek, eztira, bear bada, orrenbeste aldiz mintzatzean sortzen. Axular-ek baldin badio: **Senekak dio,** eztu iñork pentsatuko besterik arek itz egiten duela baiño, eta berak **dio** erabiltzen du laguntzaille bezela. Beraz, nere ustez, biak zillegi dira. Eta oraingoz beintzat nai ta naiez zillegi bear dute izan.

Ni gipuzkoarron kontra mintzatu naiz, eta orain bi itz esan nai nituzke gai ontan, ¿nola esango nuke?, bizkaitarren kontra.

Begira, ni enaiz Bizkaiko izkeraren etsaia, ezta gutxiagorik ere. Oso gogoko izan dut beti Bizkaiko izkera eta orain ere ala dut. Eta len esan dudan bezela, Euskaltzaindiaren aurrean, Bizkaiko euskalkiak bear luke beste edozein euskalkik aña, Gipuzkoakoak aña jakiña, eskubide. Baiña, nere ustez, ezta egoki bizkaitarrak, besteengandik beren buruak bereizteko, alako separatismo kutsu batekin, erderaz nik «supervizcaino» deitzen dudana, sortzen astea, sortzen asteko eskubiderik eztute. Bizkaitar idazle guztiak **ditu** edo **dituz** jarri baldin badute, bizkaitarrak eztute eskubiderik **ditu** edo **dituz** Gipuzkoako formak dirala esateko, Euskalerri guztikoak diralako, eta orien ordez **dauz** ipintzeko. Edo, Bizkaiko idazle guztiak **zituan** edo **zituzan** jarri baldin badute, **ebazan** orren ordean jartzeko. Eta asko daude orrelakoak. Bizkaian erri gutxi batzuetan **gintzan** edo **gintzazan** esaten baldin badute, ia Bizkai guztian esaten dana eta Euskalerri guztian esaten dana gutxi gora beera, lenago dago bestea baiño [**giñean, giñan**].

Berriz ere esango dut, giputzok, bizkaitarrok eta gaiñerako euskaldun guztiak, nere ustez, eskubide osoak ditugu eta begiramen osoa merezi dugu Euskaltzaindiarengandik. Baiña gere neurrian eta geren mugetan egoten geran bitartean. Ori da nere iritzia, eta gaizki esanak barkatu.

Irigoyen: Beste norbaitek ezer esan nai du?

N. Echaniz: Nik oraingo kontu ontan eztet ezer esan nai, baiña lenago Lafitte-ren itzaldiari eztiogu eman batere astirik artaz ezer aitatzeko, eta gauza ederra egin dutela eskola kontuan ikusi degu an. Nik uste det emen ere aien erara zerbait egin bear gendukeala. Billatu ia zer lege bide ditugun eskoletan euskera sartzeko. Zerbait egin da Donostian, «Sagrado Corazón» kolejio ortan. Bertako zuzendariak dabiltza or. Gurasoai galdera bat zuzendu die paperetan, esanaz ia nai duten beren aurrei, beren semeei euskeraz irakastea. Eta berrogeita amarretik gora izan dira guraso baietz erantzun dutenak. Eta ala asi dira, asi berri dira ortan. Ori genduke beste eskola, kolejio batzuetan ere bidea. Baiña gaiñera entzun det nik jaun batzuek estudiatzekotan dirala, abogadu diran aldetik, lege bide bat konkordatuak berak ematen digula. Elizak konkordatuaren aldetik eskubide osoa du bere eskolak sortzeko, eta eskola orietan berak nai duten maisua eukeratzeko. Eskola libre orietan errezago izango litzake, bear bada, parrokuak deritzan maisua aukeratuaz gero euskera irakasteko bidea sortzeko. Eta nik emen auxe besterik eztet aitatu nai. Ia ortik saiatzen geran lege bide berriak eskoletarako billatzen euskerari.

I. Beste norbaitek?

A. Zugasti: Oso ongi esan du Etxaniz jaunak «Sagrado Corazón de Jesús» kolejioko agintariak galde egin diotela gurasoai. Baiña lan luzetik dator onen iturria. Diputazioko presidenteak berak uste det esan ziela Donostiako kolejio batzuei ia euskera irakasten saiatuko ziran. Joan dan urtean jesuitak ere irakatsi zuten. Baliteke ori Donostiarako bakarrik ez izatea, beste erri-tara ere sartzea. Eibar-en nai balitzake, bear bada, sartu aal izango litzake. Bidea billatu egin bear degu, zuzen edo oker, aurrera. Bestela beti lo. Eta bukatu det.

L. Mitxelena: Gai ontaz, aitatu duzuten ezkero, zerbait esan nai nuke. Nere ustez, nai ta naiezkoa da, eta lanak izango dira gaiñera lege kontu orietan, ez Estaduarekin bakarrik, baita Elizarekin ere izango dira. Baiña ori bial diteke eta bialdu bear dan gauza da. Beste aldetik, uste dut, guk gerok, olako gauza batez leku askotan, benetako gogoa eta gaitasuna izan ezkero, askotaz ere errezago bideak zabalduko genituzkeala. Esate baterako, nik uste dut Euskalerrian egin den gauzarik ederrena eskola gaiean urte auetan egin dala. Eztut zein dan orren eragille esan bearrik mundu guztiak dakielako zein dan. Bada, persona orri eskerrak egin da Euskalerrian, nik dakidanez, len bein ere egin eztan bezelako lana. Eta uste dut bide ortatik, jendea gaituaz eta eskolatuaz bideak askotaz ere zabalago izango genituzkeala. Orrekin eztut esan nai guk eztugula bideak irikitzen eta bideak billatzen ibili bear, baizik-eta eztugula bide oriek noiz irikiko diran eta nola irikiko diran zai egon bear. Guk gerok ere geren aldetik nolabait gauzak antolatzen saiatu bear dugula. Orixe bakarrik.

Zubiaurre jaunak dauka itza.

MOGEL ETA BURDINGINTZA

1. Juan Antonio Mogel gizon aundia izan zala, ez dago esan bearrik, Euskalerriko euskaltzalerik azkarrenak bere omenez bildu diranean.

Emen natorkizue ni, Euskalerriko burdin-langilleen izenean, Mogeleri gure omenaldi au eskintzera. Eta zer obeto onetarako, berak maite izan zuan eta orren ederki adierazi zigun lankerari buruz zerbait azaltzea baño?

Burdin-lana adierazten asi baño len, burdiña zer dan, nola agertzen dan eta abar azaltzea egoki dala deritzat.

2. Kimikaren aldetik burdiña gai uts bat da. Bere sinboloa latiñezko *ferrum*'etik dator: Fe. Bere atomoaren pixua 55,84.

Urtzeko giroa 1.530° C. Balenziak 2-3 eta 6 positivoak. Densidadea 7,85.

Burdiña etzaigu utsik agertzen lurrean. Nastean ostera, oso ugaria da. Mundu onen amarretik lau burdiña baita. Burdingairik aurrenak OLIGISTO (Fe2 03); MAGNETITA (Fe3 04); LIMONITA (2Fe2 03. 3H2 0); PIRITA (Fe S2); CALCOPIRITA (Cu Fe S2); eta SIDERITA (Fe C 03) dira. Geienetan oxijenoa lagun, au ere ugarienetakoa baita.

Burdiña utsaren berezitasun batzuek auek dira: kolorez zuri-urdiña, bigun xamarra, luzagarria eta malgua.

Berotu ezkero, urtu aurretik bigundu egiten da, eta zati bata bestearekin itsatsi liteke. Majnetismoa dualarik, berotuaz, berezitasun ori gutxitu egiten zaio.

Oxijenoak eta aize legorrak, ez diote ezer egiten. Baño ezatasunez erdoitu egiten da. Au dala ta, beste gairen batekin batu bear, ugartzeko ardura izango ezpada.

3. Mogel'ek bere *Peru Abarka*'n azaltzen digunaren antzeko oletan etzegoan gaurko aurrerapenik. Orduan etzekiten nola kendu burdiñari, naiz azufrea, naiz fosforoa zirala, bada auek oso kaltegarriak dira burdiñarentzat. Lagun kaltegarri auek ezin kendu zituztelako, burdingai erakoak aukeratzen beartuak zeuden. Eta Bizkaiko burdingaia oso erakoa zalarik, onetatik zetorkion bereganako zegoen zaletasuna, batez ere Inglaterran. Gero, lankera berriak asmatu ziranean zaletasun ori, jakiña, gutxitu egin bear, bakoitzak bere burdingaia aprobetxatzen zuan eta.

Oletarako aukerakoenak oxijenoa bakarrik zeramaten meak, burdingaiak ziran.

Ikusi dezagun bada, oletako burdin-lorkera.

4. Metalak beren oxijenodun meetatik lortzeko KARBONO (C) bidez egin genezakela irakasten digu Kimikak. Egikera oni erderaz "reducción" deritzaio. Gure arbasoek etzuten kimikaren berririk, egintzak irakatsia ez bazan beintzat; baño berek ere, lortu zuten ordurako erarik egokiena.

Ikusi dezagun oletako sutegietan gertatzen zana.

5. Lenengo, txingar batzuek jartzen zituzten arragoan, tobera inguruan. (Ikusi lenengo irudia). Txingar gañean egurikatza pillatu. Suak indarra artzen zuanean, burdingaia pillatzen zuten toberaren aurreko aldean, au da, txapa aldean.

Egur-ikatza erretzean C 02 sortzen da. C 02 onek ikatz artetik igarotzean karbono atomo bat artzen du eta C 0 biurtzen da. Baño karbonoak laurena du eta oxijenoak birena. Au dala ta, C 0 molekula aldakorra da. Iraunkor biurtzeko burdin-meak ematen dio 0 atomo bat. Onela burdiña utsa agertzen da. Iku-

si lenengo irudian gertari au. C 02 gasa dalarik alde egiten du.

6. Baño oraindik eztago garbi burdiña. Agoa sutatik ateratzen danean zepaz inguraturik agertzen da. Zepa ori, burdingaiak ekarri dituan zikin berotuak sortzen duten silikato naste bat da. Silikato auek burdiña baño ariñagoak izanik eta orrezaz gañera, burdiña biguntzen dan giroan urtu egiten dirala, ziar lekura erortzen dira, ziar-zulotik zear. Burdiñari geratzen zaion zepa kentzea, oso garrantzitsua da. Zepa ori kolpatuaz kentzen zioten.

7. Noiztik ezagutzen dan burdiña munduan, ez da galdera erantzun erreza (Ikusi bigarren irudia). Uste danez, Ejipton J. C. baño 4.000 edo 3.000 urte lenago zeukaten burdiña landua. (Ejiptoarrak *Khatti* erriko *hititak* zeritzanei ikasita. Uste da hitita auek izan zirala lenengo burdin-langilleak. *Khatti* errialde ori, gaur Turkia dagoen tokian zegoen. Mika Waltari'k idatzitako *Sinue ejiptoarra,* erdi novela, erdi histori ortan ere, aipatzen dira hititak, gizon burrukazale eta zazkar xamar bezela.) Israeldarrak, 3.000 urte lenago. Txinan, olakoren bat. Euskalerrian J. C. baño 1.500 edo 1.000 urte lenago, Asia aldetik zetozteneri, au da, zelteri, ikasi zien burdin-lorkera. Ejiptoko errege zan Tutankamen'en sasoian, burdiña oso ezaguna zutela uste da, bada beren piramide aundietarako arritzar aiek lantzeko, bearrezkoa zuten burdiña, bronzea bigunegia baita orretarako.

8. Eta, nola lortzen zuten burdiña aldi artan? Ara, lurrean egiñiko (ikusi irugarren irudia) zulo batzuetan egur-ikatz txingarrak jarri ondoren, egur-ikatza pillatzen zuten, eta suak indarra artu ondoren burdingaia. Aize emateko auspo batzuek jartzen zituzten (laugarren irudia).

9. J. C.-ren sasoian ur-errotak ezagunak ziran (boskarren irudia). Au da, uraren aurka gurpil baten potak jarri ezkero, urak pota oiek bultzatuaz gurpilla biratzen du. Gurpil onen beste ertzean errota arria dijoa.

Esan dugun bezela, ur-errotak J. C.ren sasoi ingurukoak izan arren, XIV edo XV-garren menderarte etzan asmatu ur-indar eder ori oletan jartzea. Erromarrak, urr-urrean ibilli ziran VI edo VII-garren mendean aurrerapen au lortzeko. Baño Erroma erori zanean, bere menperatzailleak dana ondatu zuten, eta berriz asieratik oñarriak jarri bear izan ziran. Erroma jauste onek milla urte inguru atzeratu zuan munduaren aurrerapena. Bada ez uste izan J. C.ren sasoian oso atzeratua zegoanik mundua, bada J. C. baño bi mende lenago Alejandriako Heron jakitunak, beste asmakizun askoren artean, sua emetatzeko uraga edo bonba bat asmatu zuan (seigarren irudia).



SUTEGIAN GERTATZEN DANA
(Lenengo irudia)

BASOKO LABEAREN AUSPOAK
(Laugarren irudia)



EJIPTOARRAK BURDINGINTZAN
J.K. BAÑO XV MENDE LENAGOKO ORMA-IRUDIA
(Bigarren irudia)

J.K REN SASOIKO ERROTA-GURPILLA
(Boskarren irudia)

ANTZIÑAKO BASA-LABEA
(Irugarren irudia)



HERONEN URAGA
J.K. BAÑO II MENDE LENAGO
(Laugarren irudia)



MIRANDOLAREN IRUDIA

(Zazpigarren irudia)



AUSPOTEGIA

(Amargarren irudia)



UR-ERAKETA

(Zortzigarren irudia)



SUTEGIA

(Amalkagarren irudia)



AUSPOTEGIA

(Bederatzigarren irudia)



GABIA

(Amabigarren irudia)



GABIAREN ZATI BATZUEK
(Amairugarren irudia)

GABITEGIA
(Amalaugarren irudia)

10. Alto Hornoa asmatu aurretiko burdin-lorkeran ateratzen zan burdiña, burdingaitik mallura zijoan zuzen, au da, burdiña ura malluz joteko aukerakoa zan.

Alto Hornoan lortzen dana ostera, ez da ortarako gauza. Labatzar oietan lortzen dan burdiñak beste labaldi bat bear du lanerako gauza izango bada.

Ola zarretakoari, "lortzeko era zuzena" deritzaio.

Oraingoeri, ostera, "lortzeko era deszuzena", deitzen zaie.

11. Esan dugu mundu onen amarretik lau (ez azalean) burdiña dala.

Ameriketan, mundu guziko 52 % dago. Brasillek eta EE. UU.ek 18 % inguru bakoitzak. Terranovak 7 % inguru.

Europak, munduko 31 %. Geien Franziak 9,5 % inguru. Inglaterrak 7 % Españiak, 1,5 % inguru.

Euskalerrian ugari dago. Irakurri nun dauden edo egon diran mea-zuloak.

BIZKAIAN: Somorrostro'n, Galdames'en, Sopuerta'n, El Regato'n, Alonsotegi'n, Güeñes'en, Abando Zarrean, eta Bilbon. Zulo txikiak Zaratamo'n, Galdakano'n, Bedia'n, Arrati aldean eta Errigoitia'n.

GIPUZKOAN: Irun'en, Berastegi'n, Asteasu'n, Tolosa'n, Zegama'n, Errexil'en, Arrasate'n, Alkitza'n, Zerain'en, eta Mutiloa'n.

ARABAN: Araya aldean.

12. Lenago aipatu dugu egur-ikatza, bada auxe zan oletako lanerako egokiena. Au lortzeko egurra pilloetan jartzen da, erdian zulo bat utzirik kea urteteko, eta alboetan beste zulo batzuek aize apur bat sartzeko. Onela, egunetan erretzen egon ondoren ateratzen dan ikatz onek 8.000 kaloria ematen ditu.

Euskalerrian zeuden olak, asko izanik, egur asko be asko bear zuten lan egingo bazan. Emendik ziurki, gure mendiak arbolaz beteak egotea.

13. Eta nun jarri burdin-ola? Ur-indarra oletan erabiltzea asmatu aurretik bi alde begiratu bear ziran. Batetik burdingaiarekikoa, bestetik ikatzarekikoa.

Galda bat egiteko, egur-ikatz pilloak burdingaiarenak baño askoz aundiagoa izan bear du. Emendik ba, burdingaia ikatza zegoan tokira eramatea merkeagoa zan bestera baño. Onengatik lenengo olak basoetan jartzen ziran, eta burdingaia zebillen baso billa. Ola auek aizeola edo agorrola izena zeramaten.

Ur-indarrez erabiltzea asmatu zanean, olak mendietatik errekondoetara jetxi ziran. Ola auek zearrolak ziran. Aurrerapen aundia izan zan ur-indarrez erabiltze au. Badakigu burdin-lorkeran aizea ugari eta indartsu bear dala. Onetarako auspoak jartzen ziran. Baño auspoak erabilli egin bear ziran, eta urarekin ezpazan eskuz edo ankaz, baño gizonak erabilli bear, eta gañera gau eta egun, naiz eta txandaka izan. Lan au egiten zuten gizonak auspo-pujoi izena zeramaten. Ura aprobetxatu zanean esan bearrik ez, atseden ederra artu zuten gure ola-langilleak.

Euskalerria menditsua izanik, aukeran uraren indarra aprobetxatzeko.

Euskalerriko errekondorik geienak beren ola zuten. Eztago entzun baño, zeinbat toki diran beren izena "ola" daramatenak. Esan bearrezkoa da ere, "ola" izena daramaten toki guziak eztutela burdin-olarik.

Lege asko ziran gure foruetan, olen eta basoen alde, bada, burdiña gaur bezela, oso bearrezkoa zuten. Beste lege batzuek, Euskalerriko burdingaia erbestera eramatea galerazten zuten, au da, lenbizi euskaldunak zerbait irabazteko bidea eman, saldu aurretik.

14. Azaldu dezagun bada, Mogelen sasolko ola bat, Mirandola berritua. Legazpiko Patrizio Etxebarria jaunari eskerrak, aintziñako ola bat daukagu nai dugunean ikusteko eran. Bijoaz nire esker beroak Patrizio jaunaren illoba dan Lasa jaunarentzat, bere erakusketa jatorraren ordañez. Legazpiko ola au Mirandola da. Ola ontan mende askotan lan egin da. Bada

kondaira bat, miraritzat artzen dutena. XVI garren mendea aurrera zijoan. Egun batez, oi bezela, Mirandolako langilleak, ikatzez eta burdingaiz bete zuten sutegia, eta agoa ateratzeko sasoia eldu zanean, arriturik gelditu ziran, agoaren ordez burdiñazko gurutzetxo bat arkitu zutenean. Gertari au dala ta Mirandolaren ondoan kapilla bat dago. Bere aldarean, burdiña puska ura gordeta.

15. Mirandolak bere zatiak ditu: (zazpigarren irudia).
Ur-eraketa.
Auspotegia.
Sutegia.
Gabitegia.
Baita ere ikaztegia, meategia eta abar.

16. Azaldu dezagun ba ur- eraketa. (Zortzigarren irudia).

Mirandolaren atzekaldetik mendiko ura dator ubidean zear. Albo latean, ezkerretara, kunboa edo ugasia. Ugasiak bere ondoan bi zulo edo txinbo, kunboko ura tikinoi bietara jetxi dedin. Txinbo batak gabia darabillen tikinoia mantentzen du. Beste Txinboak auspoaren tikinoia.

Lan egiteko ura jetxi bear, eta onetarako txinboa zabaldu, egoki danean. Ikusi irudian nola jarri diran orretarako gauzak.

Txinbo bakoitzak bere giltza du. Giltz oni beruntz bultzaka arri aundi baten pixua. Arri au abe baten gañean lotuta dago, eta abe au ardatz baten balantzaka. Abe au leio batetik zear, ola barrura sartzen da. Barrukaldeko ertzean, goitik bera, uraga darama katiaturik. Uragaren beko ertza langillearen eskuraño dijoa. Urari eman bear zaionean uragari beruntz eragin ezkero, ur-abeak, biratuaz, txinboaren giltza jasotzen du eta ur-zuloa iriki. Langilleak uraga uzten duanean, ur-abeak, kanpoko aldean daraman arri aztunaren indarrez txinboa ixten du giltzaren bitartez.

Txinbotik tikinoiaren potetaraño, ura ubide baten barrenean dijoa, eta ur orrek pota bat arkitzen duanean beruntz eragiten dio eta onela tikinoia bere ardatzarekin biraka asten da.

Txinbo bakoitzaren bekaldean eraketa berdiña dago.

Gabia darabillen tikinoiari, tikinoi-nagusi deritzaio, eta bere ardatzari ,ardatz nagusi.

Urari neurri emateko, uragak beko ertza okerra du, eta zulo batzuetan gorago edo berago sartuaz neurri ori lortzen da.

17. Azaldu dezagun orain Mirandolako Auspotegia .(Bederatzigarren irudia).

Bi auspo dira. Beti ikusi ditugunen antzekoak, askoz aundiagoak. (Amargarren irudia). Auspo bakoitzak gañekaldean kerten bat du, eskamela. Auspoen tikinoi ardatzak, eskamel bakoitzaren aurrekaldean koskadun gurpil bat darama. Koska auek mazukariak dira eta ardatzarekin biratzean eskamela bultatzen dute beruntz. Au gertatzean auspo muturretik aizea ateratzen da indartsu. Mazukariak eskamela uzten duanean, kontrapixu batek eskamela jasoaz, auspo zurrutada errezten du.

Bi auspo dirala, batak putz egitean besteak zurrut dagi, eskamel bakoitzaren mazukariak ontarako eran jarri dira-ta. Onela bi auspoak txandaka ari dira puzka eta puzka.

Bi auspoen muturrak bat egiten dira eta toberatik zear aize indartsu ori sutegira dijoa.

18. Aizeari jarraituaz, ikusi dezagun sutegi edo arragoa. (Amaikagarren irudia).

Sutegiak lau albo eta ondoa ditu. Ikusi irudian.

Tobera edo aize-bidea daraman alboari bergamallo eta aisa--arri deitzen zaio.

Bergamalloaren aurreko alboari txapa.

Bergamalloari begira, ezkerreko alboak, zulo bat du, esan dugun bezela urtutako silikatoak urteteko. Zulo au ziar-zuloa da. Lurrean, silikato oiek artzeko, ziar-lekua dago.

Ziar-zuloaren aurrekaldeko alboak idurijela izena du.

Sutegiaren ondoak zirillu izena darama.

Oletako burdin-lortzea, burdingaiari oxijenoa kentzea dala esan dugu. Berotu bitartean, burdin-agaz eragiñik, agertzen dan burdiña utsa batu egiten da, au da, agoa sortzen da.

Esan dugun bezela agoa zepaz inguraturik dago.

Mogelek bere *Peru Abarka*'ren atal batean, jator adierazten digu, agoa sutegitik ateratzea: Onela diño Mogel'ek:

"Urtzalliak bete biar dau sutegija miaz; ezarri biar dan ikatza ta egin biar dan guztija, agoia aterateko prestau artian. Auspuak geratu ta atala gorituten imini ta ezin esan beste zeregin ditu sutegian. Lagunduten deutsee agoia su azpiti ateraten ijela ta gatzamalliak, bakotxak bere burdinaga edo palankiaz. Ateraten dabee sutegiti agirira ez izerdi tanta ta bero asko bota baga. Botaten dabee beera ta, txirikiña edo burdin kato bat iraatsirik, darue gabipera. An ezarten deutsee atala orakarri ta kirtentzat".

19. "Gabija ibilli dedin emoten deutsa ura ijeliak uragiaz. Asten da durundija, orma ta lur ikara eragiten deutsana. Darua agoia urtzalliak mallutzarpeti gabi-igunaren azpira. An asten da beste soñu, belarri atara ez egiñak, zurtuten ditubana.

Ijeliak bere uragiaz darabil gabija miats edo sarri, zelan gura daben; ta ondo dan ura geitu edo gitxitubaz, begira dagoka urtzalliari ta irakastendeutsa zer egin, nos aurreratu ta nos atzeratu, ta nos albotu burdin oratzar edo agoia. An dira su-txipristin urrinera duazanak; an askatu ta bota eragitia geratu jakozan lojak, zepa ta txatarrak. Alan igunpean ta mallupean apainduten dau agoia urtzailliak; gogortu ta txikituten dau, ta erdibitu biar danian, iminten deutsa gatzamalliak atxurra, ta gabi-mallubak emoten deutsan joaldi edo kolpiaz erdibituten da; zati bata geratuten da atal edo kirten iraatsijaz, zein daruen berriro sutegira; ta arik aurrerako biar edo lanak geratuten dira ijeliarentzat, zeñi jagokan ijestea edo irutia burdiñia, ekarri artian burdin-barra izatera, emoten deutsala bitartean gatzamalliari uragia, gabija erabilli dagijan, berak aginduten deutsan arintasun edo gelditasunaz. Amaitu dabenian urtzalla agoia zaindu dabenak, esan dogun biargintzia, dua lotara gura dabenian; eta artuten dau bigarren urtzalliak beste agoe ta egikizunen arazo eta arduria".

Sutegiko izenak esan ditugu, eta Mogelen bitartez bertako egiazko izardi-lana. Baita ere Mogelen lumaz gabiko lana.

Azaldu ditzagun orain gabiak dituan zatiak eta abar.

(Amabigarren irudia). Labur esateko, gabia ez da pagozko abe birakor bat baño. Kolpatzeko, burdiñazko mallutzar bat jartzen zaio ertz batean. Beste ertzetik irutik batekoan biratzeko ardatz eran bi mutur, beren bira-lekuetan. Mallua ez dijoan ertzean mazukariak joten du, auspoen eskamelen antzera, len ikusi dugun bezela. Mazukariaren indarrez, gabigunaren atzeko aldea jetxi egiten da, mallua igoten dala. Mazukariak gabigunaren ertza uzten duanean, mallua indartsu jeixten da. Indar au malluaren pixuak ematen dio, eta bai orretarako jarrita dagoen burdiñak gabigun ertzaren azpikaldean, mazukariaren indarrez jeixterakoan jotearen reaziñoak. Au da, bi indar, bata malluaren pixua, bestea burdiñazko topearen aurkako reaziñoa.

Mallu pean burdiñazko jungudea.

Amairu garren irudian ikusi ditzakegu gabiaren atal batzuek.

Pagozko abe edo gabigunak, au da, gabi-kirtenak, bere luzeera guztia burdiñazko eztunez gogortuta du. Aurreko aldean burdiñazko mallutzarra, ziri birekin igunari estututa. Lokatuko balitz, orra or (amalau garren irudia) zingilika burdiñazko aga aztun bat, bere taupadaz berriz estutzeko.

Biratzeko, burdiñazko eztun aundiagoa, bogia, albo bietara biratzeko mutur bana daramazkiala.

Mazukariaren taupada artzeko, gañekaldean burdiñazko txapa lodi bat ezarrita. Azpikaldean, beste txapa bat, lurreko topearekin ari-talka gisan jokatzeko.

Gabiaren bira-lekueri eusteko, zurezko zutoi edo zepuak, zepu-amieri lotuta.

Jungudea lurrean lotuta, aga-arria deritzaion tantai zabal baten bitartez.

Auspoak erabiltzeko eran, gabia erabiltzeko ere, tikinoi--ardatza daukagu. Ardatz onek, gabigunaren parean koskadun gurpil bat. Uragaren bidez urari ematen zaio eta tikinoiarekin batera bere ardatza biraka asten da. Biratzean mazukariak gabigun gañeko burdiñazko txapa joaz, beruntz darama, esan dugun bezela lurrean jarritako burdiñazko topea jotzen duala. Biratuaz mazukariak gabiguna uzten du, eta len esan dugun bezela topearen egiñez eta malluaren pixuz, jungude gañera erortzen da mallutzarra. Biratuaz urrengo mazukariak asten du bere lana. Gelditu nai danean uraga askatu eta kanpoko arriaren pixuz txinboa ixten da. Ura gelditzeaz gabia ere gelditu egin bear.

Gabigunaren azpian, jungude eta zutoien tartean, txapa bata dago erdi etzinda. Onen eginkizuna auxe zan: agoa arragotik ateratzen danean, lenengo txapa onen gañean jartzen zuten eta berton kolpatu, batetik zepak kentzeko eta bestetik burdiña zerbait tinkotzeko, mallupera baño len. Ondo garbitu ondoren, taupadaka, mallupean joten zuten. Mogelek esaten digun bezela agoari atal bat jartzen zioten, au da, goritutako burdinaga bat kirtentzat. Agoa zerbait kolpatu ondoren erdi bi egiten zuten. Ataldun erdiari txangota deitzen zioten, eta au sutegira zijoan bera lantzeko txandaren zai. Beste erdiari totxo zeritzaion eta aurrenik au lantzen zan. Aipatu ditugun erdi bakoitza ere, bi zati egiten zan. Onela ateratzen ziran lau zatieri galda-batekoak zirala esaten zan.

20. Mirandolaren erako olak lau langille izaten zituzten. Nagusi egiten zuana ijelia, laminatzallea zan.

Bi urtzalla, au da, burdiña urtzen zutenak. Sutegia beren arduran egoten zan. Bakoitzak labaldi bat zaitzen zuan. Au da, txandaka jarduten zuten. Labaldi bakoitza lau bat ordukoa izaten zan.

Gatzamalliak, lapikoari gatza egin eta danen aginduak bete. Iru bat urte gatzamalle egin ondoren, iñor bazan beintzat, urtzailla biurtzen zan, au da, ofizio baten jabe egiten zan.

21. OLEN AMAIA.—Alto Hornoak asmatu ziranean eta beren aurrerapena zabaldu, olak ezin izan zuten aien aurka jokatu. Apurka-apurka burdingintzari utzi bear. Aldatu edo il. Ola batzuek itxi egin ziran, baño geienak aldatu. Batzuek papergintzan asi ziran. Besteak forjari ekin zioten. Urrengoak egiñiko burdiñaz ainbat motatako tresnak egiten asi, Eibarren bezela.

Aldakuntza gogor onek, Euskalerri guztia eraginda utzi zuan.

Uste zutenez, aldakuntza orrek, langille asko utziko zituan lanik gabe. Eta izan ere, asieran ori gertatu bear. Baño gero, olak beren langintza aldatu zutenean, berriz danentzako lana, eta geiagorentzat ere sortu zan, eta kalterako uste zana onerako izan zan. Orduan Euskalerriak, ikasbide ederra utzi zigun gaurko egunean gauden egoera larrirako. Sasoi artan euskaldunak aurrera jo zuten. Orretarako aldatu egin bear zan, eta aldatu egin zuten.

Gaur ere aurrera jo bear dugu. Ortarako gure lankerak aldakuntzak bear ditu, ba badakigu zer egin bear dugun, aldatu. Baño beti aurrera.

Gizonak, eten gabeko burruka du bizitzarekin. Ba, gizona bere izatez oituraren jarraitzaille utsa da. Bizitza ostera, eten gabeko aldakuntza. Eta gizonak, aldakuntza ontarako, neke aztuna arkitzen du. Baño aurrera joteko, bizitzaren lege gogorra jarraitu bear, au da, aldatu. Al dala sasoiz, bestela al danik lasterren.

Eibarren, 1959-ko azaroaren 6-an.

JABIER ZUBIAURRE EZENARRO.

BURDIN - LANGINTZAKO ITZ BATZUEK

ABAURREA (Coreografía-Larramendi).—Vigueta muy alta que a impulsos del agua movía los fuelles. En algunos tipos de ferrería.

AGA-ARRIJA (Peru Abraka-Mogel).—Piedra sobre la que se golpea el hierro.

AGOA (Coreog.-Larram.).—Masa de hierro candente o goa.

AGOEKIRTENA (Peru Abarka-Mogel).—Barra de hierro que previamente calentada al rojo en la fragua se incrustaba a la goa para facilitar su manipulación durante los golpes prelimi-

nares. Una vez partida la goa en dos, para poder llevar la mitad correspondiente a la fragua, en evitación de que se enfríe durante el trabajo de la otra mitad.

AGORROLA (Coreog.-Larram.).—Ferrería de monte o en seco.

AISA ARRIJA (Peru Abarka-Mogel).—Pared trasera del horno (por donde entra el aire). Tinaja de ferrería.

AIZE-ARKA (?).—Aparato soplador, compuesto solamente de tablas de madera, que competían con los clásicos fuelles de cuero.

AIZEOLA = AGORROLA.

ALDABARRAK (Peru Abarka-Mogel).—Puntales que sostiene el mazo de ferrería.

ALOGERA (Peru Abarka-Mogel).—Jornal o salario.

ANTEPARA (Azkue).—Saetín, canal del molino.

ARDATZ-NAUSI (Peru Abarka-Mogel).—Eje de levas que acciona el martillo.

AROTZA (Los Vascos-Caro Baroja).—Ferrón o herrero.

ARRAGO (Cor.-Lar.).—Crisol.

ARRAGO-ETXE (Peru Abarka-Mogel).—Departamento destinado a la fragua.

ATAKA (Los Vascos-Caro Baroja).—Boca de mina.

ATALA = AGOEKIRTENA. (Peru Abarka-Mogel).

ATXURRA (Peru Abarka-Mogel).—Azada, azadón.

AUSPO (Peru Abarka-Mogel).—Fuelle.

AUSPO-ARDATZA (P. A.-Mogel).—Eje de levas que acciona los fuelles.

AUSPO-PUJOI (P. A.-Mogel).—Tirador de barquín, accionaba los fuelles, sin agua.

AUSPOTEGI (P. A.-Mogel).—Departamento destinado a los fuelles.

BANDIJUA (P. A.-Mogel).

BARKINERA (Cor.-Lar.).—Fuelle.

BEELARRIJA (P. A.-Mogel).—Mango de hierro.

BELAIKIJA (P. A.-Mogel).—Especie de pala o más bien azada para recoger la escoria, con el mango en el centro y perpendicular al plano de la pala.

BERGAMALLUBA (P. A.-Mogel).—Pieza de piedra tras el fogón, defiende del calor el grupo de fuelles. Equivale a AISA-ARRI.

BERTAAGIA (P. A.-Mogel).—¿Lengüeta de cerrojo?

BITSADERA (P. A.-Mogel).—Espumadera.

BOGIA (P. A.-Mogel).—Pieza de hierro que sostiene el *gabigun*, es sin duda la pieza que lleva los muñones sobre los que ha de girar y sostenerse el *gabigun*.

BURDIÑAGA (P. A.-Mogel).—Palanca.

BURDIN-BARRA (P. A.-Mogel).—Barra de hierro.

BURDINGAI (P. A.-Mogel).—Mineral de hierro.

BURDUN-ZALI (P. A.-Mogel).—Cucharón.

BURKUAK (P. A.-Mogel).—Cuñas grandes que ajustan los *aldabarrak*.

BURUTIA (P. A.-Mogel).—Mitad de la goa que queda con el mango.

DENDALA (P. A.-Mogel).—Apoyo del mazo y su sostén en las ferrerías.

DENDAL-ARRIJA (P. A.-Mogel).—Piedra a la que se fija el *dendal*.

DURMIENDIA (P. A.-Mogel).—Pieza mayor de la ferrería que sirve de apoyo a las demás.

ERRETILLU (P. A.-Mogel).—Fuente, plato grande.

ESKAMELA (P. A.-Mogel).—Brazo del fuelle.

ESTOLDA-ALDI (P. A.-Mogel).—Alcantarilla, caño en que se vierte y se da salida a la escoria del hierro en las ferrerías.

GABI (P. A.-Mogel).—Martinete o mazo grande de ferrería.

GABIARDATZA (Cor.-Lar.) = ARDATZ-NAUSI.

GABIGUN (P. A.-Mogel).—Mango del mazo, viga de haya fuertemente zunchada con anillos de hierro tensables, en toda su longitud.

GABITEGI (P. A.-Mogel).—Departamento destinado al martinete.

GALBAI (P. A.-Mogel).—Cedazo, criba.

GALDA (Eibar).—Fundición, hornada.

GALDABATEKUAK (P. A.-Mogel).—Se dice de las cuatro piezas en que se divide la goa. Indica "de una hornada o colada".

GALLETIA (P. A.-Mogel).—Herrada, cubo, acetre.

GATZAMALLE (P. A.-Mogel).—Aprendiz, recadista de ferrería. Ponía la sal al puchero.

GERRIGALDA (Los Vascos-Caro Baroja).—Mitad de goa sin mango.

GILTZA (P. A.-Mogel).—Compuerta de saetín o cauce de molino. Llave para apretar las llantas.

GIZATEGI (P. A.-Mogel).—Salón, comedor en las ferrerías.

GUZUR-ASKIA (Cor.-Larr.).—Entrada del agua en la especie de tubo de madera calafateada, en el cual por efecto de la

caída libre del agua se producía una aspiración de aire que era dirigida a la fragua. Este tubo hacía las veces de fuelle, en algunas ferrerías. Estaba exento de mecanismos.

IDURI (P. A.-Mogel).—Cisco, carbón muy menudo.

IDURIJELA (Los Vascos-Caro Baroja).—Pared de fragua que queda frente a la pared que lleva el *ziar-zulo* o salida de escorias.

IJELE (P. A.-Mogel).—Laminador.

IKATZA (P. A.-Mogel).—Carbón.

IKAZGELA (P. A.-Mogel).—Carbonera.

IXILLUBA (P. A.-Mogel).—(Eskoriaza) banco de cocina sin respaldo.

KAIKUBA (P. A.-Mogel).—Cazo, cuenco.

KAÑUBA (P. A.-Mogel).—Caño, tubo, tobera, ventilador, caño por donde entra el agua.

KAPELIA (P. A.-Mogel).—Sombrero de ferrones.

KAPELA ZAPI (P. A.-Mogel).—Pañuelo de la cabeza, bajo la *kapela* para recoger el sudor.

KATILLU (P. A.-Mogel).—Taza, escudilla.

KUNBO (Eibar corriente).—Depósito de agua más alto que la rueda.

KURUTZIAK (P. A.-Mogel).—Cruces.

KURRIKA (Cor.-Larr.).—Tenazas grandes y largas de ferrería.

JUNGUDE (P. A.-Mogel).—Yunque.

LEYUAK (Los Vascos-Caro Baroja).—Galería de mina.

MAKUBAK (P. A.-Mogel).—Llantas de la rueda.

MALLUBA (P. A.-Mogel).—Mazo.

MAZUKARI (Cor.-Larr.).—Dentellones del eje de levas que accionan sobre los brazos de los fuelles o bien en el extremo del mango del mazo.

MEALLE (Cor.-Larr.).—Desmenuzador del mineral.

MIA (P. A.-Mogel).—Mineral.

MIATEGI (P. A.-Mogel).—Depósito del mineral.

NARDAKIA (P. A.-Mogel).—¿Pértiga?

OBRERIA (Cor.-Larr.).—Camisón de los ferrones.

OLA.—Ferrería.

OLAGIZON (Cor.Larr.).—Ferrón.

OLATXO (Cor.-Larr.).—Ferrería menor.

ONDA-ASKIA (Cor.-Larr.).—Salida del agua que entra por el *guzur-askia*.

ORRIKAK (P. A.-Mogel).—Tenazas grandes.

PALANKIA (P. A.-Mogel).—Palanca.

PARADERA (?).—Puerta que se levanta para dar paso al agua del saetín.

PARIA (P. A.-Mogel).—Pala.

PORROIA (P. A.-Mogel).—Porra de ferrería.

POTA (Cor.-Larr.).—Palas o álabes de una rueda hidráulica.

PUJO-MAKURRA (P. A.-Mogel).—Tirador, palo con el que se mueven a mano los barquines en las *aizeolas*.

TIKINOI (P. A.-Mogel).—Rueda hidráulica.

TIKINOI-NAUSI (P. A.-Mogel).—Id., íd., correspondiente al martinete.

TIRADERA (Cor.-Larr.).— Ferrería pequeña.

TOBERA (P. A.-Mogel).—Conducto de aire a la fragua.

TOPIÑA (P. A.-Mogel).—Marmita, olla.

TOTXO (P. A.-Mogel).—Lingote, mitad de la goa que queda sin el mango. Euzko Gogoa núm. 11-12.—*Ola zarrari begira* de José Errota.

SUTEGI (P. A.-Mogel).—Fragua.

TXAPA (Caro Baroja-Los Vascos).—En la fragua, pared que queda enfrente de la tobera.

TXIKITZALLE (Cor.-Larr.).—Jefe en las *tiradera* o ferrerías pequeñas.

TXIRIKIÑA (P. A.-Mogel).—Tenazas grandes de ferrería.

TXAKURZULO (P. A.-Mogel).—Hueco que los ferrones hacían en la pared de su ferrería para extender por él el hierro laminado. Salida del hierro pastoso.

TXIMELA (P. A.-Mogel).—Según Azkue cierto utensilio de ferrería.

TXINBO (Cor.-Larr.).—Orificio por donde el agua del depósito o embalse va a la rueda.

UAGIA (P. A.-Mogel).—Bomba, palo que se levanta para dar paso al agua que va a la rueda.

UJAIKIJA (P. A.-Mogel) = UAGIA.

URAGA.—Bomba.

URKULIA (P. A.-Mogel).—Horquilla para echar el combustible al horno. Tenaza.

URTZALLA (P. A.-Mogel).—Fundidor.

USTEI (P. A. Mogel).—Llanta de la rueda, aro.

ZAMARRA (Los Vascos-Caro Baroja) = AGOA.—Goa.

ZARA (P. A.-Mogel).—Cesta.

ZEARROLA (Cor.-Larr.).—Ferrería movida por agua.

ZEPA (Eibar).—Escoria.

ZEPA-AMIA (P. A.-Mogel).—Según Azkue, cierto utensilio de ferrería = ZEPU-AMIA?

ZEPOTILLUBA (P. A.-Mogel).—Postes en que se apoya la rueda mayor.

ZEPU (P. A.-Mogel).—Cada uno de los cuatro postes que sostienen los cojinetes en los que gira el mazo del martinete.

ZEPU-AMIA (P. A.-Mogel).—Pieza grande de madera en que se apoyan los *zepu*.

ZIAR-LEKU (Los Vascos-Caro Baroja).—Depósito al que caen las escorias a través del *ziar-zulo* en las ferrerías.

ZIARZULO (P. A.-Mogel).—Agujero por donde sale la escoria del horno o fragua.

ZILLARRA (Cor.-Larr.).—Escoria derretida y ardiente.

ZINGUZANGU (Cor.-Larr.).—Travesaño o cruz a que están unidos los fuelles o barquines en las ferrerías menores, sin duda para mover a mano.

ZIRI (P. A. Mogel).—Cuña, clavija.

ZIRILLU (Los Vascos-Caro Baroja).—Fondo de la fragua.

ZIRRIA (Cor.-Larr.).—Rayos y centellas que lanza el *agoa* al golperalo.

ZUTOI (P. A.-Mogel) = ZEPU.

J. Z. E.

Zubiaurre-ren itzaldia bukatuta urrengo goizerarte utzi da. Biaramonean jarraitzen da. Arrue, Lojendio, Irigaray ta Gorostiaga etorri dira eta maipuruan jarri besteekin batera. Irigaray jaunari eman zaio aldia.

MOGEL ETA LITERATUR - EUSKARA

Euskara idatziaren batasunari buruz. Beste izkuntzetan egin dutena, Alemanian, Cataluñan. Orain 38 urte gure euskalari batzuen iritzeak. Orain hemen egin zaitekena; idazlarien artean, iztegiari buruz, aurreen irakastean. Batasuna ezpada, euskalkiak elkargana-agotu.

* * *

Juan Antonio Mogel idazlari andia, euskera idatziarendako griñatu ote zen eta kilikatu? Bai dudarik gabe, bere libu-

rutxo aberatsean argi aski aditzera ematen duen bezala. Bertan, izkiriatzeko tankeraz eta maneraz, mintzo zaigu, erderatik artu bear lirateken kultur- itzetaz, phonetikaz eta itzeen soiñuen idazteaz. Bai eta euskalkien urbiltzeaz ere axolatu zen euskara- batasun biderako leen urratsa den bezala.

Ikus bestela *Peru Abarka* novela-ren 6 garren elkarrizketan, Joanis baigorriarra-ren eta Txorgori- giputzaren esanak, bersoak, otoitzak: bakotxa bere euskalkian zertako ematen ditu? Bizkaitarren eta giputzen eta frantses-euskaldunen arteko ezaguera eta artu-emana erein naiez dudarik gabe; eta iruen euskarak elkargana-agora bildu nairik.

Mogel andiaren bide hori besteek orduan jarraiki balute, segur ez gindeke gaurgero euskara idatziaren batasunetik ain urrun. Horrekin ez dugu esan nai beren gogoeta eta aburu guztiekin bat egiten dugula, etimologietan eta garbiketaz aritzen delarik; baiñan bere idazteko tankera eta bere umore ederra arras gogoko zaizkigula bai.

Eta orai zerbait egin dezakeguia, euskara idatziaren inguruan? Bistan da euskara bakar izkiributako ezin dukegula oraintxe autetsi. Baiñan segitu baiño len, derragun, auzi hori xuritzeko tokiko euskaraz beste euskalkiak ere dakitenak behar ditugula.

Eta hortaz gaiñera, kasu berean dauden beste mintzairekin egin dutena dakitenak. Urratsez urrats joan bear da, korapillo tink hau laxatzeko, eta borondate on batekin, norberekeriak alde bat utzirik.

* * *

Bestela Noruega-koeri gertatzen zaiotena gertatuko zaigu. Haugen linguista mintzalariak dio, bi izkuntza mota dituztela orai, Landsmäl eta Riksmäl deituak; hau da, baserrikoa eta dano-noruegatarra dalakoa, 1900 garren urtetik hunara, oraino finkatu gabeak.

Iñoiz ere ikusi ez den saio bat egin gogo dute orai; bi mintza-molde horietarik, naas eta, berri bat sor arazi. Haugen linguistak dio eztabaia hau azpijokoz derabiltzatela, herri xeearen aburu eta meatxuen bildurrean.

Gobernua ez omen da izkuntza mintzatuan sartzen, izkiriatuan baizik; ez du Iztegian agintzen edo esakeretan; graphian xoilki. Saio ausart hunek arrakesta izango duenez ikustekoa da.

Bitxi da beraz, noruegatarrek izkuntza literarioa autatzeko duten moldea. Botazionetan autetsi dute herriko mintzo hori, autagoa iduri zuelarik jende letradunen beste mintza-molde hori, leenagotik finkatua eta edatua.

Bainan Noruegan herri xehearen aldeko botoak aunitz geiago dira handieriarenak baiño.

* * *

Dakusagun orain aleman mintzairak zer bide eraman duen. Batasuna, dakizuten bezala, mintzaira izkiriatuan bakarrik erdietsi dute, 5 mintzamolde bereziak bizi baitira bizkorki jendeen aotan. Twadell linguista amerikanoak dionez, XVI garren mendeko liburugilleek ez zuten bere probintziako aleman mintzamoldean baizik imprimatzen.

Suiza eta Holandia kenduz 5 dialekt agertzen ziren liburuetan: sajon-goikoa edo meissnisch deitua (Leipzig); Babierakoa (Augsburg); Rin-goikoa (Strassburgo); Rin-erdikoa (Kolonia eta Frankfurt); eta Frankoniakoa (Nuremberg).

Luther-ek indar andia eman zion batasunari, meissnisch izkelgi hori autatzearekin, bere ospea eta edaduren gatik protestant eskualdetan; lexikoan eta semantikan autu eta lan ona egin zituen; sintaxa ez zuen ain latina, eta graphian eta phonetikan guti berritu zuen.

Onartu zuten leenak prinzipeak eta letradun iritarrak izan ziren, herritarrak baiño geiago. Iparraldeko eskoletan arrotz izkuntza bezala irakasten zen; egoaldeko Eskola katolikoak etziren orduan batasun huntara sartu, baiñan XVIII garren mendeko goren maillako idazlari multzo batek, bere izkiribu baliosen medioz, desegin zuten ipar eta egoen arteko berezitasun geienak.

Herder, Klopstock eta Wieland iparraldean eta Lessing, Schiller eta oroz gaiñetik Goethe beste aldeetan, izan ziren izkuntzaren bateratzaile gorenak.

Batasun osoa etzen alabainan erdietsi Bismarck-en indarraldiko demboraraiño; eta gero batzarre bat baiño geiago ukan bear izan zuten. Azkenik 1901 garren urteko Batzarrean, Austria, Suiza eta Alemania-koen artean graphia finkatu zuten eta izkiria-moldea.

Eta 1907 urtean legez bortxatu Eskolategi guzietan. Ordutik Duden delakoa ezinbestekoa da idazlari eta liburugille guziendako. Neke eta lan luze horiek izan arren, aleman mintzatua ezta 1959 urtean batetaratua.

Esan dugun bezala, egun 5 izkelgi badira; baiño aleman bateratuan denek idazten aal dute, eta huntan eta eskualdeko dialektoan ere mintzatzeko gai dira.

Beraz aleman izkiriatua edo literarioa, mende luzeetan egin bear izan da, idazlari goienekoeri esker, baiñan bortxatu bear izan da ala ere legez eta larderiaz.

Urrun gaude beraz gu eskualdunak geren Herri ttipian, eta ezta batere arritzeko euskalki batzu baldin ba ditugu, eta finkatzekoa oraino gure mintzaira izkiriatu bakarra. Ezta beraz etsitu bear eta goazen saiatuz presarik gabe. Alemanek mendeetan egin dutena guk ezin illabete batzutan bururatu.

Dakusagun orai gure auzo catalan mintzairakin egin dutena. Literatura franko aberatsa du erresumaren laguntzarik gabe izateko. Ez du gureak bezalako estutasunik jasan, jada XI garren mendetik hunara izkiriatu baita; eta Erregeek leeneko etsemplua.

Hunek uts egin dio funtsean euskarari, Nafarroako erregeen ezagutzak, eta ondotik diraukeo beti, bere Letradunen guttiespenak; "élite" delako bat izan dugu eskas.

Ekialdeko catalana da orai idazten dena; bainan beste 4 motak (mendebaleko, Valencia-ko, Mallorca-ko eta Rosellonekoa), eztute desberdintasun andirik beren artean eta izkiribuan abantxu deus ez. Pompeu Fabra gramatikalari ezaguna izan zen 1913 urtean bateratzaile andiena, geroago ikusiko dugun bezala.

* * *

Eta etxekoz zer guk? Gure mintzairak jasan dezakeia bere oraiko kenka txarrean, euskara idatzian aldakuntza andirik egiten has bagine? Nik uste oraikoz auzia zedarritu eta mugatu beharko dugula.

Baiño dakusagun leenik zer zioten hortaz gure euskalari ezagun batzuek, ezpaita oraikoa euskara bateratu baten griña.

1922 urtean Euskaltzaindiak 4 Biltzarre egin arazi zituen hortarako; Bilbon, Donostian, Baztanen eta Hazparnen. Entzun ziran 14-15 iritze, kolore guzitakoak eta oroen gaiñetik, Broussain orduko Hazparneko alkatearen eta Campion idazlariaren informea.

Emanen ditzuegu aditzera opinione batzu, on baita ikustea zenbeit gauzetan aurrerapen poxi bat egin dugula; eztu balio beti negarrez eta etsiturik ibiltzea.

Broussain eta Campion jaunek ezdute bere izkiribuan aldebat autatzen euskalki bat, literario gisa, besteeri kalte ez

egiteagatik, baiñan gipuzkoarraren aldera ixurtzen dira. Naiz Bizkaikoa, diote, berdiñena den, sendoena eta edatuena; lapurtarra ongienik izkiriatua eta Ziberokoa izpiritutsuena.

Arrigarri zaiguna; gipuzkera eta lapurtarraren arteko autsi-mautsi bat proposatzen dute, besteetatik ere zerbait artuz.

A. Zabala-Arana gramatikalari giputza ere, euskalki bakarraren kontrakoa da.

B. Gaubeca, Bermeoko liburugilleak dio; bizkai-euskara autatu besteak baztertu gabe, eta erdal usaiñeko itz oro kendu.

Mikolas Cortes, Bilboko apezak dio; Eztela euskalki bakar bat autatu behar literario bezala. Aski dela aur euskaldunei irakurtzen irakastea; eta euskara hori erritarra nai du eta ez garbizaleena.

Federico Belaustegigoitia, Garitaonaindia (ARGIA-ren zuzendari zena), Egusquiza euskalzaina eta Azkue gure euskalzainburu ospetsua zena; lauak bizkaitarrak, giputz euskalkia autatu behar dela diote; eta Azkuek horren inguruan eraiki nai izan zuen gipuzkera osotu hura.

Bide puska bat egin zuen gure artean, bainan gogor-aire bat sumatzen zitzaion euskalki berri horreri, eta Franziako euskerataz etzen guti baizik axolatu.

Belaustegigoitia iskribauak zion: "Euskera bakar batera "joan laster, edo erdera bakar batek lurpetu; Gipuzkoako eus-"kera [eta euskera errikoa] ala erdera, guretzat beste biderik "eztago."

Amayur-ko erretore ospetsua eta izkiriazale ona izan zen Gurutz Goienetxe jaunaren iritzea irakurri nai datzuet laburzki, zentzu andiko itzak direlakoz dembora aietako.

"...Nere iduripena deus gutikoa bada-ere, aal bezain lano-"ki eta garbi emanen dut.

"Guzien gogorako gauza litzake eskualdun guzien artean, "odolez bat garen bezalaxe, eskual-era bat bakarra izatea.

"Bañan erran bearko baitugu naski aspaldiko itzneurtzai-"leak ziona; "...Video meliora, proboque, deteriora sequor..." "Bearko. Ikusten dugu denek oberena litzakela eskual-era bat "artzea, baiñan denekin gelditu bearko. Zergatik?

"Hara zergatik. Urrats horren ematea gauza zailla, nekosa "eta eskuararentzat kaltegarria izan laikelakotz. Hori egiteko-"tan bat bear ginuke artu. Zein? Ezta errex erabakitzea.

"Eskualdunek buru gogor aire bat ba dugula derasate baz-"terretan; hori ez ala izan ta ere, au bai egia aundi bat da,

"eskualduna atxikia dela bere gauzei baita bear ere; eta ez "luke neork naiko bere amaren altzoan ikasitako era bazterre- "rat uztea, zokorat igortzea.

"Euskalki guzietarik bat artzea *orai bein*, ezta egoki den "gauza. Erran dut orain bein. Gero zer egoki izain den geroak "erakutsiko du.

"Eskuararen batasun hori ez indarka, baizik bere baitatik "etorri bear den gauza da.

"Guzion gogorakoa. On aundiak emain luzken gertaera; "eta denek, bakotxak egiten aal duena eginez, urratska urrats- "ka bilatu bear duguna..."

Euskara idatziaren batasuna beraz, ezin bada lortu Euskaltzaindiaren edo Eskola baten agindu edo iztegi edo gramatika berri baten bitartez, horiek ametsak diralako, idazlariek asko egin dezakegula nago, euskara idatzien desberdintasunak laburtzeko, gero eta geiago edatuz idazteko molde erdiko bat; alde batera utzi gabe, aatik, bizkaiera edo ziberotarra; baiñan hoketan ere saiatuz elburu hortara.

Baiñan hortarako, iduri zaigu erabaki batzu hartu bearrak direla izkiriatzeko moldeari buruz, eta autsi-mautsi bat egin Iparraldeko eta hemengo idazlari batzuen artean. Gure uste apalean, 3 mailletan egin bear litake autsi-mautsi akordio hori; *idazteko moldean, graphian* eta *iztegian*. Erdara-euskara iztegia baita mugaldi eta okasione bakarra, xeekeri askotan, batasun aldera jotzeko iparrekoek eta guk.

1. *Moldea eta joskera.*—Izkiriatzen dugunek itzak eta esakerak bear ginuzke autatu euskaldun geienek aditzeko gisan, Mendiburu-k jada XVIII-garren mendean zion bezela; eta bazterretako itz bitxiak ez geiegi.

Eta ez geiegi ere geren herrixkako mintzaira bereziari lotu. Eta naiz erdaratiko hitzen usatzea laguntza anditakoa den euskalki guztien batasun alderako, euskaldun guztien artean edatuenak direlarik; hala ere esan bearra dagola uste dugu, ez dela euskera idatzian bein ere goratasuna galdu bear, garbi eta lerden idukiz gure mintzaira aal bezenbat, mordollokeri itsusi batera erori gabe; hartarako XIX garren mendeko autore onak irakurriz eta euskaldun menditarreei adi adi egonez.

Karia hortara Mogelek dio; ..."baña bestelango berba "arrotzak kendu bear dira, dagozanean euskerako izen garbi "ta nekezarien artean artu eta aotubak..."

Idazteko moldean, itzen joskera-mota bi badirela batzuetan aitortu bearra dago, eta uste dut etzaiola iñorreri gaitzituko esaten badugu zenbeit kasutan libre dagola idazlaria gisa batera edo bestera egiteko. Berdin zuzen daude; *loak artu nau* eta *lokartu-naiz*; *ortaz goxatu da* eta *hori goxatu du*; *txori bati ohartu da* eta *txori bat ohartu du*; *lege hortaz baliatu da* eta *baliatu du lege hori*. Ez ditzagun bada geiegi ertsi euskararen moldeak.

Irakurtzen dira: *Langilleak ez du kexatu bear*, eta *Langillea ez da kexatu bear; Orain arte lurrakin borroka aritu naiz*, eta *Orai arteo lurrari borroka egin diot*.

Alaber dakuskigu: *Zure laguna lagun zazu*, eta *Lagundu zazu zure lagunari*; *Lanari iges joan da*, eta *Lanatik iges joan da*; *Nekazaria euri eske dago zeruari*, eta *Nezakariak zeruari euria eskatzen dio*; *Semea mutur dago aitari*, eta *Semea mutur dako aitarekin*; ...*Zillar ezteiak*, eta *Zillarrezko ezteiak*...

Bainan iduri zait bigarren esakerak ezdirela euskara jator

Euskalkien bereizkuntzak ttipitzeko ere bide egokia litzake, XIX garren mendeko giputz autore oneei geixago jarraikitzea; esakera jatorretan nausi baiditugu *J. B. Agirre, Iturriaga, Gerriko, Gergorio Arrue, Lardizabal*, eta bai *Mendiburu* erdinafarra, zaarragoa bada ere.

XIX garren mendeko bizkaitar autoreen artean baditugu ere joskeran ta bizitasunean eredutzat artzen aal direnak. Nork *Fr. Bartolome* Markinakoak bezenbat gatz eta piper, eta *Mogel, Añibarro, Astarloak* beste euskara garbi eta bixi? An eta emen akatsen bat atxeman arren?

Lapurtarretan ere, beste horietan bezalatsu, aise argiago eta errezago egiten dira geienentzat, XIX garren mendeko *Haraneder-Harriet Duhalde, Duvoisin, Elissamburu, Iriart-Urruty, Arbelbide, Abbadie*, eta halako, oraiko idazlariak baiño. Ezen gibeleratago eta urbilago gure euskalkiak.

Gure kasuan atzeko aldera ari dena aurrera doaie. Eta hemendik 40 urteetara beira, idazten ari dena berriz, batasun aldera naiez, gero eta geiago baztertzen da elburutik.

Irakurleek aise garbiago eta errezago arkitzen ditugu *Oihenart, Maister, Tartas*, edo *Inchauspe* edo Ziberoko *Armanakak*, oraiko idazlari ziberotarrak baiño. Mintzaira bizia pikortzen eta errausten baldin ba doa, euskara idatziak eztu bide bera eraman bear, iraun nai badu.

Karia hortara, Pirineoz bi aldetako euskararen artu-emanak geiagotzeko eta elkarren berri edatzeko bide ona, Baionako astekariek artu dutena da, eta berdin gure artean ere; aldioro

argitaratuz beste aldeko euskal lan bat, eta obe, besterik ezpadugu, XIX garren mendeko autore horien zatiño bat.

Elburu eta xede orrekin egina da berriki A. Omaechebarria-ren *Euskera* liburuaren krestomatia laburra, eta leenagoko P. Lafitte-ren *Eskualdunen Loretegia*. Guk ere, euskalkien urbiltzeko xedetan argitaratu ginuen EUSKALERRIKO IPUIÑAK liburuxka.

Berrogei kontu dakarzki, bizkaitarrez, gipuzkoeraz eta nafar-lapurtarrez, sailka, eta denak herriko euskara garbian.

Karia hontara asi gara Donostiako EGAN aldizkarian agertzen Euskal Literaturaren bilduma labur bat. Hunaraiño, *Dechepare, Leizarraga, Bertran de Echaux, Garibay, Joannes Detcheberry, Materre* eta *Axularren* zatiak publikatu dira euskara laxoan.

2. *Graphia.*—Ortographia kontuan zerbait aurreratu dugula iduru du; Iparraldeko HERRIA etaGAZTE astekarietan *x* letra usatzen asi dira aldika *ch* ordez; eta *h* letra hori ere xuhurkiago, Kostaaldeko usantzaren arabera. Gure artean asi dute batzuk *h* letra usatzen ere zenbait kasutan; bi vocalak berexteko *(ohore-zuhur-bihotz);* adiarazpenak bereizteko *(zurr-zuhur; ori-hori; ura-hura); p - t - k* letren ondotik usatzen ez padute ere; naiz guaurk aoskatzen dugun batzutan *h* hori, *ikharagarri* itzan bezala. Gure artean ere askok idazten dute *ll - rr - tt* dobleak, *r - l - t* pikordunak baiño gogotikago, frantses euskal-idazlariek bezala; bereziki batasun aldera nai dutenek; eta Euskaltzaindiak on artzen duen bezala.

Izen arrotzetan berriz jada guztiek errespetatzen dute euskaraz idaztean, etorkiko graphia; hala *Vaticano-ko, California'ko.* Iparraldekoek bezala, usatu bear ginuke *j* letra beti, naiz *y* naiz *j* soiñu adiarezteko.

Kulturitzetan berriz uste dugu itzaren ospea eta jatorria errespetatu bear litzakela euskerara pasatzean *geographia, psikologia* (ez *sikologia,* erdaraz asi diren bezala).

Baiñan kasu oketan, dudazko direnetan, premiazko deritzagu aixtian aipatutako ipar eta egoaldekoen arteko Akordio hura, elkarrekin joateko aal bezambat.

Phonetismoak eta *laburpenak* utzirik hitzak osoki idatzi bear direla gaude, eta ez letrak eta silabak janez, mintzatzean bezala. Sail ontan ere asko aurreratu dugu.

Bizkaieraz eta bizkaitar ez direnendako aunitzez argiago eta errezago egiten da irakurgaia, Añibarrok idazten duen be-

zala, *maitea, argia, bearra, gozoa, bere* —idatziz, eta ez *maitia-argija-biarra-gozuba-be.*

Mogelek ez du bide hori segitzen, baiño dio; "...Yo he de "confesar q. es más expedito, menos embarazoso y al parecer "más arreglado, cuando sin variación alguna se terminan las "voces con sola la adición articular (del artículo), *arguia, oguia, "zuria, burua, escua...*"

Berdin beste euskalkietan, obe da idaztea *anartean,* eta ez *anartian*: *ari* eta ez *ai* edo *ar.* Izkiriatzen duenak kontuan artu beharko du, irakurle geienak eztirala bere eskualdeko izanen, eta bere euskalkian bearbada *eiak* eta *eriak* eztirala berdin, eta ez *aitza* eta *aritza,* eta ez *guria* eta *gurea* ere.

Baxenabarreko *buria, liburia,* itzak zuzen daude, eta eztira *e-i* eta *o-u* letren aldakuntza bezalakoak.

Hola osorik idatziz, tokikoa ez denak adituko du, eta bertakoak ere bai segur aski. Laburpen eta phonetismoak ordea, kontuak eta eleketa biziak idaztean, ongi daudela uste dugu.

3. *Iztegia.*—Beste mugona batasun aldera urrats bat egiteko, iztegia da, Orai prestatzen ari den erdera-euskera iztegi andi hortan gure adiskide A. Mujikak aurrerapen andi bat egiteko okasione bakarra du, eta eztugu uste baliatuko ez duenez.

Iztegian onartu bearrak diran eta orai eskas ditugun zenbeit itz (*Geographia, Gramatika* eta *Historiakoak*) aurren liburuetan usatzeko; eta berdin kultura arrontari doazkonak, Tournier-Lafitte-n Iztegitik hartu bear zitazken. Hortarako leenik Iztegi hori ikuskatu bear da, eta handik artu gaztelera biurtzeko. Han eskas direnak berriz gisa berera euskeraratu batzuk eta besteek aal bezenbatean.

Halaber, ez ginuke itz berrien asmaketan asi bear, Franziako euskaran bizi badira guk eskas ditugunak; hala nola: "sucursal" = *etxekide*; "mercado común" = *elkarrekiko merkatu*; "entierro" = *eortzeta*; "representación teatral" = *ikusgarri*; "joyería" = *zillartegi*; "actor" = *jokolari*; "territorio, extensión" = *eremu*; "aeroplano" = *aireko*; "apellido" = *deitura,* eta eun beste alako.

Kasu huntan komeni da ikustea zer egin zuen Pompeu Fabra catalan izkuntzalari andiak, Iztegia osatzean, Hector Folch philologoak dionez; "Redactó en 1913 sus *Normes "ortográfiques,* q. fueron seguidas por la mayor parte de escri-"tores catalanes; guardando un equilibrio entre los elemen-"tos populares y los nuevos.

"Pero estas normas lexicales y gramaticales, hay que ha-
"cerlo notar, las fué antes dictando sólo como ensayo hasta
"tanto que los escritores las llevaban a la práctica; y sólo
"cuando vió que las usaba la mayor parte, las introdujo en
"su Gramática y en su *Diccionari.*

"Y se dieron repetidos casos de normas propuestas, y no
"aceptadas por los escritores, en cuyo caso Fabra las retiraba
"inmediatamente."

* * *

Euskara irakasteko Metodo bat osatzen dugunean berriz, ikaslariaren burua ez geiegi naasteko, zertako ez obetsi verboaren forma perifrastikoak, sintetikoak baiño areago, azken ok gutti usatuak direlarik? Penagarri ba da ere, errezetik gaitzagora joan bearko, ikasleak izan nai baditugu.

Eta *izan* verboaren laupabost forma berezien artean, ez litake batere gaitz, bat edo bi autatzea, edadura eta erreztasunaren arabera, kasu bakotx, Bidaso bi aldetako erdiko-euskara idatzietan usatzeko. Huna noraraiño eltzen den forma batzuen itxurapenezko aberastasun kaltegarria:

Dio -dako - derauko; naiz - naz - niz; digu - dauku; zarazera - zira - zare; dit - daut - deraut; litake - litzake; zerate - zarate - zate - zaizte; lizaioke-liozake; diozka - diotza - dizkio; lioteke - liokete; dazut - dizut - derauzut; duzue - duzute - dezute - dezue...

Forma eta kasu horiek eta horiek bezalako beste batzu, arrontenak aunitz aldiz usatu bear izaten baitira izkiribu batean, pentsa zer abantaila ginuken, batekin (edo biekin) soilik izkiriburako, ongi autatuz.

* * *

Esandako zenbeit pontutan ni oker egotea baliteke, eta horrengatik dakitenen iritzea eskatuko nuke. Baiño iduri zait, bide hok geienak eta horrelako beste batzu ere, emeki segituz gure aldizkari edatuenetan, ez osotara, artikulo bat edo bestean baizik; eta Iztegia bururatzean zuhur jokatzen ba da, iduri zait diot, urrats andi bat egin daitekela dembora laburrean, batasun aldera ez pada, euskalkiak elkargana urbiltzeko bederik; euskara mintzatua bizkortzen ba da beinikpein.

Eta euskara mintzatua bizkortzeko sail gogor eta aldapatsu hau aipatzean, kontuan artu bear dugu euskal-liburu

gutti irakurtzen direla gure aldean, 700 bat geienaz ere, edizione bakotxetik, eta 3-5 mila aldizkariak soilik.

Gipuzkoako 3-4 Radio-emailleen euskal eleketak berriz, 25 mila baiño euskaldun geiagoek entzunen dituztela nago, astean bizpairu aldiz. Bistan da bada Radiotarako *guion* direlako horietako bear ditugula euskaraz, nobelak baiño premia geiagorekin.

Beste aldetik gure erritarrek gutti irakurtzen badute euskaraz, Euskal Teatroa ikusteko zaletasun bizi bat nabaitzen da egun oketan. Horrengatik uste dut Teatro jokolari taldeak azkartu, lagundu eta eskolatu bear ditugula; iparraldeko komediak eta gai egokienak gure aldetarako antolatuz, eta berriak ere idazten susta-araziz eta lagunduz.

Eta hunekin bukatzen dut milesker emanez orori, eta gaizki esanak barka otoi.

A. Irigaray.

A Irigoyen: Norbaitek ezer esan nai baldin badu esan dezake eta berriketaren ostean Lojendio jaunak itz egingo du.

Aita Larrañaga apezpiku jaunak: Gauza bat esan nai det, noski beste iñor esatera ausartuko ez dana. Oraindik iñork esan eztuena emen eta esango eztuena, nik ala uste det. Ari gera euskal batasunaz itz egiten. Nik eztet uste euskaldunak besteak baiño norberekoiago geranik. Ikusi dezute zer gertatu dan Holandan, Alemanian eta beste toki askotan, emen ezta esan baiña alako gauzak gertatu dira. Batasuna egiteko bearra izan da gobernuaren agindua, eta, bakoitzak bere buruz eztute egin batasun ori. Gure euskeraren batasuna egitea zailla da eta zailla izango da, eta urte askotan, agian mendetan, zail izango da, politikako batasuna euskaldunak eztegun bitartean. Nik eztet esan nai politikako batasun ori, ez nere itzak gaizki ulertu, eztet esan nai Espaiñiatik berezi egin bear dala. Geiago esango det, Espaiñiatik berezi, guk gerok euskaldunok utzita, ez gendukeala egingo. Gipuzkoarrak, bizkaitarrak, arabarrak historia guzian berezi izan gera. Bakoitza izan da bere buru. Bakoitza estadu bat bezela izan dira. Eta ori sartuta dago gure muñetan, gure ezurretan, berezi izatea, eta ezin gera bildu. Eta gu, guk nai deguna egiten utzi, ta Espaiñiako lau probintziok uste det oso zail egingo gendukeala gure politikako batasuna, oso zail izango litzakeala guk guretzako buru bat, danontzako buru bat autatzea, eta danok buru onen azpian gure

buruak jartzea. Eta gure batasun ori, politikako batasun ori, egitekotan, egin bear litzake Madrileko gobernuak beartuta, bortxatuta, eta bestela eztala iñoiz egingo. Eta politikako batasun ori egin arte eta guk buru bat euskeraz zer egin bear dan agindu dezakeana izan arte, batasun ori nere iritzian oso zailla izango da. Badegu Euskaltzaindia, baiña Euskaltzaindiak eztu berak egiten duana beteazitzeko indarrik. Euskaltzaindiak erabakitzen du zeozer eta nai eztuanak entzun eta nai eztuanak egin eztu egingo, ez entzungo eta iñork ezin dezakio ezer esan eta iñork ezin dezakio aginduazi ta eginarazi. Bear litzake buru bat, indarra duana, Euskaltzaindiak egiten duana eginarazteko. Ta bitartean lan egingo degu, alegiña egingo degu batasun orren alde, baiña zail izango da egitea. Eta ez norberekoi geralako bakarrik, mundu guzietako erriak ala izan dira. Ezin izan dute egin batasun ori. Ibili dira lan eta lan eta ezin egin batasuna, beren izkuntzaren batasuna, eta gu ere olaxe gabiltz eta olaxe ibiliko gera luzaro nik uste. Ala ere orregatik eztegu egin bear bakoitzak nai duana, alegindu bear degu danak bat egiten, eta itz egiteko eskubidea duanaren itzak entzuten.

L. Mitxelena jaunak eskatu du aldia: Bi itz esan nai nituzke orain ukitu diren gauzei buruz. Aita Larrañaga jaun agurgarriak esan duen bezela, Euskaltzaindiak oraingoz eztu bere erabakiak argitaratzeko beste eskubiderik, eta gaiñera, nere ustez, ezta bearrezkoa ere besterik izatea. Ni ziaro bat nator Irigaray-rekin zenbait gauzatan. Atzo emen esan genduen bezela, uste dut batasun kontu ontan, badirala gauzak gaitz eta zail eta eragozpen askorekin baizik lortuko eztitugunak. Beste zenbait berriz, nere ustez, jakitea naikoa da batasun bidean ibiltzeko. Nik neronek askotan izan ditut dudak eta besteak ere bai noski. Alegia, zer bear litzakean ontan, zer bear litzakean artan, zein dan gauzarik egokiena, zein onena, zein zabalduena. Bide ortatik, gauzak argitzen eta garbitzen, uste dut, ez Euskaltzaindiak bakarrik, baizik euskalari guztiak ere, gauza asko egin ditzaketela. Esan nai dut, gure artean sortzen diran bereizkuntza asko, ez jakitetik bakarrik etorri oi dira. On ustez edo obe ustez idazleak erabiltzen ditu gauza batzuek askotan, berak ala uste duelako, baiña obeto baleki, bear bada, bere iritzia aldatuko luke. Ni, Irigaray jaunak esan dituen gauzetan konforme nago, bai ortografia kontuan, bai iztegi kontuan, eta abar. Beste gauza bat ere badaukagu, eta ori da morfolojia kontua. Ori da, batetik eragozpenik aundiena batasunerako, eta bestetik, bear bada. gutxiena ezagutzen duguna. Esan nai dut, itzei buruz Azkue-ren iztegian eta beste iztegietan ere argi asko atera genezake, baiña morfolojia osorik alde askotatik eztaukagu.

Badakit Azkue-ren «Morfologia Vasca» dagoena, eta nik neronek beti erabiltzen dut. Eta badakit munduan izan dan gauzarik onena dala. Baiña Azkue-ren «Morfologia»-k danok dakizutenez badu zati bat uts xamar agertzen dana. Eta da verboarekiko guztia. Eta batasun biderako, bear bada, auxe ere komeni litzake, eta au jente askok egin dezakean gauza da. Zenbait idazle euskalki bakoitzean, idazle jator eta eredu bezela ar ditezkeanak baditugu. Eta elitzake geiegizko lana izango alakoen paradigmak egitea. Batere esplikaziorik eta ezer gabe egin ditezke, bai deklinazio eta bai konjugazio kontua. Eta gauza oriek elkarrekin konparatzeko aurrean bageneuzka, bear bada ikusiko genduke orain dauzkagun eragozpen asko eztirela guk uste dugun añako eragozpenak. Ala uste dut.

A. Irigoyen: Ain zuzen ere, Mitxelena jaunak aipatu du verboarekiko paradigma batzuek autore zaarretatik ateratzea egoki izango litzakeala. Esan bear dizuet, Ignazio Maria Etxaide jaunak, Euskaltzaindiko buruzagiak, lan bat bialdu duela Mogel-en verbo guztia ala jarririk. Eztegu irakurriko, irakurtzeko eztalako, argitaratzeko baizik, eta emengo itzaldi guztiekin batera emango degu **Euskera**-n. Olako lanak, badirudi oso onak dirala oraingo idazleen eredutzat.

Las flexiones verbales contenidas en PERU ABARKA de MOGEL

Recogidas por I. M.ª ECHAIDE

(Se ha utilizado la edición de 1956 de la Editorial Itxaropena de Zarauz)

I. Verbo auxiliar respetuoso transitivo

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO

Sin dativo. Acusativo singular

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Presente de Indicativo				
dot	30	9	det	yo lo he
dozu	28	13	dezu	tú lo has
dau	30	14	du	él lo ha
dogu	37	19	degu	n. lo habemos
dozube	61	6	dezute	v. lo habéis
dabe	28	10		
dabee	31	23		
debee	112	11	dute	ellos lo han
Pretérito				
neban	28	19	nuen	yo lo había
zenduben	34	2	zenuen	tú lo habías
eban	31	5	zuen	él lo había
genduban	105	6	genuen	n. lo habíamos
eben	35	17		
ebeen	162	18	zuten	ellos lo habían

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Condicionante				
baneu	28	22	banu	si yo lo hubiese
bazendu	32	11	bazenu	si tú lo hubieses
baleu	36	9	balu	si él lo hubiese
Cuasipotencial				
neuke	70	12	nuke	yo lo hubiese
zeunke	109	26		
zenduke	32	11	zenuke	tú lo hubieses
leuke	33	25	luke	él lo hubiese
genduke	97	24	genuke	n. lo hubiésemos
leukee	34	18	lukete	ellos lo hubiesen
Imperativo				
egizu	38	15		
eizu	80	20	ezazu	háyaslo tú
begi	167	25	beza	háyalo él
egizube	90	11	ezazute	hayáislo vosotros
Presente de Subjuntivo				
dagizula	54	15	dezazun	para que tú lo hayas
dagijala	55	22	dezan	para que él lo haya
daigun	38	2	dezagun	para que n. lo hayamos
dajen	75	14		
dagijen	111	20		
daijen	118	21	dezaten	para que ellos lo hayan
Potencial Presente				
daiket	56	19	dezaket	yo lo puedo
eikezu	56	16		
egikezu	125	11	dezakezu	tú lo puedes
daiki-an	151	1	dezake	él lo puede
Potencial Presente-Futuro				
nei	72	12	nezake	yo lo podré haber
lei-jala	74	22		
lei	94	10		
leike	102	10	lezake	él lo podrá haber
giñai	112	18	genezake	n. lo podremos haber
zeinkee	35	10	zenezakete	v. lo podréis haber
leije	117	9		
leje	97	8	lezakete	ellos lo podrán haber

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO HABITUAL
Sin dativo. Acusativo singular

Presente de Indicativo

daruat	57	21		yo lo suelo
daruagu	91	9		tú lo sueles
darue-n	55	26		
darue	44	8		ellos lo suelen

Pretérito

eruen	30	7		él lo solía

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO
Sin dativo. Acusativo plural

Presente de Indicativo

dituzu	31	21	dituzu	tú los has
ditu	30	20	ditu	él los ha
ditugu	34	28	ditugu	n. los habemos
ditube	31	22	ditute	ellos los han

Pretérito

nituban	32	24	nituen	yo los había
zenduzan	31	29	zenituen	tú los habías
zituban	50	6	zituen	él los había

Condicionante

bazenduz	31	27	bazenitu	si tú los hubieses
bagenduz	80	4	bagenitu	si n. los hubiésemos

Cuasipotencial

nituke	160	22	nituke	yo los hubiese
zendukez	31	7	zenituke	tú los hubieses

Imperativo

egizuz	43	29	itzazu	háyaslos tú

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Presente de Subjuntivo				
daidazan	175	20	ditzadan	para que yo los haya
dagizan	31	26	ditzan	para que él los haya
daiguzan	37	27	ditzagun	para que n. los hayamos
daijezan	92	12		
dagijezan	130	13	ditzaten	para que ellos los hayan
Potencial Presente				
daikeezala	135	17	ditzake	él los puede haber
Potencial Presente-Futuro				
neiz	74	23		
neikez	37	3	nitzake	yo los podré haber
leikez	51	1		
eikeez	151	23	litzake	ellos los podrán haber

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO HABITUAL
Sin dativo. Acusativo plural

Presente de Indicativo				
daruazuz	54	5		tú los sueles
daruaz	30	24		él los suele
daruez	83	1		ellos los suelen
Pretérito				
eruezan	82	7		ellos los solían

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO
Dativo 1.ª persona del singular. Acusativo singular

Presente de Indicativo				
deustazu	36	23	didazu	tú me lo has
deust	28	6	dit	él me lo ha
deustazube	90	5	didazute	v. me lo habéis
deustee	63	18		
deuste	23	14	didate	ellos me lo han

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Pretérito				
zeunstan	52	20		
zeustan	90	1	zenidan	tú me lo habías
eustan	49	21	zidan	él me lo había
eusten	48	7	zidaten	ellos me lo habían
Condicionante				
baleuste	36	8	balidate	si ellos me lo hubiesen
Cuasipotencial				
zinait	71	28	zenidake	tú me lo hubieses
leusket	39	22	lidake	él me lo hubiese
zeunskeet	59	10		
zeunskede	145	26	zenidakete	v. me lo hubiéseis
Imperativo				
egidazu	38	23		
egikedazu	51	22		
zaidazu	60	17	zaidazu	hayásmelo tú
egidazube	80	28	zaidazute	habédmelo v.
Presente de Subjuntivo				
daidan	44	19	dizaidan	para que él me lo haya
daideela	162	6	dizaidaten	para que ellos me lo hayan

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO

Dativo 1.ª persona del singular. Acusativo plural

Presente de Indicativo				
deustazuz	32	2	dizkidazu	tú me los has
deustez	57	26		
deustaz	100	25	dizkidate	ellos me los han
Pretérito				
eusteezan	32	24		
zeusteezala	99	22	zizkidaten	ellos me los habían

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Condicionante				
bazeunstaz	62	27	bazenizkit	si tú me los hubieses
Imperativo				
eidazuz	61	4		
egidazuz	72	9	zaizkidazu	háyamelos tú

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO HABITUAL
Dativo 1.ª persona del singular. Acusativo plural

Presente de Indicativo				
daruadaz	53	13		él me los suele

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO
Dativo 2.ª persona del singular. Acusativo plural

Presente de Indicativo				
deutsut	28	12	dizut	yo te lo he
deutsu	54	29	dizu	él te lo ha
deutsugu	63	26	dizugu	n. te lo habemos
deutsube	35	28	dizute	ellos te lo han
Pretérito				
neutsun	56	21	nizun	yo te lo había
eutsun	31	28	zizun	él te lo había
Cuasipotencial				
neuskezu	53	16	nizuke	yo te lo hubiese
leuskezu	31	15	lizuke	él te lo hubiese
Presente de Subjuntivo				
daizudan	142	7	dizaizudan	para que yo te lo haya
Potencial Presente-Futuro				
neikezu			nizaizuke	yo te lo podré haber

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO
Dativo 2.ª persona del singular. Acusativo plural

Presente de Indicativo

deutsudaz	68	7	dizkizut	yo te los he
deutsuz	31	10	dizkizu	él te los ha

Pretérito

eutsuzan	31	28	zizkizun	él te los había

Cuasipotencial

neuskezuz	55	4	nizkizuke	yo te los hubiese

Presente de Subjuntivo

dagizuzala	152	5	dizaizkizun	para que él te los haya

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO
Dativo 3.ª persona del singular. Acusativo singular

Presente de Indicativo

deutsat	49	20	diot	yo se lo he a él
deutseezu	81	25		
deutsazu	32	14	diozu	tú se lo has a él
deutsa	30	15	dio	él se lo ha a él
deutsagu	32	9	diogu	n. se lo habemos a él
deutsazu	77	19	diozute	v. se lo habéis a él
deutsee	30	21	diote	ellos se lo han a él

Pretérito

neutsan	31	17	nion	yo se lo había a él
eutsan	76	2	zion	él se lo había a él
geuntsan	180	22	genion	n. se lo habíamos a él

Condicionante

baneutsa	99	27	banio	si yo se lo hubiese a él
bazeuntsa	34	5	bazenio	si tú se lo hubieses a él

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Cuasipotencial				
zeunskijo	33	3	zenioke	tú se lo hubieses a él
leuskio	78	23	lioke	él se lo hubiese a él
Imperativo				
eiozu	55	22		
egijozu	58	12	zaiozu	háyasio tú a él
Presente de Subjuntivo				
daijodan	144	27	dizaiodan	para que yo se lo haya a él
dagijala	30	16		
daijola	60	4		
dagijon	66	2	dizaion	para que él se lo haya a él
daiogun	37	18		
daijogun	56	11		
dajogun	41	1	dizaiogun	para que n. se lo hayamos a él

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO

Dativo 3.ª persona del singular. Acusativo plural

Presente de Indicativo				
deutsadaz	68	11	dizkiot	yo se los he a él
deutsaguz	54	11	dizkiogu	n. se los habemos a él
deutsazubez	70	9	dizkiozute	v. se los habéis a él
Pretérito				
neutsazan	93	9	nizkion	yo se los había a él
Condicionante				
bazeuntsaz	142	22	bazenizkio	si tú se los hubieses a él
Imperativo				
egijozuz	15	27	zaizkiozu	háyaslos tú a él

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Presente de Subjuntivo				
daijozala	27	6	dizaizkion	para que él se los haya a él
daijoguzan	100	10	dizaizkiogun	para que n. se los hayamos a él

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO
Dativo 1.ª persona del singular. Acusativo singular

Presente de Indicativo				
deusku	45	16	digu	él nos lo ha
deuskuzube	123	27	diguzute	v. nos lo habéis
deuskube	39	4	digute	ellos nos lo han
Pretérito				
euskun	83	2	zigun	él nos lo había
Imperativo				
eiguzu	40	2	zaiguzu	háyasnoslo tú
beigu	59	5	bizaigu	háyanoslo él
Presente de Subjuntivo				
daigula	83	4	dizaigun	para que él nos lo haya
daigubela	39	21	dizaiguten	para que ellos nos lo hayan

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO
Dativo 1.ª persona del plural. Acusativo plural

Presente de Indicativo				
deuskuz	82	27	dizkigu	él nos los ha
deuskubez	39	18	dizkigute	ellos nos los han
Pretérito				
eskubezan	43	10	zizkiguten	ellos nos los habían

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Imperativo				
egiguzuz	38	26	zaizkiguzu	háyasnoslos tú

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO
Dativo 2.ª persona del plural. Acusativo singular

Presente de Indicativo				
deutsube	80	27	dizute	él os lo ha
Presente de Subjuntivo				
daizubela	120	5	dizaizuten	para que él os lo haya

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO
Dativo 2.ª persona del plural. Acusativo plural

Pretérito				
eutsubezan	52	1	zizkizuten	ellos os los habían
Presente de Subjuntivo				
daizubezan	120	4	dizaizkizuten	para que él os los haya

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO
Dativo 3.ª persona del plural. Acusativo singular

Presente de Indicativo				
deutseet	67	6	diet	yo se lo he a ellos
deutsazu	57	1	diozu	tú se lo has a él
deutsezu	51	12		
deutseezu	39	12	diezu	tú se lo has a ellos
deutsagu	81	12	diogu	n. se lo hemos a él
deutseegu	91	15		
deutsegu	82	20	diegu	n. se lo hemos a ellos
deutsazube	37	10	diezute	v. se lo habéis a ellos
deutsee	82	1	diete	ellos se lo han a ellos

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Pretérito				
zeuntseen	155	8	zenien	tú se lo habías a ellos
Condicionante				
baneutsee	56	21	banie	si yo se lo hubiese a ellos
Cuasipotencial				
neuskijue	115	20	nieke	yo se lo hubiese a ellos
zeunskijue	33	22	zenieke	tú se lo hubieses a ellos
Imperativo				
egijezu	55	14	zaiezu	háyaslo tú a ellos
Presente de Subjuntivo				
daijuedan	72	2		para que yo se lo haya a ellos
dagijedan	94	28	dizaiedan	
daijen	184	1		para que él se lo haya a ellos
degijen	167	15		
daijuen	110	10	dizaien	
daijegun	123	23		para que n. se lo hayamos a ellos
daijuegun	123	26	dizaiegun	
Potencial Presente-Futuro				
leijue	94	14	lizaieke	él le podrá haber a él

VERBO AUXILIAR HABITUAL

Dativo 3.ª persona del plural. Acusativo singular

Presente de Indicativo				
daruaket	93	15		yo le suelo a ellos

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO

Dativo 2.ª persona del plural. Acusativo plural

Presente de Indicativo				
deutsez	179	18	dizkie	él se los ha a ellos

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO
Acusativo 1.ª persona del singular

Presente de Indicativo

nozu	64	12	nazu	tú me has
nau	27	18	nau	él me ha
nabe	66	9	naute	ellos me han

Pretérito

nenduben	46	25	ninduten	ellos me habían

Condicionante

baninduzu	54	27	baninduzu	si tú me hubieses

Cuasipotencial

nenduke	175	19	ninduke	él me hubiese
nendukee	182	24	nindukete	ellos me hubiesen

Imperativo

naizu	41	20		
nagizu	62	20	nazazu	hayasme tú

Presente de Subjuntivo

nagijela	67	1	nazaten	para que ellos me hayan

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO
Acusativo 2.ª persona del singular

Presente de Indicativo

zaitut	38	24	zaitut	yo te he
zaitu	48	13	zaitu	él te ha
zaitube	92	2	zaitute	ellos te han

Pretérito

zendudazan	102	22	zindudan	yo te había
zendubezan	35	19	zinduten	ellos te habían

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Condicionante				
bazintxataz	53	16		
bazeunst	54	27	bazindut	si yo te hubiese
Cuasipotencial				
zeunsket	54	26	zinduket	
zendukedaz	56	19	zinduzket	yo te hubiese
zendukeez	33	16	zindukete	ellos te hubiesen
Presente de Subjuntivo				
zagizala	31	19		
zaizan	105	22	zaitzan	para que él te haya
Potencial Presente-Futuro				
zengidaz	100	4	zintzaket	yo te podré haber
zeinkez	33	15	zintzake	él te podrá haber

VERBO AUXILIAR TRANSITIVO

Acusativo 1.ª persona del plural

Presente de Indicativo				
gaituz	34	27	gaituzu	tú nos has
gaitu	89	20	gaitu	él nos ha
Imperativo				
gagizuz	42	1	gaitzazu	hayasnos tú
Presente de Subjuntivo				
gagizala	42	23		
gaizala	42	24	gaitzan	para que él nos haya

II. Verbo auxiliar respetuoso intransitivo

VERBO AUXILIAR INTRANSITIVO
Conjugación sin dativo

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Presente de Indicativo				
naiz	27	11		
nas	27	14	naiz	yo soy
zara	32	7		
zari-an	32	8	zera	tú eres
da	27	10	da	él es
gari-alako	38	1	gera	n. somos
zaree	34	14	zerate	v. sois
dira	28	15		
diri-an	31	22	dira	ellos son
Pretérito				
nintzan	28	21	nintzan	yo era
ziñi-ala	53	19		
zinían	101	17	ziñan	tú eras
zan	48	1		
zen	53	13	zan	él era
ginian	102	22	giñan	n. éramos
zirian	30	1	ziran	ellos eran
Condicionante				
banintz	78	5	banintz	si yo fuese
baziña	33	2	baziña	si tú fueses
balitz	41	16	balitz	si él fuese
bazinee	59	9	baziñate	si v. fuéseis
balira	36	8	balira	si ellos fuesen
Cuasipotencial				
nintzate	99	26		
nintzake	175	18	nintzake	yo fuese
litzate	33	5	litzake	él fuese
liraatez	91	28		
litzatekez	117	2	lirake	ellos fuesen

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Imperativo				
zaite	34	9	zaitez	seas tú
zaiteze	40	9	zaitezte	seáis v.
Presente de Subjuntivo				
nadin	44	20	nadin	para que yo sea
zaitian	39	20		
zaiteala	144	10	zaitezen	para que tú seas
dedin	38	9	dedin	para que él sea
ditezen	55	5		
ditezan	92	11	ditezen	para que ellos sean
Subjuntivo pretérito				
zitezan	173	22		
ditezan	82	6	zitezen	para que ellos fuesen
Potencial Presente-Futuro				
neinde	44	23	nindeke	yo podré ser
zinaiz	81	15	zindezke	tú podrás ser
leite	97	21		
leiteke	115	24	liteke	él podrá ser
geindez	34	15	gindezke	n. podremos ser
leitez	71	4	litezke	ellos podrán ser
Potencial pretérito				
zeitekian	138	20		él podía
zeitekezala	173	25		tú podías

VERBO AUXILIAR INTRANSITIVO

Dativo 1.ª persona del singular.

Presente de Indicativo				
jat	28	17	zait	él me es
jataz	64	19	zaizkit	ellos me son

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Pretérito				
jatan	36	13	zitzaidan	él me era
Imperativo				
zakidaz	62	19	zakit	seme tú
Presente de Subjuntivo				
daidan	64	27	dakidan	para que él me sea

VERBO AUXILIAR INTRANSITIVO
Dativo 2.ª persona del singular

Presente de Indicativo				
natxatzu	86	24	natzaizu	yo te soy
jatzu	34	24	zaizu	él te es
jatzuz	31	24	zaizkizu	ellos te son
Pretérito				
jatzutan	81	3	zitzaizkizun	ellos te eran
Condicionante				
bañintxatzu	70	24	banintzaizu	si yo te fuese
Cuasipotencial				
litxakezu	62	28	litzaizuke	él te fuese
Potencial Presente-Futuro				
leikezu	49	25	lizaizuke	él te podrá ser

VERBO AUXILIAR INTRANSITIVO
Dativo 3.ª persona del singular

Presente de Indicativo				
jako	27	15		
jaka-la	70	3	zaio	él le es a él
gatxakoz	56	14	gatzaizkio	n. le somos a él
jakoz	56	14	zaizkio	ellos le son a él

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Condicionante				
balitxakio	28	9	balitzaio	si él se le fuese a él
Imperativo				
zakijoz	57	2	zakio	seas tú a él
Presente de Subjuntivo				
gakijozan	42	18	gakion	para que n. le seamos
Potencial Presente-Futuro				
litxakio	51	3		
leijo	37	8	lekioke	él se lo podrá a él

VERBO AUXILIAR INTRANSITIVO
Dativo 1.ª persona del plural

Presente de Indicativo				
jaku	39	29	zaigu	él nos es
jakuz	180	21	zaizkigu	ellos nos son
Pretérito				
jakun	62	3	zitzaigun	él nos fue
Cuasipotencial				
litxakegu	75	24	litzaiguke	él nos fuese

VERBO AUXILIAR INTRANSITIVO
Dativo 3.ª persona del plural

Presente de Indicativo				
jakee	31	21	zaie	él les es a ellos
jakez	44	2		
jakeez	92	4	zaizkie	ellos les son a ellos

III. Verbos sintéticos respetuosos transitivos

CONJUGACION SINTETICA DE "EGIN"

Sin dativo. Acusativo plural

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Presente de Indicativo				
dagit	109	18	dagit	yo lo hago
Imperativo				
egizu	32	4	egizu	hazlo tú

CONJUGACION SINTETICA DE "EKARRI"

Sin dativo. Acusativo singular

Presente de Indicativo				
dakar	31	16	dakar	él lo trae
dakargu	72	10	dakargu	n. lo traemos
Imperativo				
ekatzu	62	8		
ekartzu	63	13	ekarzu	tráelo tú

Sin dativo. Acusativo plural

Imperativo				
ekartzuz	101	1	ekarzkizu	tráelos tú

Dativo 1.ª persona del singular. Acusativo singular

Presente de Indicativo				
dakardazu	32	27	dakardazu	tú me lo traes
dakarde	62	21	dakardate	ellos me lo traen
Imperativo				
ekardazu	156	27	ekardazu	tráemelo tú

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Dativo 1.ª persona del plural. Acusativo singular				
Imperativo				
bekargu	175	25	bekargu	ráiganoslo él
Acusativo 1.ª persona del singular				
Presente de Indicativo				
nakartzu	86	12	nakarzu	tú me traes
CONJUGACION SINTETICA DE "EMAN"				
Dativo 1.ª persona del singular. Acusativo singular				
Imperativo				
emoidazu	37	27	emadazu	dámelo tú
CONJUGACION SINTETICA DE "ENTZUN"				
Sin dativo. Acusativo singular				
Presente de Indicativo				
daantzut	45	19		
dantzut	67	13		yo lo oigo
dantzuzu	67	13		tú lo oyes
bantzugu	37	2		n. lo oímos
zantzubez	36	15		v. lo oís
Condicionante				
balenzube	54	19		si ellos lo oyesen
Imperativo				
entzuizu	46	13		óyelo tú
Sin dativo. Acusativo plural				
Presente de Indicativo				
bantzuzuz	50	25		tú los oyes

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Imperativo				
enzuzuz	141	4		óyelos tú

CONJUGACION SINTETICA DE "ERABILLI"

Sin dativo. Acusativo singular

Presente de Indicativo				
darabill	126	24	darabil	él lo usa
Pretérito				
nerabillen	89	9	nerabillen	yo lo usaba

Sin dativo. Acusativo plural

Presente de Indicativo				
darabildaz	46	11	darabilzkit	yo los uso
Pretérito				
erabillezan	82	3	zerabilzkiten	ellos los usaban

CONJUGACION SINTETICA DE "ERAGIN"

Sin dativo. Acusativo plural

Imperativo				
eragizuz	81	15	eragizkizu	hazlos hacer tú

Dativo 3.ª persona del plural. Acusativo singular

Imperativo				
eragijozu	60	2	nzəiβəraə	hazlos hacer tú a él

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano

CONJUGACION SINTETICA DE "*ERAUNSI"

Dativo 1.ª persona del singular. Acusativo singular

Presente de Indicativo

diraustazu	54	19	darauskidazu	tú me lo hablas

Dativo 2.ª persona del singular. Acusativo singular

Presente de Indicativo

dirautsut	30	10	darauskizut	yo te lo hablo

Dativo 3.ª persona del singular. Acusativo singular

Presente de Indicativo

dirautsa	83	15	darauskio	él se lo habla a él
dirautsagu	132	25	darauskiogu	n. se lo hablamos a él

Pretérito

zirautsala	93	5	zerauskion	él se lo hablaba a él

CONJUGACION SINTETICA DE "EROAN" (guip. ERAMAN)

Sin dativo. Acusativo singular

Presente de Indicativo

daruat	121	8	daramat	yo lo llevo
daruazu	150	21	daramazu	tú lo llevas
darua	66	28	darama	él lo lleva
daruagu	165	9	daramagu	n. lo llevamos
darue	49	16	daramate	ellos lo llevan

Pretérito

neroian	180	2	neraman	yo lo llevaba

Sin dativo. Acusativo plural

Presente de Indicativo

daruadaz	28	3	daramazkit	yo los llevo
daruaz	30	24	daramazki	él los lleva
daruez	111	20	daramazkite	ellos los llevan

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano

Dativo 3.ª persona del singular. Acusativo singular

Presente de Indicativo

daruake	67	16	daramakiote	ellos se lo llevan a él

CONJUGACION SINTETICA DE "ESAN"

Sin dativo. Acusativo singular

Presente de Indicativo

dinot	30	29	diot	yo lo digo
dinozu	31	12	diozu	tú lo dices
dino	46	19		
dinu-an	46	20	dio	él lo dice
dinue	112	1	diote	ellos lo dicen

Pretérito

zinuan	31	27	zion	él lo decía
zinuen	166	29	zioten	ellos lo decían

Sin dativo. Acusativo plural

Presente de Indicativo

dinuaz	50	25	diozki	él los dice

CONJUGACION SINTETICA DE "EUKI"

Sin dativo. Acusativo singular

Presente de Indicativo

daukat	36	1	daukat	yo lo tengo
daukazu	60	7	daukazu	tú lo tienes
dauka	28	15	dauka	él lo tiene
daukee	31	2		
dauke	77	12	daukate	ellos lo tienen

Pretérito

zeunkan	156	6	zeneukan	tú lo tenías
eukeen	152	3	zeukaten	ellos lo tenían

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Condicionante				
baneuka	109	25	baneuka	si yo lo tuviese
bazeunka	109	25	bazeneuka	si tú lo tuvieses
bageunka	160	22	bageneuka	si n. lo tuviésemos
Potencial indefinido				
zeunkake	109	25	zeneukake	si tú lo pudieses tener
Sin dativo. Acusativo plural				
Presente de Indicativo				
daukadaz	80	1	daukazkit	yo los tengo
daukazuz	55	19	daukazkizu	tú los tienes
daukaz	35	7		
dakaz	70	8	daukazki	él los tiene
daukaguz	80	3		
daukeez	28	4	daukazkigu	n. los tenemos
daukez	81	19	daukazkite	ellos los tienen
Pretérito				
eukeezan	156	27	zeukazkiten	ellos los tenían
Condicionante				
baleukeez	33	21	baleukazkite	si ellos los tuviesen
Acusativo 1.ª persona del singular				
Presente de Indicativo				
nauka	49	17	nauka	él me tiene
naukee	91	22	naukate	ellos me tienen

CONJUGACION SINTETICA DE "EZAUTU"

Sin dativo. Acusativo singular

Presente de Indicativo

ba-zaut (ba dazaut)	45	15	dazaut	yo lo conozco

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Condicionante				
balezau	94	9	balezau	si él lo conociese
Sin dativo. Acusativo plural				
Presente de Indicativo				
dazaudaz	40	11	dazauzkit	yo los conozco
Acusativo 2.ª persona del singular				
Presente de Indicativo				
zazauz	103	9	zazauz	él te conoce

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "IKUSI"

Sin dativo. Acusativo singular

Presente de Indicativo

dakust	99	21	dakust	yo lo veo
dakutsu	72	6	dakuszu	tú lo ves
dakus	68	26	dakus	él lo ve
dakusku	99	16	dakusgu	n. lo vemos
dakusee	116	28	dakuste	ellos lo ven

Sin dativo. Acusativo plural

Presente de Indicativo

dakustaz	80	13	dakuszkit	yo los veo
dakutsuz	90	28	dazuszkizu	tú los ves
dakuskuz	135	18	dakuszkigu	n. los vemos

Acusativo 1.ª persona del singular

Presente de Indicativo

nakutsu	166	14	nakuszu	tú me ves
nakuse	91	20	nakuste	ellos me ven

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano

Acusativo 2.ª persona del singular

Presente de Indicativo

zakusaz	78	9	zakus	él te ve
zakusez	77	13	zakuste	ellos te ven

Acusativo 1.ª persona del plural

Presente de Indicativo

gakusuz	178	27	gakuszu	tú nos ves

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "JAKIN"

Sin dativo. Acusativo singular

Presente de Indicativo

dakit	30	28	dakit	yo lo sé
dakizu	28	29	dakizu	tú lo sabes
daki	35	1	daki	él lo sabe
dakigu	77	6	dakigu	n. lo sabemos
dakije	36	25	dakite	ellos lo saben

Pretérito

nekijan	64	1	nekien	yo lo sabía
zenkijan	54	3	zenekien	tú lo sabías
ekijan	162	17	zekien	él lo sabía
genkijan	89	23	genekien	n. lo sabíamos
ekijen	36	21	zekiten	ellos lo sabían

Condicionante

baneki	54	29	baneki	si yo lo supiese
baleki	94	8	baleki	si él lo supiera

Sin dativo. Acusativo plural

Presente de Indicativo

dakidaz	68	8	dakizkit	yo los sé
dakizuz	33	29	dakizkizu	tú los sabes
dakijez	36	28	dakizkite	ellos los saben

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano

Dativo 3.ª persona del singular. Acusativo singular

Presente de Indicativo

dakijo	174	24	dakio	él se lo sabe a él

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "JARRAITU"

Dativo 3.ª persona del singular. Acusativo singular

Presente de Indicativo

darraijo	48	21		
darraiko	84	10	darraikio	él le sigue a él
darraikoz	167	9	darraikiote	ellos le siguen a él

IV. Verbos sintéticos respetuosos intransitivos

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "EGOKI"

Dativo 1.ª persona del singular. Acusativo singular

Presente de Indicativo

jaot	40	27		
jagot	169	25	dagokit	él me pertenece

Dativo 2.ª persona del singular. Acusativo singular

Presente de Indicativo

jaotzu	42	16	dagokizu	él te pertenece

Dativo 3.ª persona del singular. Acusativo singular

Presente de Indicativo

jagoka-na	54	22		
dagoka	78	11	dagokio	él le pertenece a él

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano

Dativo 3.ª persona del singular. Acusativo plural

Presente de Indicativo

dagokaz	103	16	dagozkio	ellos le pertenecen a él

Dativo 1.ª persona del plural. Acusativo plural

Presente de Indicativo

jagokuz	40	24	dagozkigu	ellos nos pertenecen

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "EGON"

Sin dativo

Presente de Indicativo

nago	81	14		
nagu-an	54	9	nago	yo estoy
zagoz	58	3	zaude	tú estás
dago	30	13	dago	él está
gagoz	45	19	gaude	n. estamos
dagoz	36	20	daude	ellos están

Pretérito

nenguan	101	10	nengoen	yo estaba
egoan	65	10		
eguan	87	8	zegoen	él estaba
egozan	49	4	zeuden	ellos estaban

Condicionante

bazengoz	34	2	bazeneude	si tú estuvieses
balego	115	21	balego	si él estuviese

Imperativo

zagoz	35	24	zaude	estate tú

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "ETORRI"

Sin dativo

Presente de Indicativo

zatoz	18	10	zatoz	tú vienes
dator	58	3	dator	él viene
datoz	57	22	datoz	ellos vienen

Condicionante

baletor	91	2	baletor	si él viniese

Dativo 1.ª persona del singular

Presente de Indicativo

jatort	75	28	datorkit	él me viene
jatortaz	105	7	datozkit	ellos me vienen

Dativo 3.ª persona del singular

jatorko	115	19	datorkio	él le viene a él
datorkoz	129	1	datozkio	ellos le vienen a él

Dativo 1.ª persona del plural

Presente de Indicativo

jatorku	54	6	datorkigu	él se nos viene
jatorkuz	41	7	datozkigu	ellos se nos vienen

Dativo 3.ª persona del plural

Pretérito

etorken	174	2	zetorkien	él se les venía a ellos

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "ETZAN"

Sin dativo

Presente de Indicativo

datza	56	3	datza	él yace

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "IBILLI"

Sin dativo

Presente de Indicativo

zabiltza	28	27	zabiltza	tú andas
dabil	28	25		
dabill	116	20	dabil	él anda
gabiltza	77	3	gabiltza	n. andamos
zabiltzee	69	24	zabiltzate	v. andáis
dabilz	37	17	dabiltza	ellos andan

Pretérito

ebillen	86	6	zebillen	él andaba
ebiltzala	81	23	zebiltzan	ellos andaban

Condicionante

balebiltz	91	26	balebiltza	si ellos anduviesen

Dativo 1.ª persona del singular

Presente de Indicativo

jabilt	76	19	dabilkit	él me anda
jabiltaz	64	17	dabilzkit	ellos me andan

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "IRAUN"

Sin dativo

Presente de Indicativo

dirau	175	11	dirau	él dura

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "IRITZI" (llamarse)

Sin dativo

Presente de Indicativo

derist	77	10	deritzat	yo me llamo
deritxu-n	40	12	deritzazu	ú te llamas
deritxo	43	2	deritza	él se llama
deritxe	105	10	deritzate	ellos se llaman

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "IRITZI" (parecer)

Dativo 1.ª persona del singular

Presente de Indicativo

derist	98	3		
deritxat	118	13	deritzat	me parece

Pretérito

neritxon	102	13	zeritzadan	me parecía

Dativo 2.ª persona del singular

Presente de Indicativo

deritxazu	54	14	deritzazu	te parece

Dativo 3.ª persona del plural

Presente de Indicativo

deritxe	155	18	deritzaie	les parece

Pretérito

eritxeen	152	1	zeritzaien	les parecía

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "IRUDI"

Sin dativo

Presente de Indicativo

dirudizu	104	14	dirudizu	tú pareces
dirudi	38	3	dirudi	él parece

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "ITXOIN"

Sin dativo

Imperativo

itxaizu	59	7	itxozu	espera tú

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "JARDUN"
Sin dativo

Pretérito

ziarduben	173	28	ziarduten	ellos se ocupaban en

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "JARIO"
Dativo 1.ª persona del singular

Presente de Indicativo

darijat	62	18	dariot	ello me mana

Dativo 3.ª persona del singular

Presente de Indicativo

darijo	58	19	dariokio	ello le mana

Dativo 3.ª persona del plural

Presente de Indicativo

darijue	43	19	dariokie	ello les mana

CONJUGACION SINTETICA DEL VERBO "JOAN"
Sin dativo

Presente de Indicativo

nua	37	22	noa	yo voy
zuaz	104	27	zoaz	tú vas
dua	36	7		
doia	107	20	dijoa	él va
duaz	56	10	dijoaz	ellos van

Pretérito

ninoian	46	22	nijoan	yo iba
joian	146	11	zijoan	él iba

Condicionante

baninua	175	23	banenijoa	si yo fuese

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
Imperativo				
zuaz	36	11	zoaz	vete tú
guaz	53	6	goaz	vamos nosotros
Dativo 3.ª persona del singular				
Presente de Indicativo				
nuako	55	12	noakio	yo me le voy a él
juako	87	24	dijoakio	él se le va a él
juakoz	127	6	dijoazkio	ellos se le van a él
Dativo 3.ª persona del plural				
Presente de Indicativo				
jual[illegible]	87	4	dijoakie	él se les va a ellos

V. Flexiones de verbos familiares

FLEXIONES EN TRATO DE "I"

esaijon	38	11	esaiok (n)	díselo tú
don	38	18	dek (n)	tú lo has
jaraozak	43	7		están
jaraok	60	6		está
darabilk	76	3	darabilkik (n)	tú le andas
deubee	76	4		
deuba	76	25		ellos te lo han
ditubaz	76	5	dituk (n)	tú los has
jituben	76	5		
jitubek	76	21	dizkitek (n)	ellos los han
juek	76	6		ellos lo han
abee	76	7		
abe	76	12	aute	ellos te han

Moguel	Pág.	Lín.	Flexión guip.	Castellano
jeutseek	76	8	ziotek (n)	ellos se lo han a él
abil	76	9	abil	tú andas
dakusk	76	12	dakuskik (n)	tú lo ves
egik	76	21	egik (n)	hazlo tú
adi	76	21	ai	seas tú
jok	76	23		él lo ha
ais-an	76	28	aiz	tú eres
to	78	15	to (no)	tómalo tú
juat	89	1	diat (ñat)	yo lo he
najaik	89	5	nizaikek (n)	yo lo podré
egijok	109	29	zaiok (n)	hayaslo tú a él

Lojendio jaunak dauka aldia.

EUSKERAREN BATASUNA TA MOGEL

Euskeraren batasuna degu aspaldi onetako leloa. Gaya ez da orain sortu berria. Gure lengo euskaldun zarrak, bein baño geyago, ausnartu ta aztertu zituzten —eta ez nolanaiko arduraz gero— guk orain gure euskal batzarretan arabiltzen ditugun gayak berak. Ez da arritzekoa. Urtearen urteaz, izkuntzak aldatu egiten dira, pitin-pitinka batzuek, besteak ariñago. Gurea lenengo oyetakoa degu, ta orregatik bere orain dala eun edo berreun urteko goraberak eta gaurkoak, ez dute alkarren arteko alde aundirik.

Mogel, milla zazpireun ta berrogei ta bostgarren urtean jayo zan. Napoleon baño ogei ta lau urte lenago. Emezortzigarren gizaldiko semea, Jovellanos eta Rousseau'n garai berekoa. Izen abek, aspaldikoak ematen dute gaur, beren erritarren belarrietan. Gu, gaurko euskaldunak ordea, ez gera Mogelengandik orren urruti. Bere iritziak, bere esanak, bere erakastaldiak, gaurko egunetarako asmatuak dirudite. Nekez arkituko degu euskerazaleak, bera bezelako Maisurik.

Euskaldun askoren iritziz, gure izkuntzak, euskalki geyegi ditu: Bizkaitarra, Gipuzkoarra, Naparra, Lapurditarra, Zuberotarra... Zertarako orrenbeste izketa-muga gure artean? esaten dute oyek. Euskaldun seme guztiok, Bilbotik asi ta Bayonaraño, era berean itz egingo bagenu, ¡a zer nolako erreztasuna danontzat! Euskaldun guztiak izan ezik, euskal idazleak beñepein, euskera berdin batean idatziko balute, orduan, ¡bai aurrerapen ikaragarria euskal lanetarako! Egia ote da au? Zer dio Mogelek gai onetzaz?

Mogelek, garai artako euskalari geyenak bezela, Larramendi artu zuen Maisutzat. "Nola izango litzake ederragoa euskera? —galdetzen du Larramendik— dialektuekin, ala dialektorik gabe?" "Dialektuekin —erantzuten du berberak— Dialekto edo euskalki oyek, aberastasun izugarria ematen diote izkuntzari, ta naiz euskalkien artean alde aundiak izan, errez alkar aditu dezakete euskaldunak, ortan benaz sayatu ezkero. Alkar ondo editzen ez ba dute, beren alperkeriz izango da. Berea izango da errua ta ez izkuntzarena".

Mogel, Gipuzkoa ta Bizkaien arteko muga ondoan jayoa izanik, ondo oitua zegoan, euskalkien berezitasunetara. Ta berezitasun oyek, zintzo gordetzen zekien bere idaz lanetan, euskalkiak, bata bestearekin nastu gabe. Gipuzkoeraz idazten duenean, gipuzkoera garbia egiten du. Bizkaieraz ari danean berriz, bizkaitar izkera jatorra darabil. Bere lenengo liburua gipuzkoeraz egin zuen: "Konfesio ta Komunioko sakramentuen gañean erakasteak". Liburu onen itzaurrean, luzaro diardu, euskalkien gai au gora ta bera. "Zein batera, zein bestera egin —dio— ez da zer esanik. Giputz garbi garbia, billatu bear da Giputz erdian, ez Franzes, Napar ta Bizkai urrean dauden errietan, zeren erazten zaiez alkarrekin itzak, urrean dauden errikoai. Irun ta alderetan, Franzes euskeraren usaia dute, ala ebakitzen itzak, nola itzen batzuetan. Elgoibar, Eibar, Bergara, Mondragoe ta ala beste erritxo batzuetan, erdi Giputz ta erdi Bizkaikoa dirudite, Bizkai urrean daudelako. Ez da ordea ansi. Liburuetan, bakoitzari eman bear zaio. Giputz izkribitzen danean, Giputz euskera naste gabea alegiñez; Labortarrak, beren gisara ta orobat Bizkaitarrak. Baña buruz ikasten dan dotriña, obe da erakastea, bakoitzaren errian itz egiten dan bezela". Orra Mogelen iritzia. Idazterakoan, nork bere dialektoa erabilli dezala, bertako erri-izkera jator eta nastugabeena eredutzat artuta. Batasuna beraz, baña euskalki bakoitzaren barrutian, euskalkiak alkarrekin nastu gabe.

Len esandako liburuan, Mogelek, Kardaberazen tankeraz idazten du. Apaiz bezela, euskera errez bat bear zuen, alik eta ondoen aditua izateko. "Uste det —dio— libru onetako euskera izango dala aditua Giputz guzian, Bizkaiko erri askotan, ta Naparroa geienean. Kardaberazen libruak aditzen errazagoak dira Euskel-errietan, Mendibururenak baño. Onek itz asko artu ditu Napar euskeratik, ta nola urruti dauden bata besteagandik Naparroa ta Bizkaia, ez ala Giputzak (bada oek erdian daude) errazago egiten zaie Bizkaitarrai aditzea Kardaberazen itzkera giputz utsekoa, Mendibururen giputz-naparra baño. Au ez da esatea, Mendibururen euskera ederra ez dala; da egiaz eta itzaz garbiago ta euskeratsuagoak Kardaberazen libruetakoak baño; ala ere onenak leku zabalagoan aditzen dira, esan dedan arrazoiagatik. Nik ere oni jarraitu diot alegiñez, arrazoi beragatik".

Liburu au bizkaieraz itzuli zuenean, Markinako euskera erabilli zuen, aitzaki ori bera artuta. Naiz gipuzkoeraz, naiz bizkaieraz jator egiten du Mogelek. Ona adigarri bat bestela.

Gipuzkoeraz

"Eldu zan bein Jesukristogana txit estu ta larri, gizon bat zeñek zedukan bere semea gaizkindua, ta esaten dio: Jauna: Eraman det nere seme au zure diszipuluakgana, osatuko dutelako ustearekin ta beren konjuro guztiekin, ez dute ezer egin. Sendo daude espiritu gaizkiñak ta ez dute irten nai izan. Atoz ona, esan zion Jesukristok, ta noiztik onakoa da gaitz ori? Noizkoak ditu berekin gaizkiñak? Aurra zanetik onakoak Jauna, erantzun zion gizonak."

Bizkaieraz

"Eldu zan bein Jesukristo gana txito estu ta larri, gizon bat, zeñek eukan bere semia gaizkiñakaz ta dirautsa: Jauna: eruan deutset seme au zure diszipulubai, osatu dagiden, ta euren konjuru guztiakaz ez dabe ezer egin; sendo dagoz espiritu dongaak ta ez dabe urten gura izan. Erdu ona esan eutsan Jesukristok. Nosti onakua dau gatx ori? Noskuak ditu beregaz gaizkiñak? Umetati onakuak Jauna, erantzun eutsan gizonak."

Peru baserritarrari ere, Markinako euskeraz itz eragiten dio Mogelek. Peru Abarkaren garo usaia! Mogelen izkera eder, jator, zoragarria, gure biotz, begiak busti ta gozatzen dakiena! "Gauza bat bururatu zait —esaten du Mogelek Peru Abarkaren itzaurrean— orri batean, Peru bizkaitarrak itz egitea eta aldamenekoan, Peru gipuzkoarrak. Orrela agertuko lirake, eus-

kalki bien bestelakotasuna, beren garbitasuna ta sasoia". Geroko utzi zuen lan au, ta egin gabe gelditu zan.

Peruk, Maisu Juanek, Joanis frantzesak ta Txorgori giputzak, alkarrekin itz egiten dutenean, nork bere erriko izkeraz egiten du. "Nik ez dakit oneen euskeria aituko dozun", esaten dio Peruk Maisu Juani ta onek erantzuten dio: "Zer? euskeria izan ta nik aitu ez?" Ta gero alkarrekin ari dirala: Maisu Juanek: "Agur adiskidiak; ondo etorrijak izan zaitiala. Alegretan nas eukitia zubek ezagututeko portuna au. Peruk esan deustanaz, bere adiskidiak zare. Beraz, adiskide on bat daukagu zubek eta nik". Frantzesak eta Giputzak: "Esker aundiak, ta ondo izan zaiteala emen. Eseri zaite, amildu gabe". Maisu Juanek: "Zer esan dozube? Zer da eseri zaite amildu gabe?" Peruk: "Maisu Juan, laister katigatu zera oneen euskeran. Oraindik entzungo dituzu gatxaguak. Esan gura deutsube, jarri zaitiala jausi baga, labandu edo larrapastadaren bat emonda". Maisu Juanek: "Peru, eta zuk aituko deutseezu, eta nik ez?" Peruk: "Ni eginda nago oneei entzutera, ta zuri baisen ondo aituko deutseet. Aitu ezin dituzunak, nik azaldau ta adierazoko deutsudaz".

Ona emen, Larramendiren asmoa bera, Mogelek adierazita. Euskaldunak, nork bere jayoterriko izkeraz itz eginda ere, alkar aditu dezakete, orretarako burua zerbait nekatu ezkero. Euskeraren batasunaz itz egiten duenean, beste era bateko batasunaz ari da. Mogelek euskera batu nai du. Bildu, alegia. Bere antxiñako itz eta esaera zarrai eutsi, izkeraren izaera ta aberastasuna galdu ez ditezen. "Gulanguai —apaizai— dagokee batutea euskera baztertua. Gu gabiltz nekazariakaz; entzun bear deutsegu zer dinuen, ta gorde ondo, gero agirian iminteko, izen eder asko, ta geldika, geldika, ekarriko deutsaguz euskera billostuari, bere jantzi edo soñokoak, ta agertuko da apaindurik, iñoren soñokoak erantzita".

Josè María Lojendio

Fernando Artola (Bordari): Ni gipuzkoarra naiz eta mugako semea. Beste aldean iru lau urte egona ta gipuzkeraz mintzatzen naiz, eta onartzen dut angoa bizkaiera baiño geiago. Eta egia esateko bizkaiera eztet batere atsegin. Mogel bera irakurtzen asi eta askotan erortzen zait bizkaiera kutsua duelako. Nik uste dut bes-

te askori ere bai. Eta bide batez batasunerako iritzi bat esango det. Euskaltzaindiaren babesean batasun batzorde bat sortu. Onek aldizkari bat arteka argitaratu ta izkuntz berri orrekin euskaldun guztion esperanto modura izan ditekean gauz bat egin. Eta ereduz artuta, guztiok poliki poliki bide ortan sarrarazi, eta bear baldin bada urte gutxi barru batasun ori egingo da. Besterik ez.

Aita Larrañaga apezpiku jauna: Bordari-k esandakoari nik zeozer erantzun nai diot. Euskalkiak izatea eta euskalkiak irautea ona dala egitan euskeraren erreztasunerako eta aberastasunerako. Baiña nere iritzian ez euskeraren bizirako ta sendotasunerako. Ta arek esan duan batasunerako bide au litzakeala onena uste det: danak euskalki guztiak ulertzea ta jakitea. Baiña ori dala batasuna bezin zailla, gauza zailla. Errezago izango litzake danok euskalki bat bakarra ikastea, eta ori ere ezin degu egin. Danok euskalki bat bakarra, dala Bizkaikoa, dala Gipuzkoakoa, dala Lapurdikoa, ezin baldin badegu ikasi, bizkaitarrak ezin badute ikasi, ikasi dezakete, baiña berek eztute ikasten Lapurdikoa, ta Lapurdikoak ere ez Bizkaikoa, eta ez Gipuzkoakoa, eta ezin baldin badegu danok beste euskalki bat ikasi, euskalki guztiak nola ikasiko ditugu? Guk bai, nik eztakit, baiña zuek beiñepein ikasiko dituzute danak eta ulertu ere bai. Jente xeak eta euskaldun guztiak, ordea, eztituzte ikasiko euskalki guztiak, eta ori eskatzea ezin dan gauza bat eskatzea da. Errezago litzake danak bat ikastea. Eta ori ere ezta errez noski. Eztegulako utzi bakoitzak gurea askotan. Eta ezta ona euskeraren bizkortasunerako ta euskeraren iraupenerako, eztigu onik egiten euskalki asko izateak. Gure aldizkarien eta gure liburuen bizitza beste bat izango litzake Lapurdin egindako guztiak, Bizkaian, Gipuzkoan ta leku guztietan ulertuko balira, ta Bizkaian egindako guztiak edo Gipuzkoan egindako guztiak leku guztietan irakurri ta ulertuko balira. Gure euskeraren indarra eta gure aldizkarien, gure liburuen indarra eta liburuak egitekoa beste bat izango litzake, ez orain bezelakoa.

A. Arrue: Nere iritzi apala da batasuna, euskalki guzien batasuna, nai ta naiezkoa ta bearrezkoa dala. Baiña gai au oso irristagarria da, oso labana da, eta beragatik polliki polliki, eta beste aldean esaten duten bezela, emeki emeki jokatu bear degu sail ontan. Besterik ez.

Juan San Martin: Parkatu jaunak. Eztakit lortuko dedan esan nai dedana bear dan legez esatea. Baiña alegiñak egingo ditut. Nik dakidana au da. Aspaldian saiatu naiz gipuzkeraz egiten, baiña nik ikusten dot nere kolkotik, ezin dotela atera negar ta barre egiteko eibartarrakin egingo neukean indar guztiakin. Zegatik da ori? Ta ori gertatuko da beste euskalki guztietan ere,

erri guztietan ere. Orregatik len Mitxelenak esan duen bezela eta gero Arrue-k, batasunak polliki polliki etorri bear leuke urtien buruan. **Urtien puruan** esaten dogu, **buruan** esan gura dogu, baiña **p** jartzen diogu **burua** itzari. Or ere garbizale izeneko askok **urtien puruan** esanda barre egingo leuke; eibartarren gauzia, purua erretzekua. Ba gertatzen dana da, nik, barre ta negar egiteko itzak sakon ikutzeko, eibartarrez entzunda, eibartarrez esanda, errez negar egingo neuke eta errez barre. Aurtzarotik ori ikasi dotelako ta aurtzarotik orrekin parre ta negar egin dotelako. Ta beste euskalki baten itz berdiñak edo berdin samarrak esanda biotzari eztio ikutzen eibartarrak aña. Orrekin esan nai dot, beste euskalki askok izango dutela beren errietarako indarra, baiña gurerako ez. Gurerako gureak dauka indarrik geien. Zegaitik guk geure izkerarekin, geure euskalkiakin egin dogulako barre ta negar, ta bestiak berenakin. Orregaitik, nik uste dot, bakoitzak bere izkerari eman diola, itz bakoitzari ta gauza bakoitzari bere indar berezi bat, bere egokitasun bat, ta orregaitik da oso gaitza batasuna ezpatiakin egitea. Ezpatiakin egiten dana, goitik bera ebagita, zauriak gelditzen dira. Eta euskeran asten bagera, artu norma batzuek, artu Azkue-n Morfolojia elburu, ta gipuzkera osotua berak esaten zuen bezela egiten, gertatuko litzake guretzako zauri bat izango litzakeala, ta guretzako eztaukala indarrik euskera batu orrek. Gure sentimentuari, gure biotzari eztiola ikutzen guriak bezin ondo, eta eibartarrari gertatzen jakona, euskaldun guztieri gertatzen jakie. Orregaitik lotzen gera euskaldun bakoitza berera, ta danok nai dogu guria izan daitela euskeraren batasuna egiteko. Nik badakit ori eibartarrok ezin degula iritxi, baiña beste iñork ere ez, bakarrik geien egiten duenak, ta ari lagundu ta ari juntatu ta etorriko da polliki polliki ta urtien buruan batasuna. Besterik ez.

Jon Garmendia (Zeleta): Bi gauza bear dira. Lenengo irakurleak, ta bigarren idazleak. Oiek biak bagenduzke eta saiatu, bai Bizkaiko, bai Gipuzkoako, bai Lapurdiko euskera ulertzen ikasiko dugu. Eta au esaten det urte asko daramazkidalako euskal aldizkari zabaltzen eta askotan aurkitu naizelako euskaltzale ta euskaltzale eztiran euskera irakurtzeko zaletsuna duten irakurliakin (sic). Gertatu naiz baserritarrakin, Arantzazuko egutegiaren bidez euskera irakurtzera zaletu diran ainbat eta ainbat baserritako emakume ta gizonekin, gazte eta zar. Eta zenbait aldiz arriturik gelditu naiz aiekin izketan egindakoan zeñen ederki esaten dituzten askok euskera lanetan erabili ez ditugun itz egoki egokiak, baiña euskerazko irakurgaiak irakurrita artutako itzak. Eta gaur bertan ere euskeraz irakurtzeko zaletasuna izan eztutenen artean, naiago dituzte euskera garbizko itzak, ez gaitzak diranak, baizik

euskerazko itzak, norberaren adimenari zerbait egoki adierazten dienak. Eta len esan dedana bear da ortan. Idazleak izango lirake, idazleena da errezena, irakurleak bear ditugu, eta irakurleak izateko eguneroko aldizkari bat, edo orri batzuk sarri sarri zabalduko diranak kalean eta baserri guztietan. Ori egiten dan egunean batasuna berez dator.

A. Irigaray: Nik nai ditut bi itz esan San Martin adiskideari erantzuten. Niri iduri zait bi gauza diferenteak direla euskera mintzatuaren batasuna eta euskera idatziarena. Gu ez gara, ni beintzat ez naiz aritu euskera mintzatuaren batasunaz batere. Zerengatik uste dut eztela ukitu bear ere auzi ori. Ori gauza aparta da. Bakotxak mintzatu bear dugu, ta mintzatuko gara, Jainkoak nai badu, mendez mende bakotxa bere gisara. Eibartarrak zuen izkera pollit ortan. Zerengatik askok irri egiten dute zuen bizkarretik, baiña nik ez, nik eztut irri egiten, ni beti eibartar euskeraren zalea izan naiz, eztutelakotz uste ain erdalduna dela bestek uste duten bezala. Ta gaiñera euskeraz mintzatzen zeratelako, zerengatik asko tokitan euskera garbia dute, garbiagoa, jatorragoa, au eta ura, eta eztakit nondik, baiña erderaz egiten dute. Beren laudorioak, lausenguak denak, euskerarendako erderaz dituzte, eta ala ere etxean eguneroko artu-emanetan erderaz ari dira. Eta emen beti euskeraz egin duzue aberatsak eta pobreak, zarrak eta gazteak, emakumeak eta aurrak. Beraz, uste dut, San Martin-en esanakin sakonean, funtsean ez nagola konforme, zerengatik euskera mintzatuaz ezta kasu au diskutitu bear. Euskera mintzatua libre, bakotxak bere gisara, bere antzora eta bere moldera egingo du, euskera egiten baldin bada, baiñan gu ari gara euskera idatziaren batasunari buruz, ta euskera idatziaren batasunari buruz ari garalaik nire itzaldian esan nai izan dut: kalte egin gabe euskalki bakotxari. Kalte egin gabe, bai xuberotarreri, bai bizkaitarreri, bai uneri, bai areri. Beiñepein bederik iru edo lau nagusieneri. Beraz, egin ditake euskalki bakar bat edatu denborakin, irakurleak baldin badira, zerengatik irakurleak bear dira geiena, irakurrierazi aurrai batez ere, eta euskalki batean edatu geiena idatziz, baiña euskalki bakar orren ondoan, bizi ditezela erialde bakotxeko euskalki iru edo lau nagusi ditugun oiek.

L. Mitxelena: Batentzat euskerarik onena Ondarrabikoa da, San Martiñentzat Eibarkoa ta beste batentzat bere alderdikoa. Jakiña, istillu ori berbera izan da izkuntza batu bat jarri duten erri guztietan. Baiña erri orietan gauza bat iritxi izan da. Orain ez nijoa esatera nola iritxi dan ori, indarrez ala beste bidez. Ez bakarrik norbere izkera maite izatea, baizik-eta orrezaz gaiñera guztion artu emanetarako daukaten izkuntza maite izatera eldu izan dira.

Alemanian, esaterako, idazten dan aleman dotorea guztiak maite dute, naiz bere tokikoa maite izan. Jakiña, guk ere ortara iritxi bearko genduke eta ori ez litzake egun bateko kontua izango. Gure artean batasun kontu au badirudi askotan oraingo gauza dala, baiña literatura-izkuntzako batasuna edo batasun antzeko zerbait izan da lenagotik, eta bear bada orain baiño geiago. Nik gauza bat ikusten dut, lengo tradizio ori, oitura ori, lengo batasun ori, euskalki baten barruan beintzat, galtzen ari dala ziaro. Guk emeretzigarren mendeko gipuzkoar idazleak artzen baditugu, gutxi gora beera, eta noski orduko sermolariak eta predikariak orixe berbera egiten zuten, gutxi gora beera izkera berbera egiten dute. Gaurko Gipuzkoako idazleak artzen baldin baditugu, Gipuzkoakoak bakarrik, ez naiz beste aldekoekin ari, arkituko genituzke idazle bezenbat izkera. Eta jakiña, batasunaren biderik egokiena danok dakigu zein dan, aurrai bere erriko mintzaeraz gaiñera beste zerbait irakasteko biderik onena zein dan guztiok dakigu. Bide ori da eskola.

A. Irigoyen: Itz batzuek esan nai nituzke ontzat arturik Mitxelena, Irigaray ta beste batzuek esan dituztenak. Bordari-ri auxe esan nai nioke. Gu bizkaitarrok, uste det, Gipuzkoako izkera ezagutzen degula, batzuek beintzat, eta ezagutzen degu, naiz-eta ongi itz egiten ezpaldin badegu ere, ortan saiatu geralako. Eta uste det Gipuzkoako izkera ikasiagatik eztegula ezer galdu gure bertako izkeran. Ori egingo balute guztiak, naiz-eta ez jakin itz egiten beste izkeran, beintzat ezagutu ta ulertu, batasun biderako espirituzko indar aundi bat lortuko litzake, alkar geiago ezagutuko gendukealako Euskalerrian. Lengo egunean jaun bati aditu nion gauza bat. Orainarte **poztutzen naiz** esaten omen zuen eta baserritar bati entzun omen zion **poz zait** esaten eta ala esaten asi omen da bera ere. Forma ori, bear bada, jatorra izango da, eztet ori ukatzen. Baiña, egia esan, Bizkaian **poz jat** ezkenduke iñola ere esango oso gaizki emango ligukealako belarrira. Nik eztakit beste euskalkietan zer gertatzen dan, baiña uste det **poztutzen naiz** edo orren aldakuntzaren bat esaten dala. Eta alako bitxikeriak ontzat arturik, dotoreago iruditzen zaizkigulako eta ezagutu gabe beste alderdietako joerak, askotan batasunera joan bearrean bereizten joaten gera. Eta nik uste det, Mitxelenak len esan duen bezela, gauza asko okerbidetik egiten ditugula idazten degunean ez jakiñagatik, eztakigulako, saiatu ezkeralako jakiten, izkuntzaren eta gure adimenaren sendotasunerako bidea zein dan eztegulako somatu. Bear bada eztegu izan aukerarik ortarako, baiña lenbailen egin bear degun gauza da, eta albait sakonen ezagutu izkuntza, autore zaarrak ere bai, batasunak ezpaitu izan bear oraingo eremukoa bakarrik. Batasunak izan bear du askozaz ere sakonagoa, sustraitsua-

goa, denboraren lerroa ere gogoan izan bear degu eta or ere batasun muga batzuetatik atera gabe aritu, esi sendo batzuek jarririk. Autore zaarrak, bai Bizkaikoak, bai Gipuzkoakoak eta bai beste tokietakoak diferentzia gutxiago daukate beren artean, sarri, gaurko autoreen artean baiño. Ain zuzen ere emen egon zan Lafitte jauna atzo eta itzaldi oso eder bat egin zigun, gaiagatik batez ere, eta guztiak oso pozik gelditu giñan ekarri zigun berri onagatik, eta nik esango nuke emen zeuden guztiak ulertu ziotela, itzik ere galdu gabe gaiñera, naiz-eta beste alderdikoa izan. Jakiña da beste alderdian eztutela eten emen bezela, beintzat funtsean, izkeraren usario zaarra, emen itz egin besterik egiten eztuen euskaldunak galdu eztuen bezela, izkuntzaren sustraiak sendo badauzka. Eta badirudi gure izkuntzan zeinbat eta atzerago begiratu batasun aundiagoa dagoela, eta izkera zaarrak berez aspaldidanik daukan batasun ori ezagutzen saiatu bear degu nolabait, eta ez geiago bereizten eta sakabanatzen aritu ez jakiña dala medio.

Arrue: Itz bi txantxetan. Ni Errioja aldera, Aragoi aldera, Andaluzia aldera, Galizia aldera, Kataluña aldera joaten naizenean, bazkari koskor bat egiteko garaian, bertako ardua eskatzen det, barkatu itza, baiña enbotellatu gabeko bertako ardua. Ta ardo oiek danak, bereziak, oso onak dira. Baiña gero bazkari on bat, oturuntza bat, bankete bat egiteko garaian, geienean, markako ardua eskatzen det. Enbotellatu marka onekoa. Eta esan genezake euskera batua izango litzakeala markako ardua bezela. Eta euskalkiak izango lirake beste ardo onak, bereziak, bakoitza bere tokitakoak. Gaiñerantzean, len esan dedan bezela, nik uste det gai au oso labana dala eta emeki emeki joan bear degula.

Irigoyen: Gero Arrue jaunak dauka itzaldia eta bitartean bost amar minutoko deskantsualdi bat izango degu.

MOGEL-EZ ZEZTXOBAIT

Adiskideak:

Iragarkaiaz landara, Juan Antonio Mogel'i ta bere lanegiñei buruz berri txiki batzuek, xeetasun batzuek, nai nizkitzuteke adierazi.

Geienak, 1956'garren urtean "Peru Abarka"-ren laugarren moldaldia gertu nuanean bildutakoak dira, ta oraindik orain berriz gaiñontzekoak.

Egia esan, xeetasun auek ez dira ajola aundikoak, baña, dana dala, balio lezateke bear-bada zertxobait Mogel eta bere lan-egiñen inguruan argi pixka bat geixeago egiteko.

LENENGOA.

Gauza jakiña da, Juan Antonio Mogel'ek izan zituala artu-eman batzuek *Erakusaldien* egille Juan Bautista Agirre'rekin.

Artu-eman auek iñolaz ere sakon-samarrak izandu ziran.

Oraintsu Aita Omaetxeberria'k eta Aita Villasante'k argitaratu duten "Euskera" deritzan liburuan ezartzen danez, Agirre'k bere *Konfesioko ta Komunioko Erakusaldietan,* "mi caro amigo" deitzen dio Juan Antonio Mogel'i. Errenkada osoak onela diote: "Y para este fin —erria ta batez ere aurrak Erlijio gaietan jazteko, alegia— puede servir mucho la apreciable obra que en dialecto guipuzcoano acaba de dar a luz mi caro amigo Don Juan Antonio de Moguel".

Are geiago: Agirre'k, *Jesu Kristok bere Elizari utzi ziozkan Zazpi Sakramentuen gañean Erakusaldiak* izeneko liburuaren itzaurre bidez ezartzen duan eskutitza ere, agian, Mogel'i zuzendua da:

Onela asten da: "Carta a un amigo, que para el que la leyere servirá de prólogo. Mi muy estimado amigo: Finalmente he puesto legibles las pláticas, que sobre los Sacramentos he hecho al pueblo en Misas Mayores, y para cumplir mi palabra, se las remito a vuestra merced. Quiera advertirme con toda libertad lo que tuviese por conveniente", ta abar. Ta bukatzen da: "Agur, mi caro amigo. Disponga vuestra merced como guste de éste su más afecto Capellán, que su mano besa.—10 de Agosto de 1808.—Juan Bautista Aguirre".

Iritzi ontakoxeak ziran beintzat Asteasu'n bertako lengo euskaltzale ta Agirre beraren aide zarrak.

Egia da Mogel 1804'garren urtean il zala, ta eskutitz onen oñean berriz 1808'garrena agertzen dala. Baña elitzake batere arritzekoa izango eskutitzako urte au oker ezarrita egotea. Esan nai genduke, alegia, esku-idazlanetik moldezko letretara aldatu zuteneko utsen bat, balitekeala izatea. Idatzi ta andikan denbora askora argitara eman baitzan eskutitza, ta, gañera, Agirre bera il da ogeita zazpi-bat urtez geroago.

Bestalde, ta nere uste apalez beñepein, Mogel ta Agirre bat zetozen, ez Erlijio gaietan bakarrik, baita euskerari dagozkan arlo askotan ere.

Onela, ta esate baterako, "Peru Abarka"-rekin batera argitaratutako elkarrizketa batean Mogel'ek dio: "Orain garbituko

bada solo au ta artu garau garbija, nekatu biar dira *erderati premina baga* iraatsi jakozan verbaak". Ta Agirre'k berriz, paper zar batzuen artean gordetzen dedan esku-idazlan batean dio: "Aita Astete'ren dotriña ipiñi degu berriz euskeraz, kendurik alegiñean *premia gabe* esan oi ginduan *erderazko* itzak".

Berba egoki ta gogoangarriak benetan, bai Mogel'enak bai Agirre'renak...

BIGARRENA.

Juan Antonio Mogel'ek lengo mendean izen aundia izan zuan Euskalerria'n. Ez erri xean bear-bada, baña bai euskaltzale ikasien artean. Gaur batzuek uste duten baño aundiagoa, iñolaz ere.

Onela, 1870'garren urtean, au da, "Peru Abarka" azaldu baño len, Tolosa'n argitaratu zan *Vidas de algunos Claros Varones Guipuzcoanos de la Compañía de Jesús* deritzan liburuan, aitatzen da Mogel gutxienez bost aldiz.

Liburu au izenpetu gabe argitara eman zan, baña ezagutzen da bere egillea. Bere egillea Aita Inazio Arana jesuita da. Euskal-olerkari ta idazle bikaña, *San Inazio Loyola'ko bizitza laburtua*'ren egillea, Azkoiti'ko semea.

Aipamen orietako batean, "el docto Mogel" deitzen zaio "Peru Abarka"-ren egilleari.

IRUGARRENA.

Euskalerri'tik kanpoko izkuntzalari batzuen artean ere ezaguna izandu zan Mogel. Adibidez, Hunbolt'ek eta Vargas Ponce'k ezezik, Hervás'ek ere izan zituan artu-eman batzuek berarekin. *Catálogo de las Lenguas*'en dio Hervás'ek: "El bascuence, además de esto, se ha hablado siempre, y aun se habla en países grandes de España, cuales son los de las provincias de Vizcaya, Alava y Guipúzcoa, y en muchas poblaciones del reino de Navarra. Todas estas pruebas demostrativas de haberse hablado, se ilustrarán perfectamente si llega a concluirse el triplicado vocabulario bascuence, que cuatro años ha proyecté en una larga carta que desde Barcelona escribí al señor Don Juan de Leiza y que se empezó a escribir por el señor Don Juan Moguel con la dirección del señor Don José de Campos".

Ta beste orrialde batean berriz dio: "El nombre Roma no es extraño en el bascuence, pues en Vizcaya hay un pueblo llamado Romaña; mas los vizcainos, según me ha escrito uno de ellos, el señor Don Juan de Moguel, cuando han de nombrar Roma, siempre dicen*Erroma,* y por romanos dicen *erromarrak*".

LAUGARRENA.

Or kanpoan atzerrietan asko ibillitako euskaltzale ezagun batek esan zidan bein batez, Chicago'ko liburutegi batean "Peru Abarka"-ren gaztelerazko itzulpen bat gordetzen dala. Are geiago: Mogel'en gutuna fitxeroan ego-Amerika'ko Peru deritzaion erresumako liburuen artean agertzen dala.

BOSTGARRENA.

Beste euskaltzale adiskide bati berriz entzun nion orain iru-bat urte, Unamuno'k idazlan batean diola, "Peru Abarka" dala egundaño euskeraz idatzi dan libururik edo beintzat novelarik onena.

Baña guk, Unamuno'ren idazlan geientsuenak aztertu arren, ez ditugu arkitu gure adiskideak berari egozten zizkan itz aiek.

Ori bai, iñoiz edo bein aipatzen du Mogel Unamuno'k, ta aipamen orietako batean onela dio gutxi-gora-beera: "Juan Antonio Mogel, Markina'ko Erretore zuur eta zentzuduna izan zan Hunbolt'en euskal-ikaskizunen gidari nagusia".

SEIGARRENA.

Guziok dakizutenez, Mogel'en familia jatorriz Rioja-aldekoa zan. Ta bere asaba Andres Mogel berriz, ain zuzen ere, Alfaro'ko semea.

Alfaro au baliteke antziñako *Gracuris* erria izatea. Orain irureun ta geiago urte beñepein ala idazten zuan Arnaldo Oihenart'ek, naiz eta beste lengo ta oraingo idazle batzuek, *Agreda* izango ote zan uste badute ere.

Dana dala, ezin uka *Gracuris* itz orrek euskal-usai aundia duala.

Hervás'ek orain eun ta irurogei-bat urte zion: "Gracuris es nombre puesto por los romanos con alusión a Tiberio Sempronio Graco, pretor de la España Citerior, padre de los famosos Gracos y yerno de Escipión Africano. Gracuris es lo mismo que Graco-uri, de Graco pueblo, el cual antes se llamó Illurcis, esto es, Ilurcoa, en bascuence pueblo-vecino".

Beraz, txantxetan ezezik, pixka bat serio-samar ere esan lezake norbaitek, Mogel'en familiaren sorterria, antziñan Euskalerria'ren barrunbean arkitzen zala, ta beragatik, jo genezakela erdi-euskalduna.

ZAZPIGARRENA.

Durango'ko 1881'garren urteko moldaldia jo da beti "Peru Abarka"-ren lenengo edizioa. Ta ala da iñolaz ere.

Baña, Azkue'k bigarren edizioko itzaurrean adierazten zuan bezala, urte bete aurrez moldezko letretan ordea azaldua izandu zan.

Dana dala, guk ez genduan orain egun batzuek arte "Peru Abarka"-ren argitaraldi ori ezagutzen. Lengo illean adiskide baten liburutegian arkitu genduan ta, berari eskerrak, or daukazute begiralditxo bat eman nai badiozute.

Lenengo orrialdeak onela dio itzez-itz: "El Doctor Peru Abarca. Catedrático de la Lengua Bascongada en la Universidad de Basarte, o Diálogos entre un rústico solitario vascongado y un barbero callejero llamado Maisu Juan. Obra escrita por el Presbítero Don Juan Antonio de Moguel.—Imprenta del Beti-Bat, a cargo de C. Pérez.—Pelota, 2, principal. 1880".

Beti-bat ori Bilbo'ko egunkarien bat izan bear zuan enurarik gabe. Baña ez integrista, Justo Garate'k dion bezala, baizik karlista. 1880'garren urtean oraindik sortu gabea baitzan integristen alderdia.

Navarro Cabanes'ek, *Apuntes Bibliográficos de la Prensa Carlista* —Sanchis, Torres y Sanchis. San Vicente, 99. Valencia. 1917— deritzan liburuan dio, *Lau-Carú* ta *Laurak-bat*'en oiñordekoa izandu zala *Beti-Bat,* ta beraren lenengo alea 1880' garren urteko Uztailla'ren iruan argitaratu zala ta azkenekoa berriz 1883'garren urteko Abendua'ren ogeita amarrean.

Egunkari arren zuzendaria Gustavo Cobreros izandu zan, ta beraren idazlerik ezagunenak, Cruz Ochoa ta Jaime Labayru.

Aste ontan bertan Bizkai'ko Diputazio'ko ta Bilbo'ko Aiuntamentu'ko Liburutegietako fitxeroak, arin-samar bederik, aztertu ditugu, baña ez degu *Beti-Bat*'en aztarrenik ere topatu.

Baña goazen arira. *Beti-Bat*'ean argitaratutako folletoia ta Durango'ko 1881'garren urteko edizioa, barrunbez berdintsuak dira. Biak esku-idazlan baten gain tajutuak dirudite.

Gaiñerakoz, *Beti-Bat*'ekoak uts asko-samar dakarzki, ta gure aleari gañera orrialde batzuek, ez asko baña, falta zaizka.

ZORTZIGARRENA TA AZKENEKOA.

Gogoratuko zerate noski, nola orain iru urte Zarauz'ko Itxaropena'k argitaratu zuan, nere itzaurretxo batekin, "Peru Abarka"-ren moldaldi berri bat. Edizio ura, 1.500 alekoa izan zan, ta eranegun Itxaropena'ko nagusi Unzurrunzaga jaunak esan zidanez, ale aietatik orain arte gutxi-gora-beera 1.130 saldu dira.

Asko? Gutxi? Iruzkiñak, zeuen gain uzten ditut.

Ta besterik gabe amaitzera noa. Ezer gutxi da nik irakurri dedana. Baña, tira, ez nuan egokiera au igarotzen utzi nai Mogel'ez zertxobait mintzatu gabe.

Ta emen gelditzen da lantxo au, bart-arratsean presaka ta estropozoka gertutako lantxo trakets au, "Peru Abarka"-ren egille illezkorraren oroimenari eskaintzen diodan erramu-adartxo apal bat bezala.

Antonio Arrue.

L. Mitxelena: Hervas-ek diona: ...Vocabulario vascuence que cuatro años ha proyecté en una larga carta, etc., etc. Dio gaiñera: Con la dirección del Sr. D. José Campos. Eztakit zein izan zitekean. Auxe da Hervas-i gertatzen zitzaiona: Hervas-ek euskal iztegi bat bakarra zeukan eta ori zan Larramendi-ren euskal-iztegia. Eta naiz bere ordenakoa izan Larramendi, etzuen geiegi maite Larramendi-ren iztegia alde askotatik. Eta batez ere bere lanetarako etzetorkion ongi. Eta orren ordez berak asmatu zuen beste iztegi bat egitea, eta beste iztegi ori zan Mogel-i eman ziotena. Orrek iru zati izan bear zituen, eta iru zatiak auek dira. 1.º Vocabulario radical del vascuence. Esan nai du euskal itzak, ez alfabetoz, baizik erroz, sustraiz bilduak agertu bear zutela 2.º Vocabulario geográfico. Gaur toki-izenak esango genituzkeanak. 3.º Vocabulario cognominal español. Eta emen zetozen Espaiñiako deitura ez latinetik eta ez arabetik zetozenak. Hervas-en asmoa orixe zan.

Fr. L. Villasante: Arrue jauna, gaur esan dezu Juan Bautista Agirre-k daukan karta ori Mogeli zuzendua ote dan, baiña nik eztut uste. Karta orrek dauka urtean milla zortzireun eta zortzi, eta lauan il zan.

Eta Gorostiaga Jaunari eman zaio aldia aurrez iragarrita zegoan itzaldia egin dezan:

JUAN ANTONIO MOGEL TA HISTORIA AURREKO ESPAIÑIA

Euskaltzaindiko jaunak. Nik nirez asieran beste gai bat artu eta pentsatu neban, Juan Antonio Mogel ta literatura-euskerea, baiña naikoa egin da orrezaz eta poztuten naz au artzea.

Ayuntamentuari eskerrak emonik eta jai onetara eldu zarienoi agur maitagarri bat eginda goazen guztiok Mogel-en aurrera. Aren irudiak, aren figurak, ez bakarrik arrizko edo zurezko estatuak, aren nortasuna, aren personalidadea artzen ditut gogoan tink gor-

detako. Ezarie aspertuko, uste dot, neu be enaz luzatuko itzaldian, eta nire itzaldi au ezta izango sakona, azalekoa baiño. Mogelen nortasunak alde asko ditu, ikuspegi askotako gizona, jakituna zan gure Mogel. Emen egiten diran itzaldien erreskadeari begiratutea baiño eztago. Eta baleiteke alde guztiak ez agertzea oraindik. Lan askotan jardun eban Mogel-ek eta lanetarako emoziñoa emoten eutsana euskal-zaletsauna zan. Alan, euskerea edertuteko **Peru Abarka** gertairudi-novela polita atera eban. «He juzgado hacer —diño bere itzaurrean— he juzgado hacer un gran servicio a la Patria sacando al teatro público los primores de un idioma que sólo se ha conservado en su pureza original en los desiertos, —baserrietan esan gura dau— a donde no han llegado sus corruptores.» Badakigu euskera garbi ta euskera mordoillo kontuan bere novela orretan sartu zala gure Mogel. Orduko ustea zana. Eta ez bakarrik euskalzalea, euskalaria be bazan. Humboldt-ek berak diño Bizkaiko jakitunenetarikoa zala gure Mogel. Alan, «Nomenclatura de las voces Guipuzcoanas sus correspondientes Vizcaynas y Castellanas para que se puedan entender ambos dialcetos» bildu eban eta «Nomenclatura de diferentes voces bascongadas comunes a los rústicos e ignoradas por no pocos de los bizcainos.» [**Peru Abarka**]. Badakizue, enaz sartuko Arrue-k eta Michelena-k be ukutu dabe-ta, badakizue euskal-iztegia asmotan eukala, eta esakune zaarretatik errefrau zaarretatik, toki-izenetatik, baserritarren aotik eta berak asmatutako itz barriakaz euskerea aberastu gura ebana. Euskerea ondo ezagututen eban, euskera osoa, fonetikea, gramatikea, iztegia, estiloa, baita etimolojia kontua, dialektolojia, eta baita filolojia, antxiñako texto zaarrak. Batzuk beintzat. Asko ezpada be orretan be lan egin eban. Gai guzti onek asmoz eta jakitez ukutu zituan. Gure Mogel-ek, sikologo ta pedagogo moduan, gure Mogel-ek ondo ekian umetan edaten dana luzaroko dala, eta lenengo urteetan ikasten dana betiko dala. «Hugazean edaten dana çerraldo etan essuro.» [Refranes y Sentencias 1596, n.º 420] «Lo que en la teta se beve en las andas se vierte» diño euskerazko esakune zaar batek. Alan, «Cristinaubaren jaquinvidea». Erlejiñoaren egiak euskaldun umeak errez ikasteko Bizkaiko euskeran argitara emon eban. Eta «Confesio ta comunioco sacramentuen gañean erakasteac» beste liburu bat Gipuzkoako euskeraz. Onelan erlejiñoa ta euskerea batera umeen gogoetan sartuko zirean eta bizi guztiko biok alkartuta iraungo eben. Ta ez bakarrik euskalzalea, euskalaria ta maisu, artista be bazan. ¡A ze polito gure erriko bizimodua zinean barik, zinematografian barik, erakusten euskun! «El introduce —Peru baserritarrak maisu moduan— él introduce con disimulo a su discípulo —Maisu Juan— en las oficinas de los herreros, carpinteros, tejedores, molineros, y hace un análisis, y anatomía nomi-

nal, y deja sorprendido al anatómico Martineciano. Le hace pasear por los bosques, y el pobre cirujano Maisu Juan aprende muchos nombres de arbustos y plantas.» [**Peru Abarka**]. Euskalzalea, euskalaria, maisua, artista, eta gaiñera langillea. Langille legez or dozuez Madrileko Historiaren Akademian berrogetaamar tomo-liburu infolio bere lanakaz. Benetan ikusbegi askotako gizona ta jakituna zan gure Mogel. Baiña ikusi daigun orain bere irudia beste alde batetik. Aitatu doguzan Madrileko liburuak gaia dabe geienak Historia aurreko Espaiñia. Euskerea Espaiñia osoan zabalik zala eta Espaiñiako toki-izen zaarrenak euskaldunak zireala. Ustea barru barruan sartuta eukan. Bere kartetan eta **Peru Abarka**-ren itzaurrean be gai au ikututen dau. Badakizue uste au Mogel-en aldian ta orain be askoren eretxia dala. «Todos estos sabios —diño jakitun batzuez itz egin ondoren— han confesado sin rebozo que la Historia y Geografía de España deben ser ilustradas por el vascuence, que se pueden aclarar algunos puntos oscuros con su inteligencia, que una NOMENCLATURA —itz au gogoko eukan, beti darabil NOMENCLATURA dikzionario ta vokabulariotzat— que una NOMENCLATURA HISTORICO-GEOGRAFICA descubrirá la situación de muchos pueblos antiguos, sitios de batallas, fundadores de ciudades...» Eta aurreratxoago: «Esta Nomenclatura comprobará la antigüedad y universalidad de ntro. Idioma en toda la Península de España, con inclusión de Portugal.» [La Historia y Geografía de España ilustradas por el Idioma vascuence]. Hervas Panduro-k, Arrue-k aitatu dau len, arazo au ezarri eutsan Mogel-i, egizu nomenklatura ori, egizu zeuk. Baiña Hervas Panduro-k arazo au Mogel-i ezarri eutsanean apal autortuten dau apaizak: «Pero ¿qué se puede esperar de uno a quien le faltan otras cualidades y ocupado más en doctrinar a los Pueblos, en catequizar a niños y en estar atareado en las faenas del Confesionario a una con otros ministerios de la Parroquia que en revolver libros antiguos? [La Historia y Geografía...]. Alan ta guzti be arazoari gogor ekion. Ez itsuan, bide onean sartu zan gaiñera. «Ha habido y debe haber habido alteraciones a veces muy notables en los nombres de origen vascuence.» eta «El que quiera acertar en las etimologías, debe estar instruído en los tres dialectos principales de este idioma» eta «El que ha de meterse a etimólogo en nombres de ciudades, territorios, ríos antiguos, o que existen fuera del actual país vascongado debe estar muy impuesto en los de casa.»]La Historia y Geografía...]. Luzea litzake olako xeetasun guztiak azaltzea. Geienetan bere zentzun ona ta jakituria erakusten dau gure Mogel-ek.

Azkenez adibide batzuk andik eta emendik artuta: **España** bere ustez da «país que tiene diferentes mares». ***Izpania, iz** eta

bania edo **bana.** «país que tiene diferentes mares o mejor que divide los mares». **Cadiz,** berak diño: «Así **Caieta** y **Cádiz** (nuestros marineros por tradición constante dicen **Caiz** sin **d** y esta letra redunda) tienen una misma significación, esto es sitio de puerto marítimo». **Betis** da «cosa que baja profundamente». **Asturias** «agua que sale entre peñas». **Sevilla** «ciudad de puente» ***Suvillia. Castilla** bitara erabagiten dau «país o población de gente nueva o de jóvenes en existencia o habitación» ***Gaztillia**; edo «pueblo de malos pícaros» ***Gaiztoillia.** Onelan eun eta berreun eta geiago ditu. Zer esaten dozue zuek? Entzun beintzat Mogel-en liburu ori «La Historia y Geografía de España ilustradas por el Idioma Vascuence» argitaratu eban Justo Garate jaunak zer diñoan itzaurrean: «Este trabajo dará una prueba más de la perspicacia e imparcialidad a la par que buen carácter —ori bai egia da— de nuestro admirado párroco de Marquina. Dado que fué escrito hacia 1800, apenas conceptúo necesario precaver contra sus errores panvasquistas.» Len esan dodana «de buen carácter» ori egia da. **Peru Abarka** irakurriaz irakurleak artzen dau andik, eztakit zelan, argitasun meetxu bat, epeltasun beroa ta baketasun bat, baketasun samur bat. Ezta istillari gure Mogel, naiz bere eretxia ez bardiña izan. Gogo onekoa zan biotz onekoa ta argia zalako. Orain be gure artean Mogel-en adibide antzekoak ikusten doguz liburuetan, olako etimolojiak. Baiña zerbait aurreratu dala esan geinke ensaio-etimolojian eta bestetan be. Ez baiña arroak izan. Jakituria apurka apurka doa geituz. Alan Mogel-en irudiak diñosku: Guztietan jakitun ezpanintzan euskalzalea eta langillea beti izan nintzan.

Gorostiaga jaunak bukatuta Arruza jaunak du aldia eskatuta eta orri batzuek irakurtzen ditu:

BILBOKO EUSKALTZALEEN AGURRA

Uri langille onetako seme leyala zan Mogel euskaltzale trebearen izena gogoratzeko batu gara egunokaz Eibarren, Euskalerriko euskaltzale asko; orain urte batzuek dirala Bilbo'n, Azkue andiarena; aurtengo Epaillean Gazteizen, Aita Olabide'rena, ta oraintsu oindiño Bedoña'n, Loramendi olerkari samur-samurrarena gogoratzeko batu giñian legez.

Nire aurretik itz egin daben euskaltzale aipatuak, egoki, sakon eta jakingarri aitatu deuskuez Mogel idazlearen ariketa ta bere bizitzeari dagokiozan zertzelada ta gora-beera guztiak. Ederto ekarri ditue jaun orrek gure adimenetara eibartar ospatsu eta

azkar aren irakaspenak, eta berak eginda itxi euskuzan euskal lanak, gure izkuntzeari geroko urteetan ainbeste ta ainbeste mesede egin deutseenak.

Au dala ta, eztagokit gaur niri emen Mogel andiari, ta ezta ta beronen lan eta ariketari buruz ezertxo be esaterik. Gaiñera, nire aurretik itz egin daben jaun orreik, nik esan neikeana baiño askozaz geiago ta geiago esan eta irakatsi deuskue; enaz ba ni gai, orreri buruz beste ezer esateko.

Bilbo'ko euskaltzaleen agurra ta abotsa ekarri nai dot nik gaur, biltzar nagusi onetara; uri andi aretako euskaldun asko ta askoren iritziak eta asmoak agertu nai deutsuedaz; eztakit ordea, nire arazo au ondo bete al izango dodan ala ez, alegiñak egingo ditut beintzat artez eta ondo egiteko.

Euskaldunen berbeta zaarra galduaz-galduaz doala ta, ainbat iritzi irakurten ditugu aspaldion, bai etxe barrukoak, eta baita kanpokoak be, galbide oneri esi gogor bat ipinteko zer egin bear litzaken eskatzen edo azaltzen. Onen gaiñean, edo orain esaten dogun legez, oneri buruz, zerbait esateko gogoak geunkazan aspaldian; baiña gaur arte eztogu bitartetxo bat izan onetarako. Or doa ba gure iritzi garbi-garbia.

Emeretzigarren gizaldiak, bere azken arnasak bai emongo, ez emongo ziarduala, emen Bilbo'n berton, «Juegos Florales» izeneko literaturadun jai batzuek egin ziran, eta jai orretan, bilbotar ospatsu eta benetan jakintsua zan gizon andi baten abots zorrotz-zorrotzak, geure euskera zaarrari entierrua egin bear geuntsala agindu euskun ozenki euskaldun guztieri.

Gure antziñako izkuntza au, seaskan, amaren laztan artean ikasiriko berbeta zoragarri au, etzala gauza espirituari jagokozan gai sakon-sakonak bear diran legez azaltzeko, eta beraz, negarrak eta erostak alde batera itxita, geronek il bear genduela geuregeurea dan mintzoa, eta beronen ordez, Castilla'ko erdera aberatsa artu ta erabilli. Au izan zan, gitxi bat gora-beera, jaun jakintsu arek jardun aretan emon euskun kontsejua.

Baiña, auxe ber-bera esaten eben amaika eta amabigarren gizaldietako jakitunak be, Castilla'ko izkuntza orreri buruz; etzala gauza kulturadun gaiak egoki adiarazteko, orretarako latin berbetea zala egokiena eta abar. Egia zan, Castilla'ko erderea errian erabilli arren, idatzi latiñez egiten zan orduko denpora aretan. Eta, nun gelditu ziran gero jakintsu areen iritziok? Castilla'ko izkuntza ori, sendotu, gogortu, zabaldu eta edozein arazotarako gaitu egin zan geroko gizaldietan, gaur dakusgun egoera ederrera eldu arte, jakintsu guztien iritziak guzurtauta gelditurik.

Zer jazo zan an? Beste gertakari batzuen artean, erri batek bere berbeteari zor deutsan lotsea eta begirunea, ederto, guztiz ederto gorde egin zirala, eta amairugarren gizaldian Castilla-León'go errege Fernando irugarrenak (Fernando el Santo zeritzanak) eta onen urrengo gero, bere seme Alfonso amargarrenak (Alfonso el Sabio izenekoak) arabitarrak eukezan grezitarren kulturadun idazlan guztiak edo geienak, Toledo'n bertan, Castilla'ko erderara itzuliz, idazle askok eta askok errege bi onen bideeri jarraituz, eta onen ondoren gaiñera, erria bera izkuntza ori egiten bene-benetan sayatuz, gizaldi bi edo iru geroago, len ezetarako gauza etzan berbetea, munduan aurrenetarikoa izaten etorri zan.

Eta onenbestez, gatozan orain barriro gure arira. Len aitatu dogun bilbotar ospatsu eta jakintsu andi aren iritzien kontra jagi dira gaur, munduko izkuntzalaririk geienak eta aipatuenak. Lurbiran izan leiteken bitxirik baliosoena dogula guk Euskalerrian esaten deuskue abo betean izkuntzalari orreik; eztaigula ezegaitik be gure izkuntza eder au galdu, eurak be alegin guzti-guztiak egingo dituela orretarako ta.

Baiña alan eta guzti be, gure izkuntza leizara doa. Auxe da gaur gure korapillorik andiena eta matasarik latzena, bai eta gure ardurarik beiñen-beiñena be. Nola askatu korapillo estu eta larri au? Ona gure iritzi apal-apala arazo onetan:

Gure berbetea eskoletako ateetatik barrurantza egiten ikusten eztogun bitartean, eztogu gure ustez gauza andi-andirik lortu al izango. Eta eskoletatik diñogunean, ez uste gero ume-eskolak bakarrik aitatu nai ditugula, ez; eskoletatik diñogunean, malla guztietako eskolak aitatu nai ditugu, eta eskola orreen ateak zabaldu bear jakozala geure euskereari esan nai dogu.

Euskerea eskoletako ateetatik sartzea, ezta baiña jakitunen lana, ez; ori legegilleak emon bear dauan agindua da, eta legegilleak eztau agindu ori emongo, biotz barrenean osoro sarturik daukan zalantza bat, kezka bat, bildur izugarri bat beti-betiko atara arte. Ia ba, gareanon artean, legegilleari, zalantza ori, kezka ori, bildur izugarri ori zelan edo alan lenbaitlen ataraten deutsagun.

Estaduko eskoletan izkuntza bat baiño geiago erabilli ezkero, Estaduko batasuna makaldu edo ausi egingo litzakela uste dau bete-betean gaur legegilleak, eta au, argi ta garbi esan, ezta egia; or dagoz bestela Europa zabalean zenbait estadu, bi edo iru izkuntza batera euren eskoletan erabilten dituenak eta irakasten dabenak, eta guk dakigularik beintzat, ezta eurotan erri-batasuna ezetan be makaldu, eta gitxiago galdu. Kezka orreik, zalantza orreik, bildur orreik, beste sasoi batzuetako kezkak, zalantzak eta

bildurrak ziran; ezta gaur orretariko ardurarik iñungo agintzadunen adimenetan.

Eta izan be, gauza bat da batasuna eta beste bat bardintasuna. Bardintasuna baiño gauza itxusiagorik ezta. Dana bardin, dana itxura bateko, dana kolore bardiñaz egiña; ori baiño gauza gogaikarriagorik ba alda? Batasuna barriz, bauza ederra eta atsegiña da, guztiz alaia.

Gure gorputza dogu, jaunak, batasunaren eredurik bikaiñena, eta ikusten dozue gorputzeko atal bakoitzak bere ariketa berezian zelan diñarduan. Ezta biotza urdaillaren ariketan sartuko, ezta ta onek be, eztitu ezegaitik aren ariketa mugak igaroko, eta orretara beste atal guztiak be; bakoitza bere ariketa berezian ari da. Gure gorputzean eztago bardintasunik, dana da desbardiña; baiña orregaitik gora-beera ezta gorputzaren batasuna eteten, eta zeinbat eta atal bakoitzak bere zeregiña zintzoago bete, ainbat obea izango da gorputzaren osasuna.

Au erakutsi bear jako argi ta garbi legegilleari, Euskalerriko eskoletako ateak gure izkuntzeari ondo zabaldu degiozan, eta euskerea berari dagokion tokian eta egoeran gelditu daiten.

Eskoletako ateak euskereari zabaldu, baiña ezetariko kezka eta zalantza barik gero, maitasun osoz eta borondate beteagaz. Gure seme-alabak erriko eskoletan euskeraz ikastea eztoa gaiñera Castilla'ko erderearen kontra; biak erabilli leitekez, eta biak erabiltea ondo baiño obeto etorriko litzake guztiontzat, ba ume euskaldunak euren gurasoen izkuntzea, etxean entzuten daben berbeta gozoa, eskoletan ikasten asi daitezanean, erreztasun geiagogaz egingo dabe gero Castilla'koa be. Au leku askotan egiztatu dan arazoa da.

Legegillearen erabagi edo agindu au lortu arte, guk be, erri lagunak, kaletarrak batez be, egin geinke zerbait gure izkuntzearen jauspidea galerazoteko.

Eta azkenengo au gogoan ondo arturik, ona emen Bilbo'ko euskaltzaleak lenbaitlen egite bidera ekarteko asmoz euren gain artu nai daben zeregiña; beti be, gure aurretiko euskal arbasoak, Larramendi, Mendiburu, Mogel, Azkue, Lizardi, Loramendi, Bustintza ta beste euskal idazle guzti-guztien gomutaz, eurentzat gorazarrerik onena eta egokiena berau dala jakiñik.

«Resurrección María de Azkue» mintegia sortu nai dogu beren-beregi Bilbo'n, eta ona gaur, Mogel zanaren gorazarre egun andi onetan, gure langaiaren zertzeladak Euskalerriko euskaltzale guztien aurrera nola ekarten ditugun, eta bide batez emen gure artean ikusten ditugun Euskaltzaindi'ko jaun agurgarriak, alkar-

go edo mintegi au sortzeko euren baimena emon deiskuen, eskatzen dogularik.

Mintegi onen beren-beregiko asmoa eta lana, euskal izkuntzea bere jauspidetik atara eta Euskalerrian zear euskereaganako zaletasuna zabaltzea da.

Onetarako alegin guztiakaz lagunduko deutso Euskaltzaindia'ri, eta beronen babespean jarriko da, «Ekin eta Yarrai» elburua bere elburutzat arturik.

Azkue euskaltzale andiaren izena artzen dauan alkargo barri onek, iru sail onetan berezi nai dau bere lana ta ekiña:

Lenengo sailla, «euskerea irakatsi»; bigarrena, «euskerea irakurri», eta irugarrena, «euskerea belarrietaratu».

Ona lenengo saillari dagokiozan zeregiñak: euskeraz irakasteko liburuak egin, euskal ikastaldiak zabaldu eta irakasle onakaz zuzendu, euskerea ikaste-etxeetan sartu, batez be, fraille eta monjetan. Gaiñera bere ardurapeko arazoak beste onek be izango dira: Euskal eskolak gertatzea, umeentzako eskoletarako euskal irakaste bideak egitea, naiz norberarenak naiz beste izkuntzaren batetik aldatuak, erri txikietako ume euskaldunen artean, irakurri ta idazten sayatu daitezan, sariak banantzea, gazteen artean euskal zaletasuna bizkortzeko, berbaldiak emotea eta abar.

Bigarren saillari dagokiozan lanak eta ekiñak onek dira: Egunkarietan euskerazko lanak argitaratu, orain argitaratzen diran aldizkariak zabaldu ta eurotan be aldiran lanik geienak agertu, ipuin, novela eta ostantzeko literaturadun liburuak argitaratu, eta ezagutzen diranak zabaldu. Euskal liburutegi bat sortu, berton al diran euskal libururik geien bildu, ta irakurri nai dituen lagunei egunero ordu batzuen egokitasuna emon. Liburu barrien egilleentzat urtean-urtean sariak agindu. «Euskal Egunak» izeneko jaiak antolatu, urte batean erri baten, urrengoan beste baten eta orrela, berton lanik ederrenak ondo saritu. Umeentzako T B O antzeko bat egin eta azken muga lez, euskal asterokoa, ta gero, egunerokoa be sortu.

Irugarren saillaren lanak ona: Teatru jaiak gertatu, bertsolarien txapelketak ugaritu, zinema, erradio ta ostantzeko barraiaketa guztietara euskerea eroan, al baldin bada televisiñora be bai, ta itz baten esateko, euskaldunen belarrietatik erriko izkuntza alegiñez sartu, gure errikideak irakurteko alpertxoak dirala kontuan izanik.

Gure alegiñak gaiñera elburu batera jo bearko dabe, uri andietatik asi zala izkuntzea galtzen jakiñik, ortik asi bearko dabela beronen gora-bideak be, ta onetarako, uri andietako lagunak, kaletarrak, erabilli bear izango dogula gure izkuntzea beti ta toki

guztietan. Orretara egiten baldin badogu, erri txikietako lagunak, nekazari-arrantzaleak, eztabe euskerea galduko; bestela bai.

Iñoiz Euskalerrian beste alkargo zabalagoren bat sortuko baldin balitz, ezkara gu azkenengoak izango alkargo orretan sartzeko, eta gure indar guzti-guztiak beroneri eskintzeko.

Izan be, lotsagarria da gure errian euskal izkuntzarekin jazoten dana; ona adibide bat:

Euskalerriko periodikuetan irakurten ditugu lantzean bein gure izkuntzeari zuzenduriko berba samur batzuek; goraipamen andiak eta txalo ugariak ikusten ditugu sarri Bilbo, Donostia, Gazteiz eta Iruñe'ko egunkarietan, «nuestra lengua vernácula», «el rico idioma de nuestros antepasados», «el venerable verbo de nuestro pueblo» eta onetariko itz eder-ederrak; baiña beti erderaz. Euskal jairen bat nunbaiten izaten baldin bada, beteten ditue euren orrialdeak jai orren barri emoten, eta askotan luze xamar, baiña beti erderaz. Eztogu esan nai ordea au txarto dagoanik, ez; au ondo dago, guztiz ondo gaiñera, baiña, eta barriro diñogu «baiña», zegaitik ez agertu lantzean bein baiño ezpada be, zeozer euskeraz egunkari orreitan? Zer dala ta ez emon leku periodiku orren orrialdeetan gure mintzoari? Ain «nuestra» edo «nuestro» baldin bada, ezin leiteke ondo ulertu ori ez egitea.

Esan dogun guzti au aurrera eroan eta egite bidera ekarteko, iru erabagi-buru oneik artu bear gendukezala Biltzar onetan deritxagu.

Lenengoa: Españia'ko «Ministerio de Educación» edo eskoletako arduraduna izan leitekenari, eskakizun bat zuzendu; Euskalerri'ko aur-eskoletan euskereari nolabait sarpidea emoteko agindua argitaratu dagian. (Badakigu arazo onek bere buruasteak ekarriko leuskiguzana, irakaslerik eza leenbizikoa, baiña Bizkaian beintzat «Escuelas de Barriada» izena daroen eskoletan, irakasle geienak, euskaldunak dira, emakumezkoak beñipein, eta onek asi leitekez). Textoak egitea elitzake barriz ain gatxa izango. Datorren urterako edo gertatu geinkela asierea uste dogu.

Bigarrena: Euskalerri'ko egunkari guztien artezkariei euren periodikuen orrialdeetan egunero euskerazko lanen bat sartu dagiela eskatu.

Irugarrena: Gure uri andietako «Radio Emisora» guztieri egunero emisiño txiki bat bada be, euskeraz emon dagiela erregutu.

Iru eskakizun oneik egitea izango litzake gure ustez, Bilbo'ko euskaltzale guztien ustez (euren izenean berba egiten dot eta),

Biltzar andi onetan artu geinken erabagirik beiñen-beiñena, eta bide batez gure aurretiko euskaltzale guztieri opa giñeyen gorazarre-eskintzarik zindo-zindoena. **Ekin eta Yarrai.**

A. Irigoyen: Arruza-ren itzaldi au entzun ondoan itz batzuek esan nai ditut. Asmo oso ederrak, baiña ain zuzen ere aurrera eraman bear dira nolabait eta ori izango da zaillena, zeren-eta sendo ekin bearko zaion. Itz egitea bakarrik ezta naikoa, bear da sendo ekin eta gaiñera buruz.

Onekin bukatuko ditugu atzo eta gaur emen izan ditugun itzaldiak. Ainbat jente eta ainbat izlari izan dira emen, itzaldi oso ederrak entzun ditugu eta Arruza jaunaren gaiari dagokiona batez ere da Lafitte-k emen atzo aipatu zuena. Ain zuzen ere Lafitte-k an eskoletan egin dutena esan zigun. Eta dirudianez, frutua ikusten baita, naikoa burutsu jokatu dute. Lafitte-k zionez eskoletan euskera maite eztutenak ere nolabait ontzat artu dute lan poxi bat egitea eta ori lortu dute alako diplomazia sendo batekin, beintzat alde jartzen ezpaldin badira ere kontra jarri ez ditezen lortu dute. Ortan, uste det, Arruza jaunak ondo esan duela lenbizi esan duena, legegillearena, baiña egintzetara joan bear degu eta orduan erakutsi bearko da abildadea. Bestalde atzo Mitxelena jaunak ere esan zigun emen nola gaur egunean eskola kontuan iñoiz egin eztana egiten ari dala norbait edo norbaitzuk. Eta nolabait ori indartu, geroago ta geiago indartu bear dala, gero legea ere sortu aal izan dedin, zeren-eta ezin eskatu diteke lege bat ezer ezpaldin badago, asmo uts batekin bakarrik. Asmo orrek atzetik izan bear du benetako bizia, eta benetako gauza bat izan bear du, legea emana izan dedin. Legea etortzen da egintzen atzetik. Aurretik ere etorri diteke, baiña arriskua izaten da gero egintzak legearen bidera makurtu ez ditezen, naiz-eta legea ematen duenak borondate osoa izan lortu nai dana lortu dedin. Eta ortan uste det Lafitte jaunak emen eman zigun ikasbidea oso jakingarria dala, eta beste alderdi batetik, ain zuzen ere, ori da guztiok daukagun ametsa, ortan gabiltza beti. Beraz, bideak billatu bear ditugu, alegiñak egin diplomazia aundi batez, iñor mindu gabe. Ori izaten da kontua askotan, gauzak nola esaten diran balio izaten dute edo ez etorkizun luze on bat lortzeko. Gauzak lenbiziko momentuan gaizki zuzentzen baldin badira, gero askotan egoten dira urteak eta urteak gaizki zuzenduak, eta ezin zuzendurik ibiltzen gera. Beraz, uste det emen jokatu bear dala buru askorekin eta ez arinki. Gaiñerakoan asmo.k izatea ona da, baiña asmoei gorputza eman bear zaie nolabait. Eta ori uste det denboraren buruan lortuko dala. Emen

badirudi guztiok euskera gauza nagusi bat bezela jartzeko asmotan gerala, eta, euskera badirudi guztion batasunerako gauza egokia izango dala. Euskerak euskaldun guztiak batu ditzala eta ez bereizi. Euskera, beste gauza batzuetan berdin pentsatzen ezpaldin badegu ere, euskera izan dedilla lokarria, guztiok lotuko gaituan lokarria. Euskaldunak izan dezagula izkuntzaren bidez batasun aundi bat. Eta ori da nik Arruza jaunari esango niokeana.

Eta, onela bukatuko ditugu atzo eta gaurko batzarrak. Emen egin diran itzaldi guztiak eta jardunak, oi danez, argitaratu egingo dira. Jardunak itzaldi gertatuen ostean jarririk izaten dira, noski, bizigarririk onenak, an agertzen diralako gauzak bizi bizirik, eta argibide aundiak izaten dira itzaldientzat. Eta **Euskera**-n argitaratuko ditugu.

Batzar auek batasuna lortzeko ere, izkuntzaren batasuna, uste det oso egokiak dirala, alkar ezagutzen degulako. Emen euskalki askotako jenteak itz egiten du, eta nastutzen geran ezkero, ez laboratorio baten egiten degun gauza bezela, baizik alkarrekin izketan, bizi bizian, batasun biderako oso egokia dala deritzat, eta olako batzarrak, au da egin dan irugarrena, mesede aundia ekarriko dutela orretatik bakarrik, alkar arpegiz arpegi ikustetik eta alkarrekin itz egitetik.

Bertsolariak ere batasun kontuan gauza ederra egin dezakete eta egin dute orainarte. Bertsozaleak bertsolaririk onenen bertsoak buruz ikasten ditu bertso-paperetatik, eta naiz-eta euskalkiz berdiñak ez izan kutsatu egiten da beste forma batzuekin, buruz ikasten dituzte eta kutsatu egiten dira. Eta naiz-eta norberak bere euskalkiko joera igarri gabe atera Bizkaian ikusten degu nola Gipuzkoako forma asko erabiltzen dituzten ikasiak, eguneroko izketan erabiltzen eztituztenak, baiña erabilliezagatik oso ongi ulertzen dituztenak. Aurten guztiok dakizute Bizkaian egin degula Bizkaiko bertsolarien txapelketa eta Gipuzkoan ere biar izango degu txapelketa nagusia. Badago asmo bat, Nafarroan ere egin nai dute datorren urtean ango txapelketa, badago asmo bat Euskalerri osoko bertsolariak alkarrekin nastutzekoa. Mugaz bestaldetik ere badaude bertsolariak, aurten ere izan dituzte zenbait saiaketa, igaz ere bai, eta an ere ari dira, eta guztiak urte batzuetan alkarrekin nastutzen baldin badira euskeraren batasunerako gauza egokia izango da, alkarrekin nasturik kutsatu egingo diralako apur bat, eta kutsatzen baldin badira zenbait gauza ikasi eta ulertu egingo dituzte izketan erabiltzen ezpaldin badituzte ere oraingoz. Lenbiziko aldian akaso ezin izango da lapurtar bat bizkaitar batekin teman jarri, baiña billatu diteke modua teman jarri gabe

ere bertsoak kantatu ditzaten guztiak entzuteko moduan. Eta bertsolariak eztira laboratorio batean asmatutako gauza bat, da gauza bat benetako bizia daukana, eta nastutze orretatik, benetako bizitzako nastutze orretatik etorri diteke batasuna, laboratorioko zeretatik baiño geiago. Guk laboratorioan egin bear gendukeana da ezagutu benetako zer ori nola dan, eta zuzendu, ezagupidearen zentzunez jokaturik, batasun ori albait errezen egin dedin. Baiña zuzendu, ez asmatu. Batasunaren aldetik, len ere esan det, batzarrok ere mesedegarriak dira.

Batzar auen inguruan, eibartarrei eskerrak, zenbait jai eta euskal festa gertatu dira, ez bakarrik emen biltzen geran minoria onentzat, baita erriko jente guztiarentzat ere. Atzo Amaya Teatroan Elgoibarko teatrogilleak oso ongi eta biziki eman ziguten Garitaonaindia zanaren obra eder bat, Eibarko koralekoak ere aritu ziran, bakarrizketa bat egin zuen beste batek oso ederra eta jenteari barre asko eragin ziona, eta bertsolariak ere kantatu zuten, gipuzkoarrak eta bizkaitarrak: Basarri ta Uztapide eta Embeita ta Azpillaga. Gaur ere badaude Amaya Teatroan beste zenbait gauza. Gaur arratsaldean aurren esamiña batzuek egingo dira. Beko plazan, Ayuntamentuaren aurrean jarri dituzte toki batzuek esamiñak bertan egiteko Eibar eta Eibar inguruko aurrei. Biar goizean amaiketan, programak jartzen duenez, zenbait aritu ondoren, aurreskua, dantzariak, txistulariak, sariak emango zaizkie aur oiei, eta arratsaldean Gipuzkoako bertsolarien txapelketa nagusia izango da. Diot, bada, batzar auen inguruan, erriko jentearentzat, maioriarentzat ere, ainbat gauza prestatu dirala.

Olako batzarrak, aurrerantzean ere segitu bear ditugu egiten, zentzunez eta alkarren iritziak eta esanbearrak adituz, eta gero argitaratuz. Eta uste det asmo au aurrera eramaten baldin badegu bear dan bezela, aurrerapide aundiak egingo ditugula. Eta onekin bukatzen det.

A. Irigoyen: Orain, ordu batetan Club Deportivo-an erretratu--erakusketa bati asiera emango zaio, eta ikusten joan nai duena joan diteke. Orrela, ara joanik ospea emango zaio.

(Aurreko **Euskera**-n (IV-1959, p. 257) argitaratu genduan Biltzar onen berri ta baita Gipuzkoako bertsolarien txapelketa nagusiaren berri. Praga-tik berandu, Biltzarrak bukatuta gero etorri zan agurrezko karta ere, Norbert Tauer-ena, argitaratu genduan. Bertsolari nagusiari Gipuzkoako Diputazioaren izenean makilla ematera Vicente Izagirre Zarauzko Alkate jauna izan zan).

Euskal Kulturaren Alde-k izkribu bat bialdu zuen Biltzarrera. Baiña astiezagatik etzan irakurri. Emen ematen degu beste lan eta jardun guztiekin batera:

EUSKALTZAINDIAK EIBAR'EN ATONDUTAKO BATZARRARI
Euskerari buruzko asmoak

Euskera salbatzeko guziok dugun kexutasunez batzar ortara idazki au zuzentzea erabaki dugu, geron artean darabilzkigun asmo ta kezka batzuek agertu naiean eta ontzat artuak izango diralakoan.

Guziok bat geran euskerarenganako maitasunean ari izan bear dugu beti, maitasun orrek emango baitigu gure izkuntza zaintzeko bear dugun argia, baita kemena ere.

Maitasun ortan bat gerala diogu, orrela dalako ta orrelaxe izan bear duelako, batasun orrek ematen digun pozez. Jarduketan, ostera, ezin batasunik izan; guziongan, ala bearrez, buru bezenbat aburu sortzea dugu bidezko. Auzia, beraz, gure aburu oiek alkartzeko alegiñak egitea dugu; orixe izango genduke onena; eta alkartze osoa zailla bada, gutxienez alkarrenganuntz urbildu.

Gauza aunitz egin ditezke, eiki, gure izkera gaxo onen alde, ta onezkero amaika ezagutu ditugu elburu ortaz aurrera eraman izan diranak. Lan guztiak ditugu onuragarri, bakoitza bere maillan noski; eta lan guzti oiek beren laguntza egiazki eman dute.

Ala ere, euskera salbatzeko ta gure arazo au aurreruntz eramateko, ez lan oietako bakoitza, ez eta ere guztien artean egindakoak, ez dira aski izan, nai zana burutzeko. Euskera gero ta atzerago dijoakigu; edozein toki edo errira so egin ezkero, nunai galtzea baño ez da ikusten.

Orain arte egin diran lanak eta antolatu diran erakundeak, iñolaz ere geldierazi gabe, iñundik ere ezeztatzeke, aurreruntz jo bear dute, beren frutu onak eten gabe ematen jarrai ditzaten. Baña beste zerbait billatu bear dugula uste dugu, ta bear dugun beste ori zein dan edo zein izan ditekean azaltzea izango da idazki onen mamia.

Geron ustez, eta ontan ere bat geralakoan egon gaitezke, gure izkuntzak aurrera jo dezan, beste kultura-mintzairak eraman duten bidea bera artu bear du erabat; eta gure Erriak, arlo onezaz, beste Erri guztiak bezela jokatu bear luke.

Makiña bat bide Erri guztietan, beren izkuntza ta beren kultura zaindu ta indartzeko darabilzkitenak! Baña, ainbeste izanarren, bat dute orok beste bide guztien oñarria: Irakaskintza. Orra or bide bearra eta egokiena.

Orixe izan bear orrengatik, euskerari buruzko asmoen artean, geron ustez, gure kexutasun aundienekoa; eta bere mugarrien artean kokaturik, auxe da egitan esan dezakeguna: Euskalerri osoan euskera eskoletan bete-betean sartu arte, ez dugu esan ahal izango bere osasunerako bidean ari danik; ez eta gure Erriak bere gogo berezia gorde ahal izango duenik ere; oso estu baititugu alkarturik gurean, edonun bezela, gure izkuntza ta gure gogo ori.

Erri guztietan, egun iñoiz baño neurri aundiagoz, beren aur ta gazteen gogoa eskola ta ikastetxeetan eratzen da; eta ikas-lekuetan artzen edo bereganatzen duten gogo orrek, beren bizi guzirako iraungo die, nai ta nai ez, naiz eta gero beste izkuntzak ikasi, naiz eta beste kulturetan sartzen badira ere. Egitada au begien aurrean agertzen zaigu egi-egitan, eta ez dugu uste iñork ukatuko digunik.

Erri geyenetan, eskolako gogo-giroa ta kanpokoa berdiñak dira, edo obeto esanik bat dira biak. Aurrak eskoletara dijoazenean, etxean ikasitako izkuntza bera aurkitzen dute, eta eskoletatik ateratzen diranean orobat eguneroko bizian. Ala, etxe, eskola ta biziaren joerak gogo-giro berean edaturik dituzte, alkarrenganako batasunean.

Ez da gurean orrelakorik iñoiz gertatu. (Euskeraz mintzatzen dan errietan esan nai dugu). Gure euskaldun aurrak gogo-giro bat dutela sartzen dira erdal-eskoletan; eta leku auetan erderaz irakasten dana ondo xamar ikasten badute, beste gogo-giro berri batean aterako dira geyenak; eta ori estu gertatzen ezpada ere, ziur da, sartzerakoan eramaten dana, oso naspildu eta txikitua izango dutela. Eta beren bizi guzirako, etxeko gogo-giro ura, eskolako giroak guztiz menderaturik geratuko da eta sakon aldaturik. Ots, naiz eta eskolatik irtenda, euskal-giroan bizi izatera berriz sartuarren. Zer esan, erdal-giroan bizi bear baldin badute?

Orra bada, gure euskal-gogo ta euskerarentzako galbide nagusiena. Eta, alegia, orra ere nun ari bear izango dugun, euskera ta berarekin gure euskal-gogoa salbatu nai baldin badugu.

Bear-bearra dugu, orrengatik, gure euskal-irakaskintza antolatzea eta gero eskoletan erabiltzeko alegiñak egitea. Ez gera lan ontan lenengoak izango. Frantzia'n «Deixone» legea deitzen danak neurri bateko eskubidea ematen du, beste izkuntzen artean, Lapurdi, Baxenabarre ta Zuberoa'ko eskoletan euskera ere irakasia izan dedin. Eta ain zuzen, joan dan agustuan Bayona'n izan da ikastaro txiki ta berezia, esandako lege orren babesean egin ditekean euskal-irakaskintzari buruz egiña.

Euskal-irakaskintza antolatzeko, eskierki, eragozpen batzuek sortuko dira ortan abiaturik. Ez da txikiena izango eskoletan ira-

kasten diran geietarako liburu egokiak ez izatea. Eta liburu oiek idazteko ere, zer esango dugu ikas-gai bakoitzak bear dituen itz bereziak ezpaditugu? Nai ta nai ez, auek ere sorrerazi bear; eta itz oriek berberak, guziok ontzat artzeko balira, gaitz erdi; orrela sorterri guzirako batasuna egiña izango genduke. Ez ote da egokiena asmo ontaz ari izatea?

Nork eratu euskal-irakaskintza? Geron iritziz, gaur euskera ta euskeraz irakasten ari diranak; auetxek egokienak apika. Eziña ote, **euskal-irakasleen alkartasuna** sorreraztea, elburu berezi orrezaz gañera? Egin ditekean erakundea dugu ori, geron ustez, eta orrengatik batzar orri aurkeztutzen ausartzen gera.

Eta nork ikas-gaietarako bearrezkoak ditugun itz berriak aukeratu? Esan ditugun irakasle oiek berak idazleekin batera. Idazleen alkartasuna egiña bide dago aspalditxodanik. Beraz, orra bi alkartasun oso berezi ta egokiak, egin bear dan lanerako aukerakoen izateko diranak.

Irakasleak gertutzeko, ikastaro bereziak antolatu bear lirake, oietara batez ere gaur eskoletan ari diranak joan ditezen. Auengan euskerarenganako zaletasuna piztu-eraztea oso egokia izango dugu; ez, gañera, euskera bera bakarrik bear dalako, baita Frantzia aldean ari diranez, euskera frantzesa ikasteko oztopoa ez dala egiztatu dalako; aurrak eskolan frantzesaren ikastea obeto burutzeko, euskera etxean erabiltzea laguntzarik aundiena dalako. Orrelaxe ikusten dute irakaskintzaren nagusiak, eta orrengatik gero ta bide aundiagoa egiten du eskolan euskera sartzeko asmoak. Eta frantzesarekiko ona dana ez ote da gaztelaniarekiko ere?

Euskaltzale baten ametsa, euskera Euskalerriko erri guztietan ezaguna beñepein izatearena dugu. Beraz, geron asmoak mota bitarikoak ditugu: bata, euskeraz egiten dan errietan, bertako eskoletako irakaskintza euskeraz ere antolatzea; eta bestea, erderazko errietan, euskera, beste gai bat bezela, ango eskoletan irakastea.

Beste mailla eta tokietarako ere nai izango genduke euskera. Geron ustez apaiz-ikastetxe guztietan ere euskera ikasi bear izango litzake sakon eta ongi; Euskalerri osoan bizi diran apaizak egiazko euskaldunak izan bear, edonun sortu baititeke erlijiozko laguntzak euskeraz artu nai edo bear izango dituen euskalduna.

Beste errietara dijoazen mixiolariak, erri bakoitzeko izkuntza berezia ikasten dute asteko. Asko izango al litzake Euskalerriko apaizai beren Erriaren izkuntzaganako ajola ori bera eskatzea? Eta apaizai ezezik, fraile ta monjai ere?

Erlijiosoai buruz asi geran ezkero, badugu beste bide bat ere, geron ustez: Konkordatoarena. España'ko agintariek ontzat artzen dute konkordato ortan, Elizak eskola ta edonolako ikastetxe guziak antolatu ta izateko duen eskubidea.

Eziña izango al litzake bide ori erabiltzea? Ausaz, eragozpen aundiena, orrela jarri litezkean eskolak ideki ta eusteko, diruarena izango litzake. Baña diru-laguntza lortu ezkero, egin ditekean lantzat daukagu.

Orra or, gaurkoz, Eibar'ko batzar orren aurrean asmo auek agerrerazten ditugula; gogo onez artzen badira, ta bertatik euskeraren osasunerako zerbait on aurkitzen bada, benetan pozgarria izango da guretzat.

Beti euskeraren alde lan egiteko gerturik, ona emen guztienganako asmo onenaz gaudela.